




## BIDEA ZABALDU

Tokiko erakundeen egitekoa diskriminazio  
arrazista, xenofobo, romafobo eta LGBTIfoboaren  
aurka. Teoriatik praktikara





## Aurkibidea

|                                                                                             |           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>AURKEZPENA</b>                                                                           | <b>2</b>  |
| <b>SARRERA</b>                                                                              | <b>3</b>  |
| <b>1. ETAPA. ANIZTASUNA, DESBERDINKERIA ETA DISKRIMINAZIOA ULERTZEA</b>                     | <b>5</b>  |
| 1.1. Aniztasunari buruzko interpretazio-esparru bat                                         | 5         |
| 1.2. Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza                                            | 7         |
| 1.2.1. Berdintasun-printzipioa                                                              | 8         |
| 1.2.2. Diskriminaziorik ezaren printzipioa                                                  | 8         |
| 1.2.3. Diskriminazioa                                                                       | 9         |
| 1.2.4. Gorroto-delituak                                                                     | 12        |
| <b>2. ETAPA. ERREALITATE SOZIALA EZAGUTZEA</b>                                              | <b>16</b> |
| 2.1. Diskriminazioaren eragina Euskadin                                                     | 16        |
| 2.2. Diskriminazioak biktimengan eta elkarbizitzan dituen eraginak                          | 20        |
| <b>3. ETAPA. LEGE-ESPARRUA EZAGUTZEA</b>                                                    | <b>25</b> |
| <b>4. ETAPA. NORBERAK ESKUMENA DUELA JAKITEA</b>                                            | <b>27</b> |
| <b>5. ETAPA. ERALDAKETA SOZIALAREKIN KONPROMETITZEA</b>                                     | <b>31</b> |
| 5.1. Oinarrizko betetzea                                                                    | 31        |
| 5.1.1. Gorroto-gertakarien aurrean jarduteko protokoloak                                    | 32        |
| 5.1.2. Herritarren sentsibilizazioa                                                         | 36        |
| 5.1.3. Teknikarien prestakuntza                                                             | 39        |
| 5.1.4. Tratu-berdintasunerako planak eta barne-protokoloak                                  | 40        |
| 5.1.5. Kontratazio publikoa eta dirulaguntzak                                               | 41        |
| 5.1.6. Tokiko araudia egokitzea                                                             | 42        |
| 5.2. Sektorekako lanketa: segurtasuna, kontsumoa, kirola eta garraioa                       | 44        |
| 5.2.1. Segurtasunaren eremua                                                                | 44        |
| 5.2.2. Kontsumoaren eremua                                                                  | 46        |
| 5.2.3. Kirolaren eremua                                                                     | 47        |
| 5.2.4. Garraioaren eremua                                                                   | 47        |
| 5.3. Kategorien edo kolektiboen arabera lanketa                                             | 48        |
| 5.3.1. Pertsona arrazializatuak (ijitoak ez direnak) eta jatorri edo etorki atzeritarrekoak | 48        |
| 5.3.2. Ijito Herria                                                                         | 53        |
| 5.3.3. LGTBI kolektiboa                                                                     | 57        |
| 5.3.4. Beste kategoria eta talde batzuk                                                     | 62        |
| <b>I. ERANSKINA. DISKRIMINAZIO-GERTAKARIETARAKO TOKIKO PROTOKOLO-EREDUA</b>                 | <b>63</b> |

¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.



## Aurkezpena

Eskuliburu hau idazteko, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetzazko prozesu bat egin da 2025. urtean, sei saio monografikoren inguruan, aniztasunarekin, diskriminazioarekin eta indarrean dauden lege-esparruekin lotutako hainbat alderdiri buruz.

Prozesua eta edukia errazteko lana Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Berean euskal zerbitzuko teknikariek egin dute. Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari atxikita dago.

Aipatutako bilkuretan parte hartu duten erakundeen zerrenda honako hau da:

- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Amurrioko Udala
- Arrasateko Udala
- Basauriko Udala
- Berrizko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Durangoko Udala
- Eibarko Udala
- Galdakaoko Udala
- Getxoko Udala
- Irungo Udala
- Laudioko Udala
- Ordiziako Udala
- Pasaiaiko Udala
- Gasteizko Udala
- Zarauzko Udala
- Zestoako Udala
- Arabako Kuadrilletako bizikidetza mahaiei Idazkaritza teknikoa.

## Sarrera

Ukaezina da gure herri eta hirietan badirela diskriminazioa jasotzen duten bizilagunak, hainbat arrazoirengatik: sexua, generoa, etnia, jatorri nazionala, arraza, larruazalaren kolorea, erlijio-sinesmenak, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta -adierazpena, sexu-ezaugarriak, desgaitasuna, osasun-egoera, gorpuzkerak, adina eta posizio sozioekonomikoa, besteak beste.

Tokiko politika publikoek, printzipio etiko batengatik, ez diote egiturazko bidegabekeria-egoera horri ezikusiarena egin behar, eta, gainera, ezin dute halakorik egin indarrean dagoen nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriak ezartzen dizkien betebeharretan oinarrituta.

Alde horretatik, dokumentu honen helburua da zehaztea ea egokia den erakundeek eta udalek gai horretan duten jardura. Tokiko erakunde batzuk hasiak dira horrelako politikak garatzen, baina beharrezkoa da planteamendu integral eta sistematiko bat izateko aurrera egitea. Hala, dokumentu honek egiten duen ekarpen nagusia diskriminazioaren aurkako araudia betetzeko gutxieneko estandarra aurkeztea da.


Hartara iristeko, asmo pedagogikoarekin, etapakako ibilbide bat egiten da, arduradun politikoei eta teknikoei baliagarri izango zaiena diskriminazioa zer den ulertzeko, diskriminazioaren dimentsioa eta lege-esparrua zein diren jakiteko, udal-eskumena beren gain hartzeko eta, batez ere, aurrera eraman behar dituzten jarduerekin konpromisoa hartzeko. Era berean, haien lana errazteko, eredutzat erabil daitezkeen gertakari diskriminatzaile arrazista, xenofobo, romafobo (ijitoen aurkako edo antizigano) edo LGBTIfoboen aurrean jarduteko ereduzko protokolo bat jaso da, eranskin gisa.

Ibilbide hori egitea eta, bereziki, araudia betetzea ez da lan erraza. Gai honetan, autore batzuek “legeria-uholdea” deitzen dutena gertatu da, eta lege horietako asko duela gutxi onartu dira. Hori dela eta, ez da beti erraza izan nola eta noiz jokatu behar den jakitea.


Horregatik, dokumentu honen edukiak oinarri teoriko sendoetatik abiatuta erantzun nahi du, tokiko 19 erakundetako diziplina arteko profesional-talde batekin maila teknikoan egindako kontrastetik eta Eudelek aho batez egindako baliozkotzetik abiatuta, horrek adierazten duen adostasun politiko, tekniko eta sozialarekin.

Asmoa da euskal toki-erakundeek erreferentziazko dokumentua izatea, diskriminazio ugariri aurre egiteko betebeharrari dagokionez. Izan ere, azken urteetan, diskriminazio horiek, gutxitu beharrean, gero eta eragin handiagoa dute haiek jasotzen dituzten pertsonengan eta taldeetan, eta herritarren bizikidetza gero eta okerragoa izatea dakar horrek.

Hurrengo orrialdeetan, tokiko erakundeek bete beharreko araudia betetzeko proposamen bat aurkezten da, baina, horren gainera, helburua da aniztasunezko berdintasunean aurrera egiteko konpromisoa zehazteko aukera izatea, jardura zehatz eta egingarriekin. Azken batean, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa gauzatzea, funtsezko elementua baita justiziaren eta zuzenbideko estatu demokratiko baten oinarritzko eskubideen ikuspegitik, eta, gainera, gizarte-kohesioa sendotzen baitu, jardura publikoaren zilegitasuna areagotuz.



## 1. etapa. Aniztasuna, desberdinkeria eta diskriminazioa ulertzea



### 1.1. Aniztasunari buruzko interpretazio-esparru bat<sup>1</sup>

Aniztasuna, diferentzia, diskriminazioa eta berdintasuna, dela aukerena, tratua edo posizioa, elkarri lotuta dauden errealitateei erreferentzia egiten dieten kontzeptuak dira, eta kontzeptu horiek bereizi egin behar dira, politika publikoetatik arrazismoaren, xenofobiaren, romafobiaren (ijitoen aurkako estigmatizazioaren edo antiziganismoaren) edo LGBTIfobiaren errealitatean barneratu aurretik. Bai, behintzat, egin beharreko hori edozein politika publikok –eta, bereziki, giza eskubideen ikuspegitik egiturazko bidegabekeriak sortu dituzten sistema historikoei aurre egin nahi dien batek– eskatzen duen trinkotasunarekin eta zorrotasunarekin egingo badugu.

Gaur egun aniztasun terminoa era guztietako esparruetan (instituzionalak, akademikoak, sozialak, etab.) maiz erabiltzen dela ikusirik, esan genezake termino hori saihetsezina dela, nahiz eta ez den nahitaez argiena aipatzen duen errealitate-multzoa eta horietan eragiten duten politikak identifikatzeko. Testu honen helburua ez da adierazle alternatibo bat proposatzea, baina bai haren mugak identifikatzea eta, bereziki, adieraztea zer eduki eta ikuspegi hartu beharko liratekeen kontuan gai honen inguruan aurrerago proposatuko ditugun eta eraldatzaile izatea nahi dugun politika publikoetan.

Aniztasuna oso termino intuitiboa bada ere, aldi berean zehaztugabea da eta interpretazio desberdinak egin daitezke hari buruz, anbiguotasuna, politikoki zuzena izatea eta erakargarri eta liluragarri izateko gaitasuna adierazten dutenak. Aldi berean, beste kontzeptu batzuk desitxura ditzake. Izan ere, beharrezkoa da gogoratzea aniztasuna eta diferentzia ez direla gauza bera, eta diferentzia ez dela nahitaez desberdinkeria.

Horrela, ikuspegi semantiko batetik, gure artean antzekotasun falta ezartzen duten atributuak ditugula deskribatu edo egiaztatu besterik ez du egiten aniztasunak; beste ikuspegi batetik, ikus dezakegu ezkutatuan uzten duela (partzialki behintzat) gertakari bat: antzekotasun falta horietako batzuen (ez guztien) gizarte-irakurketek, desberdintze-prozesuen bidez, eragiten dute aniztasunak ez adieraztea soilik gizabanako edo talde bakoitza errepikaezina dela, baizik eta desberdintasunak daudela botereari dagokionez, bai eta ondasun ekonomiko eta kulturalak eskura izateari dagokionez ere. Hau da, desberdineria, bazterketa eta diskriminazioa.

<sup>1</sup>Hurrengo paragrafoak “La diversidad en las políticas de derechos humanos: necesidad de igualdad y derecho a la diferencia” kapituluaren sintesia dira, *Juventud, convivencia, futuro. Un proceso de co-construcción en Euskadi*-n argitaratua, Madril: Catarata, 2024. Aurkeztutako ideia bakoitzaren egileak aipatutako testuan aurkitu daitezke.



Hori dela eta, garrantzitsua da gogoraraztea desberdintasunen garrantzia gutxieteko arriskua dagoela. Batzuek hegemonia zalantzan jartzen dute, eta beste batzuek, berriz, ez hainbeste. Bigarren horiek desadostasun soilak dira; lehenengok disidentzia adierazten dute, eredu jakin bat ez onartzea. Oro har, disidentzia horiek adierazten dutena estu lotuta dago desberdintasun horiekin identifikatutako pertsonen eta taldeen (pertsona arrazializatuak, LGTBI kolektiboa, desgaitasuna duten pertsonak...) aurkako indarkeria zuzen, estruktural eta kulturalarekin.

Horrela, menperatze historikoko sistemak (arrazakeria, heteropatriarkatua, kapazitismoa...) ez dituzte soilik beren indarkeriaren jomugan kokatzen. Izan ere, sistema horiek berek zuzentzen dituzte bereizte-prozesuak, non ezaugarri edo elementu jakin batzuk desberdintasun gisa eraiki diren, eta zeinetan, hedaduraz, haiek daramatzaten pertsona-taldeak bestetasun edo alteritaterat jotzen diren. Bai haren eraikuntzak eta bai haren bortxaketak desberdinkeria legitimatzeko balio dute. Horrela, garrantzi berezia hartzen du aniztasun horiek desberdinkeria iraunkorren adierazpena direla baieztatzeak.

Eragiketa horretan guztian, askotariko bestetasun eta alteritate horiek gaiztakerien gordailu direla adierazten da, faltsuki aurkeztu eta homogeneoa balitz bezala desiratzen den *gu* bati kontrajartzen zaizkion akats sozialen eramaile. Desberdintasun horiek ez dira ausazkoak, disidentzia dakartenak baizik, zalantzan jartzen baitute uniformetasun nazionala, etnikoa, erlijiosoa, genero-arauaren aurka egiten dute...

Izan ere, *gu*-aren eta bestetasun horien arteko muga hori, marrazteaz gain, urratua izan dadila da xedea, bestea kanporatzeko edo desagerrarazteko, hainbat eratako indarkeria-ekintzen bidez. Halako moldez non, bestetasun horiek ezaba eta arbuia daitekeen "beste" bihurtzen diren.

Azken batean, menderatze-sistemen helburu nagusia da sistema horiek berak legitimatzeko desberdin gisa eraiki dituzten eta, aldi berean, gizarte-ordenaren disidentziak eratzeko ahalmena duten taldeak edo kolektiboak ezabatzea, baztertea edo hierarkizatzea. Helburu hori lortzeko, hain zuzen ere, jarrera, diskurtso eta ekintza diskriminatzaileak erabiltzen dira.

Zuzenbidearen ikuspegitik, diskriminaziotzat jotzen da pertsona-talde bati tratu kaltegarria eta bidegabekoa ematea, izaera edo ezaugarri batean edo gehiagotan oinarrituta, beste talde batekiko alderaketan, haien eskubideak urratzeko helburuarekin edo emaitza horrekin. Ezaugarri horiek aurrez aipatu ditugun desberdintasunak besterik ez dira, eta horiek oinarri hartuta eraiki dira gizarte-bereizketako prozesuak, eta erabili dituzte, historikoki, menderatze-sistemek.

Horiei aurre egiteko, giza eskubideen paradigmatic, besteak beste, talde eta kolektibo horiei babes berezia eman nahi zaie, ezaugarri horiek txertatuz Nazioarteko Zuzenbidearen ia tresna guztietan (itunak eta hitzarmenak), goragoko mailako arauetan (Lisboako Tratua, Espainiako Konstituzioa) eta lege askotan (Zigor Kodea, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko legeak edo arloko legediak). Kategoriak erregularri sartzen diren arren, ez daude beti denak barruan, eta ez dira beti berdin identifikatzen.

Aniztasun terminoari, askotan, adjektibo bat gehitzen zaio, bereizketa bakoitzaren errealitate partikularraei erreferentzia egiteko. Hala, ohikoa da gisa honetako pareak erabiltzea: aniztasun kulturala, aniztasun etnikoa, aniztasun nazionala, erlijio-aniztasuna, sexu-aniztasuna, aniztasun funtzionala, adin-aniztasuna... Kasu askotan, gurutzaketa lehen aipatu dugun kategoria bereziki babestuen zerrendarekin ezartzen da.

Oro har, hiru multzo handitan bil ditzakegu:

-  aniztasun soziokulturala, eta, horren barne, aniztasun kulturala, erlijio-aniztasuna eta etnikotasunari dagokiona;
-  sexu- eta genero-aniztasuna, zeinak barne hartzen dituen sexu-ezaugarriak, genero-identitatea, genero-adierazpena, sexu-orientazioa eta -praktikak; eta
-  beste aniztasun sozial batzuk, zeinen barne dauden aniztasun funtzionala edo desgaitasuna eta adin-aniztasuna.

Dokumentu honetan lehenengo biak landuko ditugu batez ere, eta Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza deitu ohi den eskubidearen eredu horretatik egingo dugu hori. Batzuetan haren irakurketa formalistak ezartzen badira ere, berdintasunaren nozioaren interpretazio mugatu batera eraman dezaketenak (beste ikuspegi batzuekin lotu gabea, hala nola aukerekin edo gizarte-jarrerekin), bere muga guztiekin, araugintzari lehentasuna ematen baitzaio arestian deskribatutakoa bezain konplexua den errealitate sozial baten aurrean, esparru koherentea da, efikaza maila instituzionalean, ez du baztertzeko egon daitezkeen beste batzuk, eta gai da aniztasunaren nozioan bildutako errealitate guztiak integratzeko.

Aniztasun soziokulturala xehetasun handiagoz landuko da 5.3.1 eta 5.3.2 ataletan. Sexu eta genero aniztasuna 5.3.3 atalean. Beste aniztasunak modu azalekoagoan landuko dira 5.3.4 atalean.

## SAKONTZEKO

Zabaldu: Dimensiones desde la desigualdad. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2023.

- Landa Gorostiza, J.M. Igualdad de trato, no discriminación y delitos de odio (31-50. or.).
- Ruiz Balzola, A. (2023). Conclusiones. (267-274. or.).
- Zubero, I. (2023). Desigualdad(es) y diversidad(es): elementos para la reflexión (9-30. or.).

Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/yxu3aazk>

## 1.2. Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Arau- eta kontzeptu-esparru zabalean sartu aurretik, jakin behar dugu ekintza diskriminatzaileak prebenitzeak, ikertzeak eta zigortzeak, azken batean, giza eskubideak babesteko arauetan duela babesa. Arau horiek nahitaez bete behar dituzte estatuak, eta, beraz, errespetatu egin behar dituzte, eta indarrean daudela bermatzeko eta, urratuz gero, ordaina jasotzeko beharrezko mekanismoak ezarri behar dituzte.



Alde horretatik, giza eskubideen oinarritzko printzipioak funtsezkoak dira estatuen erantzuna eraginkorra izan dadin; horrela, indarrean dauden nazioarteko tresna nagusietan agertzen dira, hala nola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, beste konbentzio batzuetan edo Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean.

II. Eranskinean, indarrean dauden araudien zerrenda bat dago, eta nazioarteko eta Europako tresna nagusiak nabarmentzen dira.

Jarraian, printzipio horietako bitan sakonduko dugu (berdintasunarenean eta diskriminaziorik ezarenean), diskriminazioaren noziora, eta horren adierazpenik gorenera, gorroto-delituetera, jo aurretik.

#### 1.2.1. *Berdintasun-printzipioa*

Estandar interamerikarren arabera, berdintasun-printzipioak eginkizun bikoitza du: batetik, eskubide autonomoa da, eta, bestetik, giza eskubideak aplikatzeko zeharkako printzipioa. Gure testuinguruan, berdintasuna oinarritzko eskubide gisa aitortzen da (14 CE artikulua) eta, aldi berean, berdintasun hori benetakoa eta efektiboa izateko baldintzak sustatzera behartzen dituen printzipio gisa (9.2 CE artikulua).

Berdintasun-printzipioak, eskubide gisa, estatuek berdintasuna beren ordenamendu juridikoan aitortzeari egiten dio erreferentzia, eta esan nahi du pertsona guztiak legearen aurrean berdinak direla aitortu behar dela; printzipio gisa, berriz, gobernu-ekintza guztiek berdintasun erreal eta efektiboaren alde egin dezaten sustatzeko ardatz orientatzaile gisa funtzionatzen du.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 1948an ezarri zuen berdintasunaren kontzeptu modernoari esker, berdintasun-printzipioa arau juridiko bihurtu da; beraz, pertsona guztien eskubide-berdintasuntzat hartu behar da. Hala ere, badago arrakala bat baieztapen horren *desideratum*-aren eta errealitatearen artean. Izan ere, hutsegite larria da alde aurretik pentsatzea izatez desberdinak direnak zuzenbidean berdinak izango direnik.

Horrela, berdintasunak, printzipio gisa, pertsonen eskubide berak eta ekintzarako eta garapenerako aukera berak izatea eskatzen du, eta gutxiengoaren arteko desberdintasuna errespetatzea eta talde diskriminatuentzako birbanaketako justizia soziala garatzea ere eskatzen du.

Bestalde, izaera edo ezaugarri batzuei lotutako diskriminazioa debekatzea berdintasun-printzipioaren adierazpen zehatza da konstituzio-testu modernoetan, halako moldez non pertsonen artean tratu bereizi ez-arrazoizkoak izateko aukera mugatzen baita.

Oro har, ezaugarri horiek, aurreko atalean ikusi dugun bezala, arraza, jaiolekua, jatorri etnikoa edo nazionala, sexua, sexu-orientazioa eta -identitatea, iritziak, filiazio politikoa, erlijio-kredoa eta abar direla-eta diskriminatzeko debekuei dagozkie.

Laburtuz, tratu-berdintasunaren printzipioak berekin dakar inolako diskriminaziorik ez egitea, edozein motatakoa dela ere (zuzenekoa, zeharkakoa, errakuntzazkoa edo elkartze bidezkoa), eta diskriminazio horren maila edozein dela ere. Modalitate horiek 1.2.3 atalean azaltzen dira.

#### 1.2.2. *Diskriminaziorik ezaren printzipioa*

Printzipio hori aurrekoaz harago doa, esan nahi baitu ez dela nahikoa eskubideetan berdinak izatea; gainera, debekatu egiten du pertsonen artean dauden desberdintasunen ildotik eskubideen alorrean inolako bereizketarik egitea.

Diskriminaziorik ezaren printzipioak eskubide-berdintasuna bete dadila eta pertsona guztien duintasuna aitor dadila du xede. Horrela ezarri zen 1948ko Giza Eskubideen Gutunean, 1953ko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean (14. artikulua) bertan adierazten da printzipio hori eguneroko bizitzako esparru guztietan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak eta ondasun publikoak eskuratzea) gauzatu behar dela.

Era berean, printzipio horrek pertsonen kontrako tratu orori aurre egiteko beharra azpimarratu eta diskriminazioa debekatzen du, aipatutako kategoria-zerrendetan oinarrituta, eta berdintasun-printzipioarekin osatzen da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean xedatutako baldintzetan (1. artikulua), zeinak honako hau dioen: “Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasunari eta eskubideei dagokienez berdinak”.

### 1.2.3. Diskriminazioa

Eguneroko terminoetan, RAEk honela definitzen du diskriminatu aditza: “Baztertuz hautatzea” edo “pertsona edo talde bati tratu desberdina ematea, arraza, erlijio, politika, sexu, adin, egoera fisiko edo mental eta abarrengatik”. Abiapuntu baliagarria da terminoaren ikuspegi juridikoagoan sakontzeko.

Horrela, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 18. Ohar Orokorren eta 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren arabera, diskriminazioa hau da: “[...] arrazoi jakin batzuetan (arraz, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste mota batekoa, jatorri nazionala edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein kondizio sozial) oinarritutako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun oro, baldin eta pertsona guztien giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aitortpena, gozamina edo berdintasunean egikaritzea deuseztatzea edo kaltetzea badute helburu edo ondorio”.

Kontuan har daitezkeen diskriminazioaren beste kontzeptu-erreferentzia esanguratsu batzuk dira 15/2022 Legeak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak, ezarritakoak (4. artikulua), Nazio Batuetako Giza Eskubideen Komiteak, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (1966), pertsonen artean “arraz” edo jatorri etnikoa bereizi gabe tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko 2000/43/EE Zuzentarauak edo enplegu- eta lan-arloan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzen duen 2000/78/EE Zuzentarauak ezarritakotik abiatuta, erabilitako kontzeptua, bai eta zenbait eskuliburutan jasotakoak ere.

#### Iparrorratza

Definizio horiek nagusiki juridikoak dira, adostasun zabala dago haiei buruz eta zuzenak dira. Hala ere, begirada formalistak saihesteko, beti komeni da beste batzuekin elkarriketan jartzea (osagarritasunez), hala nola egiturazko diskriminazioarekin edo diskriminazio sistemikoarekin, zeinak bat egiten baitu menderatze-sistema historikoez hitz egitean azaldu dugunarekin. Gainera, definizio hori aurkezteak aurrerago ikusiko ditugun edukiak sakonago ulertzen laguntzen du, hala nola zuzeneko eta zeharkako diskriminazio-binomioa, instituzionala eta intersektionala.

Egiturazko diskriminazioa (Maggy Barrereren lanetatik abiatuta) talde batzuen besteekiko botere- eta mendekotasun-harremanak sistematikoki erreproduzitzen dituzten prozesu eta eredu sozialen ondorioa da, eta horien erantzukizuna ezin da identifikatu modu indibidualizatuan. Dinamika horiek errepikatzeak berekin dakar talde batzuentzat sistematikoki desabantailak diren emaitzak egotea, baita zuzenbideak babestutako diskriminazio-arrazoi espliziturik ez dagoenean ere.

Ekintza diskriminatzaileak, egitez edo ez-egitez, era askotakoak izan daitezke: arbuioa, mesfidantza, mespretxua, bazterkeria, seinalatzea, ikusezin bihurtzea, jendaurrean estigmatizatzea, legez kanpoko miaketak, drogekin, delinkuentziarekin lotzearen bidezko aurreiritzia, ohiturei buruzko diskurtso

asimilazionistak, ezberdintasunarenganako intolerantzia, ez hartzea eragindako herritartzat, gizarte-dinamikekiko, guztion ogiarekiko interesdun edo konprometitutzat, tratu desberdina arauak betetzeko exijentzia handiagoari dagokionez gainerakoei baino, hutsegiteak eta urraketak daudenean tolerantzia txikiagoa, errugabetasuna frogatu behar izatea, eta abar.

Lege-testuetan diskriminazio-motak bereizi ohi dira. Jarraian, ohikoenak aurkeztuko ditugu<sup>2</sup>:

### Diskriminazio zuzena

Pertsona batek beste batek baino tratu okerragoa jasotzen duenean antzeko egoera batean, etnia, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, gorpuzkera... dela eta.

Adibidea: larruazal beltzaraneko bizardun bati taberna batera sartzea ukatzen diote “magrebtar itxura izateagatik”.

### Zeharkako diskriminazioa

Lege- edo kontratu-xedapen batek, banakako itun batek edo aldebakarreko erabaki batek, itxuraz neutroak izanik ere, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera dela-eta, pertsona bati beste batzuekiko desabantaila partikularra eragin diezaioketenean gertatzen da, baldin eta, objektiboki, ez badiote erantzuten helburu legitimo bati, eta helburu hori lortzeko bideak egokiak eta beharrezkoak ez badira.

Adibidea: besteak beste, betekizunen artean ezaugarri pertsonalak (nazionalitatea, adina) edo lana egiteko egokiak ez diren edo beharrezkoak ez diren kualifikazioak dituen lan-eskaintza.

### Elkartzeagatiko diskriminazioa

Pertsona edo talde batek, beste batekin duen harremanaren ondorioz, tratu diskriminatzailea jasotzen duenean gertatzen da.

Adibidea: erakunde sozial baten aurkako pintada islamofoboak egin dituzte, erabiltzaileen artean hainbat musulman dituelako.

### Erroreagatiko diskriminazioa

Pertsona edo talde bati, haiei buruzko iritzi oker baten ondorioz, tratu diskriminatzailea ematen zaionean gertatzen da.

Adibidea: pertsona bat ez dute lanpostu baterako hartzen, trans dela uste dutelako.

### Jazarpen diskriminatzailea

Integratuta dagoen pertsona edo talde baten duintasunaren aurka egiteko eta larderiakoa, etsaigokoa, apalesgarria, laidozkoa edo ofentsakoa den ingurua sortzeko helburuarekin edo ondorioarekin egindako edozein jokabide.

Adibidea: auzotar-talde baten manifestazioa, “ijitoak auzotik kanpo” edo “hiesdunak gure auzoetatik kanpo” leloekin.

### Diskriminatzeko agindua

Diskriminatzeko eragite, agindu edo jarraibide orori dagokio.

Adibidea: “atzerritar itxurako” etnia jakin batzuetako biztanleei dokumentazioa eskatzeko jarraibideak dituen polizia, horretarako justifikaziorik egon gabe.

### Diskriminazio anizkoitza

---

<sup>2</sup> Gehienak Eraberean Sarearen Oinarrizko Gidan jasotako Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko 15/2022 Legearen definizio laburtuak dira.

Diskriminazio anizkoitza gertatzen da pertsona batek, arrazoi bat baino gehiagorengatik, aldi berean edo elkarren segidan tratu diskriminatzailea jasotzen duenean.

Adibidea: Marokoko gazte homosexual bati tratu diskriminatzailea ematen diote bere nazionalitatea dela eta. Horrez gain, herrikide batek mehatxu egin dio gay izateagatik.

### Diskriminazio interseksionala

Horrelako kasuetan, diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago dago, edo elkarri eragiten diote. Hau da, ez da diskriminazio-kausa guztien batura, baizik eta arrazoi horiek pertsona edo gizarte-talde bakoitzean duten elkarreragina, gizartean dauden botere-egiturak islatzen baitituzte.

Hau da diskriminazio-moten artean antzematen zailenetako bat. Izan ere, nahiz eta pertsonok hainbat arrazoiengatik (emakumea izateagatik eta migratzailea izateagatik; migratzailea izateagatik eta ezintasunen bat izateagatik; beltza eta homosexuala izateagatik; eta abar) diskriminazioa jasotzeko arriskua izan, diskriminazio-modu hau egon dadin garrantzitsua da diskriminazioa gutxienez bi arrazoiengatik gertatu dela frogatzea.

Adibidea: etxeko lanetan gehiegikeriei aurre egiten dieten latinoamerikar jatorriko emakume askoren egoera. Emakume izateagatik sozialki zaintzarekin lotzen dira, egoera administratibo irregularragatik enplegu prekario eta eskubiderik gabera bideratzen dira, eta arrazializazioagatik, otzan eta zerbitzuzkotzat hartzen dira.

#### Iparrorratza

Interseksionalitate terminoa 1989an sortu zuen Kimberlé Crenshaw, eta, besteak beste, Estatu Batuetan hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan mugimendu feminista beltzek emakume beltz pobretu gisa aurrez aurre zuten diskriminazio egoera berezia agerian jarri nahian landutako nozio batetik hartu zuen.

### Diskriminazio instituzionala

Ez dago berariaz jasota indarrean dagoen ordenamendu juridikoan, baina diskriminazio-motatzat jotzen da. Hain zuzen, erakundeen politikek, praktikek edo prozedurek zenbait gizabanakori edo talderi ematen dieten tratu desberdin eta sistematikoa da, desabantaila bidegabeak eragiten dituenak.

Adibidea: bertako langileek burkinia udal-igerilekuan bainatzeko janzki desegokitzat hartzea.

### Ekintza positiboko neurriak

Ekintza positibotzat hartzen dira edozein diskriminazio edo desabantaila prebenitu, ezabatu eta, hala badagokio, konpentsatzera bideratutako tratu-bereizketak, halakoak dimentsio kolektibokoak edo sozialekoak direnean. Aldi baterakoak dira, diskriminazio-egoerak edo horiek justifikatzen dituzten desabantailak irauten duten bitartekoak. Gainera, zentzuzkoak eta proportzionalak izan behar dute.

Adibidea: enplegu-ikastaro batean, atzerriarrentzat plaza-portzentaje jakin bat gordetzea.

Motibazio diskriminatzaileen ikuspegitik, gure testuinguruan ohikoenak sexu-generoarekin (sexismoa), jatorri etnikoarekin, kulturalarekin edo arrazarekin (arrazismoa), nazionalitatearekin (xenofobia), sinesmen erlijiosoekin (antisemitismoa eta islamofobia), iritzi politikoeekin, egoera ekonomikoarekin (aporofobia), osasun-egoerarekin (serofobia, adibidez), desgaitasunarekin (kapazitismoa), adinarekin (adinkeria), sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin eta -adierazpenarekin (LGTBifobia) lotuta daude.

Motibazioei estu lotuta, jasotzen diren babestutako ezaugarrien zerrendak ez datoz bat lege-testu batetik bestera. Batzuetan kopuruari dagokionez, beste batzuetan ezaugarri horiei dagokien formari dagokionez

(adibidez, arraza, azalaren kolorea eta halako terminoen erabilerari buruz). Jarraian, eta adibide gisa, arauen arteko konparaketa jasoko dugu:

|                                    | ODIH (Art. 2) | PIED (Arts. 2 y 28) | PIDESC (Art. 2) | CIDR (Art. 1) | CDN (Art. 2) | CTMF (Art. 1) | CPP (Pre-Ambul) | C. Africana (Art. 2) | C. Americana (Art. 1) | C. Europeo (Art. 14) Protocolo 12 (Art. 1) |
|------------------------------------|---------------|---------------------|-----------------|---------------|--------------|---------------|-----------------|----------------------|-----------------------|--------------------------------------------|
| Raza                               |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Color                              |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Origen étnico                      |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Pertenencia a una minoría nacional |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Nacimiento                         |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Origen nacional                    |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Idioma                             |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Opinión política o de otra índole  |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Convicción                         |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Religión                           |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Sexo                               |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Edad                               |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Estado civil                       |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Impedimentos físicos               |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Origen social                      |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Posición económica                 |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Linaje                             |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Fortuna                            |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Patrimonio                         |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |
| Cualquier otra condición           |               |                     |                 |               |              |               |                 |                      |                       |                                            |

Iturria: Institut de Drets Humans de Catalunya.

### Iparrorratza

Eztabaida egon ohi da babestutako kategoria gisa sartzen diren kategorien muga zein den. Zenbait tradiziok *numerus clausus* direlakoak defendatzen dituzte, hau da, hertsiki aipatzen direneta mugatuak (ez da gauza bera Zigor Kodea edo lege administratibo bat), eta, oro har, diskriminazio historiko jakin batzuetara, haientzat sortu baitziren horrelako tresnak. Beste tradizio batzuek *numerus apertus* izatea proposatzen dute, hau da, babesa hedatu ahal izatea legegileak hasieran aurreikusi ez zituen baina bidegabeak diren beste errealitate batzuetara.

Gure ustez, *numerus apertus* politika inklusiboaren alde eginez gero, komeni da, aurreko atalean adierazi dugun bezala, ez gutxietea menderatze-sistema historikoengatik diskriminatutako pertsonen eta taldeen aurre egin beharreko bidegabekeria, beste errealitate batzuen ondoan, bidegabeak horiek ere, baina beste izaera batekoak, eta, ziurrenik, aztertzen ari garenaz bestelakoak diren tresnak behar dituztenak.


Ekintza diskriminatzaileak pertsonen bizitzako edozein eremutan gertatzen dira: osasunean eta kirolean, segurtasun publikoan, hezkuntzan, enpleguan edo gizarte-babesean. Alde horretatik, multidimentsionala, integrala, progresiboa eta ziklikoa da. Hau da, talde edo kolektibo bateko kide guztiei eragiten die (berdin ez bada ere), errepikatu egiten da, kaltea pilatuz eta areagotuz denborak aurrera egin ahala.

Hori dela eta, eragin eta ondorio oso larriak ditu pertsonen bizitzan eta gizarte-kohesio eta bizikidetzan. Horrela, biktimen eskura gertatutakoa ulertu, kudeatu, onartu eta integratzeko tresna eta baliabide publikoak jartzeak gertatutakoak eragindako zaurgarritasuna arinduz kudeatzeko gaitasuna areagotzen du.

#### 1.2.4. Gorroto-delituak

Diskriminazioaren barruan, gorroto-delituak figura dugu, eta hori da, aurrerago ikusiko dugun bezala, haien adierazpenik larriena. Hala ere, egoera horretara iritsi aurretik, beste elementu batzuk ere badaude:

zurrumurruak, estereotipoak eta aurreiritziak. Intolerantziaren bidea esaten diogun horren funtzionamendua ulertzeko ez ezik, balioko digu jokabide eta jarrera horietako batzuk juridikoki zehatu ezin direla ikusteko ere, eta, zehatu ahal direnean, administrazio-mailan edo zigor-arloan ote diren zehagarri. Hori guztia garrantzitsua da, ondoren, diskriminazioko gertakarien aurrean, tokiko protokolo baten esku-hartzerako eremu egoki, efikaz eta proportzionala zein den zehazteko.



Irudian ikus daitekeen bezala, elkarri estu lotutako kontzeptuak dira. Batzuetan, beste modu batzuekin erlazionatzen dira, baina uste dugu horiek aurkezteko modu hori dela dokumentu honen helburuetarako efikazena.

-  Estereotipoak zerikusia du pentsatzen dugunarekin. Pertsona-talde jakin baten errealtatea modu negatiboan sinplifikatzen duen uste edo iritzi orokorra da. Aurretiazko esperientzia puntualen batetik abiatuta eraiki ohi dira, esperientzia hori talde oso bati pertsona batzuen baina ez dena orokortzeko erabilita.
-  Aurreiritzia sentitzen dugunari dagokio. Pertsona edo talde batenganako sentimendu negatiboa eta mesfidatia adierazten du, ezagutu gabe, haiei buruz ditugun estereotipoengatik bakarrik. Osagai emozional handia duenez, ez da erraza datuekin desmuntatzea.
-  Zurrumurrua da aurrekoen lehen adierazpen publikoa. Esan daiteke pertsona batengandik bestearengana modu informalean dabilen informazioa dela, erabat edo partzialki faltsua, eta, zabaltzean, sorreran dauden aurreiritzi eta estereotipoak indartzea eragiten duela, baita talde sozial baten aurkako jarrera diskriminatzaileetarantz beste urrats bat aurrera egiteko legitimazioa ere.

Hiru elementu horien ezaugarri komuna da pentsamendu- eta adierazpen-askatasunaren parte direla. Hau da, sozialki arbuigarriak izan arren, ez dute muga zeharkatu juridikoki zentsuragarriak izateko. Honako hauek, aldiz, bai:

-  Ekintza diskriminatzaileak. Lehen ere definitu dugu zer den diskriminazioa. Kasu honetan, pertsona edo talde baten kontra gauzatzen da, ekintza jakin batzuen bidez, hala nola: etxebizitza bat ez alokatzea, lokal batera sartzen ez uztea edo hutsik dagoen lanpostu baterako ez kontratatzea. Ekintza horien ezaugarria da beren zentsura juridikoa, batez ere, administrazio-eremuan gertatzen dela.
-  Gorrito-delituak. Penalki ez-zilegiak diren ekintza diskriminatzaileak dira; hots, Zigor Kodean tipifikatuta daude.

Aurkeztu berri ditugun elementu guztiek duten elementu komuna da pertsonen arteko desberdintasunak eragindako gorrito-, baztertzeko- edo intolerantzia-motibazio baten ondoriozkoak direla, hainbat

arrazoierengatik, hala nola aurretik aipatu ditugun ezaugarriengatik: sexua, generoa, etnia, jatorria, sexu-orientazioa, genero-identitatea, erlijio-sinesmenak, etab.

Gorrito-delitu horiei dagokionez, hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Lehenengoa da kontzeptu hori ez dela existitzen gure ordenamendu juridikoan, eremu anglosaxoiaren (*hate crimes*) translazio bat da. Hala, baliagarria da 2003an Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak (ESLA) egin zuen definizioa<sup>3</sup> erreferentziatzen hartzea: “Zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-hausteak barne, non biktima, lokala edo arau-haustearen helburua aukeratzeko arrazoia, benetakoa edo hautemandakoa, konexioa, sinpatia, filiazioa, babesa edo talde bateko kide izatea den”, babestutako kategoria batzuetan oinarrituta.

Hori bi zentzutan eraman da Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikora: batetik, diskriminazio-astungarri bat gehituz, eta, bestetik, tipo penal jakin batzuk sartuz. Horien artean, nabarmentzekoak dira hauek:

-  22.4 artikulua. Diskriminazio-astungarri generikoa. Edozein deliturako aurreikusitako zigorra aplikatu eta gogortzen da, baldin eta “arrazoi arrazistengatik, antisemitengatik edo biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmenei, etnia, arraza edo nazioari, sexuari, sexu-orientazio edo -identitateari, genero-arrazoiei, duen gaixotasunari edo desgaitasunari buruzko bestelako diskriminazio-mota batengatik” egiten bada.
-  170. artikulua, mehatxuen modalitate astundua tipifikatzen duena, “biztanleria, talde etniko, kultural edo erlijioso edo kolektibo sozial bateko biztanleak beldurrazteraz bideratuak” badira.
-  314. artikulua zigortu egiten du ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo desgaitasunarengatik zerbitzu publikorik ez ematea.
-  511. eta 512. artikulua, eremu publikoan zein pribatuan, babestutako ezaugarri jakin batzuk direla-eta eskubidezkoak diren zerbitzu-prestazioak ukatzea zehatzen dutenak.

Bestalde, Nazio Batuek honela definitzen dute gorrito-diskurtso (*hate speech*) deitu ohi dena<sup>4</sup>: “Edozein komunikazio mota, ahozkoa zein idatzizkoa —portaera ere bai—, pertsona edo talde bati dagokionez gutxiespenezko edo diskriminaziozko hizkuntza erabiltzen duena, haren sinesmenetan, etnien, nazionalitatean, arrazan, adinean, generoan, sexu-orientazioan, generoan edo beste identitate-forma batzuetan oinarrituta”. Hauek dira funtsezko elementuak: hainbat modutan gauzatu daitekeela, ilustrazioak, memeak edo sinboloak barne; diskriminatzailea dela; gutxiesgarria dela; eta identitate-faktoreetan oinarritzen dela. Horrek ere badu translazioa Zigor Kodean, honen bidez:

-  510. artikulua gorrito-diskurtsoa arautzen du, eta adierazpen-askatasunetik bereizten du, besteak beste, honako hauek barne hartzen dituenak:
  - Talde jakin baten aurkako gorrito, etsaigoa, diskriminazioa edo indarkeria zuzenean edo zeharka bultzatzea.
  - Pertsonen duintasuna kaltetzea, umiliazioa, gutxiespena edo izen ona galtzea dakarten ekintzen bidez.
  - Talde baten aurka egindako delituak gorestea edo justifikatzea, edozein adierazpen publiko edo hedabide erabiliz.
  - Genozidio-delituak, gizateriaren aurkako delituak edo, gatazka armatua izanez gero, pertsonen eta ondasun babestuen aurkako delituak ukatzea, larriki arintzea edo gorestea.

Lehenengoak, aurreiritzietan oinarritutako motibazio zantzuak erakustez gain, aplikatu beharreko tipo penaleko elementuak betetzen dituzten gertakariak dira, eta, beraz, delitutzat har daitezke egoitza judizialean. Gorrito-gertakariak, aldiz, delitutzat jotzeko legezko baldintzak betetzen ez dituzten (edo

<sup>3</sup> ESLAen 4/2003 erabakia. Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/fm2h5bth>

<sup>4</sup> NBEren estrategia eta ekintza-plana gorrito-diskurtsoaren aurka borrokatzeko. Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/qfnj08k5>

betetzen dituztenik argi ez dagoen) aurreiritziek eragindako gertaerak dira. Poliziaren edo ikerketaren esparruan erregistratu ohi dira, eta, polarizazio-adierazleak aztertu ondoren<sup>5</sup>, gorroto-delitutzat jo daitezke, edo ez. Adierazle horiek gertakari batek gorroto-, diskriminazio- edo intolerantzia-motibaziorik duen identifikatzen laguntzeko biltzen diren zantzuen multzoa dira. Zantzu horietako bat edo gehiago egotea nahikoa izan ohi da ikerketa bideratzeko, motibazio arrazista, xenofobo edo LGBTIfoborik ote dagoen argitzeko.

Amaitzeko, aipatu beharra dago gorroto-delituak eta -gertakariak funtsezko ezaugarri bat dutela botere publikoen jardura bideratzeko. Izan ere, horien eragina ez da biktima zuzenarengana soilik iristen. Biktimak beren ezaugarriaren batean oinarrituta aukeratzen dituzte, egileak beldurra zabaltzeko nahi duelako edo gizarte-talde bat edo pertsona-talde bat beldurtu nahi duelako. Alde horretatik, komunitate-sarean eta bizikidetzan egiten den kaltea beste delitu arrunt batzuen baino askoz handiagoa da.

#### SAKONTZEKO

Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación. Argitaratzailea: Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada (CEJFE).


Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/mdyp8z8u>

---

<sup>5</sup> Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/z7v5eiwk>



## 2. etapa. Errealitate soziala ezagutzea



### 2.1. Diskriminazioaren eragina Euskadin

Diskriminazioaren eragina zein den jakiteko, elkarren osagarriak diren hainbat motatako iturriak ditugu. Adibidez, gorroto-gertakariei buruz osatuena Ertzaintzak urtero argitaratzen duen eta EHUKo Giza Eskubideen Katedrak egiten duen txostena da<sup>6</sup>. Badira beste txosten batzuk, kolektibo jakin bati edo maila lokalari buruzkoak. Hori da, besteak beste, Ikusgune<sup>7</sup>, Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokiaren kasua, baita Donostiako Udalak LGTBifobiako gorabeherari buruz egiten duen txostenarena<sup>8</sup> ere.

Bestalde, Eraberean<sup>9</sup> Sarearen urteko memoriak ere baditugu. Sare hori Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, eta arrazakeriaren aurkako, LGTBI eskubideen aldeko eta Ijito Herriaren aldeko hainbat gizarte-erakundek osatzen dute. Horietan, aintzat hartu dituzten diskriminazio-kasuak jasotzen dira.

Beste ikusmolde batetik, Ikuspegik<sup>10</sup>, EHUri lotutako Immigrazioaren euskal behatokiak, barometroak argitaratzen ditu aldiro-aldiro, euskal herritarrek diskriminazioaren eta –besteak beste– atzeritarren, ijitoen, erlijio-aniztasunaren eta LGTBI kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzio eta jarrerei buruzko inkestekin.

Iturri gehiago egon arren, horiek dira nagusiak eta horietan oinarrituta saiatuko gara egoeraren laburpen txiki bat aurkezten, joeretan eta patroietan zentratuago, erraz alda daitezkeen urte zehatzetako datuetan baino gehiago.

#### Iparrorratza

Errealitate horietara hurbiltzen garenean, funtsezkoa da ezkutuko zifra deritzonaz jabetzea. Hots, salatzen ez diren gertakari eta ekintza diskriminatzaileen proportzioaz. Gehienak direla uste da: % 80-90, FRA Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren ikerketen arabera. Arrazoiak askotarikoak dira: biktimen erakundeenganako mesfidantza, errepresalien beldurra, horrelako gertaerez arduratzen diren langileen prestakuntza falta, efikaza izango den esperantza gutxi, edo hori egiteko eskubidea dutela ez jakitea. Hori

<sup>6</sup> Eskuragarriak hemen: <https://labur.eus/tha7bwu5>

<sup>7</sup> Eskuragarriak hemen: <https://labur.eus/n5a8iftp>


<sup>8</sup> Eskuragarriak hemen: <https://labur.eus/tvi90vgr>

<sup>9</sup> Eskuragarriak hemen: <https://labur.eus/uoyu2xe4>



<sup>10</sup> Eskuragarriak hemen: <https://labur.eus/gabjbzor>

dela eta, funtsezkoa da botere publikoek zenbait jarduketa egitea, biktimei informazioa emateko, haiei laguntzeko, langileak prestatzeko, herritarrak sentsibilizatzeko eta estatistikak hobetzeko eta iturriak beste erakunde eta entitate sozial batzuekin gurutzatzeko.



Abiapuntua Ertzaintzak erregistratutako eta gorrotozkotzat sailkatuak izan diren gertakari polizialen estatistika da. Adierazle horren jarraipena egiten duen grafiko honetan ikusten denez, 2016tik 2024ra, inflexio-puntu argi bat dago 2020an, pandemiaren eta zenbait sektore politikok historikoki diskriminatutako kolektiboen aurka gero eta ertsitasun handiagoa izatearen testuinguruan.





Azpimarratu behar da 2022ko igoera nabarmena erregistro-metodologiaren aldaketa batengatik gertatu zela –aldaketa horrek ez zuen jarraitu, gerora–, eta 2024an horrelako gertaeren ustezko murrizketa lotuta egon litekeela, besteak beste, Arabak Gipuzkoaren edo Bizkaiaren aldean duen portaera berezi eta bestelakoarekin. Azterketa-maila tokiko eremura jaitsiz gero, ikus dezakegu horrelako gertaerak mota guztietako testuinguruetan gertatzen ari direla, ez hiriburuetan bakarrik.




Orain, motibazioan zentratuz, ikus dezakegu arrazakeriak, xenofobiak eta LGBTIfobiak biltzen dituztela urtero gertakari gehienak (2024an gertatutako guztien % 85). Banaketa hori ez da aldatzen lurralde historikoen artean. Era berean, arrazakeriaren kasuan, jatorri eta kolektibo guztiei eragiten dien arren, arabiar eta latinoamerikarren kontzentratzen da.





Gertakari-motaren ikuspegitik, ohikoenak lesioak eta mehatxuak dira, eta, ondoren, gorrotozko diskurtsoa. Hori horrela da gorroto-motibazio guztietarako, hau da, ez da funtsean aldatzen arrazakeria eta xenofobia edo LGBTIfobia kasuetan. Bestalde, horrelako gertaerak gehien gertatzen diren lekuak eremu publikoak (kalean, merkataritza- edo ostalaritza-lokal baten barruan) eta garraio publikoa dira.





Urtarokotasunaren ikuspegitik, urteko hilabete guztietan izaten dira, eta udazkenean eta udan handitzeko joera izaten dute. Hala ere, asteburuetan erregistratzen dira gehien, eta, ordutegiaren ikuspegitik, arratsaldeetan eta gaueetan. Hori bat dator gertakari horietarako lekurik ohikoena eremu publikoa izatearekin.



Bestalde, Ikusguneren eta Donostiako Udalaren txostenetako datuek, gertakari LGTBIfoboetan oinarrituta, berretsi egiten dute horrelako gertaerek azken urteotan izan duten goranzko joera. Baita eremu publikoan gehien kokatzen dituzten patroiak ere, eta haien forman: lesioak, mehatxuak, gorroto diskurtsoa...



Iturria:Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik Gasteizen izandako gorabeheri buruzko VIII. Ikusgune txostena.




Iturria:Donostian izandako LGTBIfobiako gorabeheri buruzko txostena, 2024.



Era berean, Sareari dagokionez, sortu zenetik 10 urte igaro diren honetan aztertutako 526 kasuei buruz ematen digun informazioak<sup>11</sup> berretsi egiten ditu orain arte jorratu ditugun zenbait gai: eragin handiagoa izatea pertsona arrazializatuen, atzeritarren eta LGTBI kolektiboan, lurralde historikoen arabera banaketa, edo horrelakoak eremu publikoan gertatzea nagusiki.

Biktimizazioaren ikuspegitik, ikuspuntu hori beste batekin osatzen da: euskal gizarteak diskriminazioaz eta kolektibo eta errealtate jakin batzuek duen pertzepzioarekin. Hala, adibidez, nahiz eta denboran irauten duen gehiengoaren nahia (2024an inkestatutako pertsonen % 76,4) askotariko gizarte batean bizitzea izan, gizarte homogeen batean baino hobeto, galdetzen denean kolektibo eta talde batzueganako diskriminazioa zein neurritan den ohikoa, diskriminazio hori existitzen dela onartzen da, eta oso zabalduta dagoela, bereziki Ijito Herriaren kasuan, atzeritarra izatearen kasuan, beste larri-kolore bat izatearenean...



Iturria: EPADE, Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerrei buruzko inkesta, 2024. Ikuspegi.

Diskriminazio hori bizitzako esparru ia nagusi guztietan dagoela onartzen da: etxebizitza lortzea, enplegua, legeen aplikazioa, gizarte-babesa eta, neurri txikiagoan, zerbitzu publikoak. Hain zuzen ere, % 16,6k aitortu du diskriminazio-egoerak jaso dituela azken urtean, eta % 26,7k, berriz, horrelakoak ikusi dituela. Bereziki, atzeritarren, arrazializatuen eta LGTBlen kasuan.

33. grafikoa. Azken hamabi hilabeteetan zeharka ikusitako diskriminazioa, ezaugarrien arabera (baiezko erantzun guztien %)



Iturria: EPADE, Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerrei buruzko inkesta, 2024. Ikuspegi.

<sup>11</sup> 2025eko otsailaren 24an Bizkaia Aretoan egindako aurkezpenean oinarrituta.


### Iparrorratza

Ijito Herria Euskadiko kolektiborik estigmatizatuena da, euskal gizarteak zenbait talde sozialez dituen pertzepzio eta jarrerai buruzko ikerketen arabera<sup>12</sup>. Ijitoen aurkako sinesmen faltsu eta diskriminatzaileek kezkatzeko moduko mailetara iristen dira: % 41,3k adierazten du ez diotela garrantzirik ematen seme-alaben prestakuntza akademikoari, % 43,7k gizarte-babesaz gehiegi baliatzen direla, % 31k uste du osasun-sistema kolapsatzen dutela, % 34,1ek babes ofizialeko etxebizitzara joan daitezela, % 69,3k haien kultura eta ohiturek euskal kulturarekin talka egiten dutela, eta abar.

Datu horiek adierazten dute romafofia gaur egungo errealitate bat dela gure gizartean, eta erakunde publikoei ahalegina eskatzen diete, errealitate bidegabe horri erantzuteko.

Zifra ezkutuari buruzko informazio baliotsua ere ematen dute inkesta horiek. Alde batetik, gertaera horien salaketa-indize baxuari buruz (% 16,1) eta ez salatzeko arrazoiei buruz.

36. grafikoa. Lehen pertsonan jasandako diskriminazio-egoeraren aurreko salaketa edo erreklamazio formala (%)



Iturria: EPADE, Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerai buruzko inkesta, 2024i, 2024. Ikuspegi.

Amaitzeko, hasieran esan dugun bezala, datu puntual bat aurkeztu ordez, helburua da konturatzea diskriminazioa zabaldua dagoela eta gure gizartean oso errotuta dagoela, arrazakeriaren, xenofobiaren, romafobiaren edo LGBTIfobiaren bidez. Motibazio horiek lantzen ari gara dokumentu honetan.

### **SAKONTZEKO**

Guía para la elaboración de informes integrales sobre discriminación en la ciudad. Argitaratzailea: Institut de Drets Humans de Catalunya.

Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/po7g52wt>


## **2.2. Diskriminazioak biktimengan eta elkarbizitzan dituen eraginak**

Biktimei arreta nola eman behar zaien planteatzeko tenorean, delitu edo gertaera arrunten biktimei dagozkien gako orokorreaz gain, beste batzuk hartu behar dira kontuan. Diskriminazioaren berezitasuna da pertsona horiek direnaren eta ordezkatzan dutenaren aurkako eraso zuzena dela. Hau da, beren izate intimoagoaren aurkako eraso dira, eta ondorioak familia-ingurunera, ezaugarri berak dituen taldera eta gizarte osora proiektatzen dira. Horregatik, biktimengan eta komunitate-sarean eragiten duten kalte handiagatik, legeak berezitasun batzuk aurreikusten ditu, bai botere publikoek haiek babesteko betebeharrari dagokionez, bai egin beharreko lanari dagokionez.

<sup>12</sup> Neurtu 2022: EAEko aniztasunari buruzko barometroa: ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak. Ikuspegi. <https://labur.eus/gt0veuol>

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, diskriminazioa bizitzako esparru guztietan gertatzen da: hezkuntzan, osasunean, lanean, aisialdian, kirolean, eta abar. Eta horren ondorioek diskriminazioa jasaten duten pertsonen alderdi guztiei eragiten diete: familiarra, soziala, psikologikoa, aukerak... Gainera, talde edo kolektibo bateko kide guztiei eragiten die, errepikatu egiten da, eta kaltea pilatu eta areagotu egiten da, denbora igaro ahala. Hori dela eta, esan ohi da dimentsio anitzeko izaera duela, integrala, ziklikoa eta progresiboa. Horri dagokionez, 1.2.3 atalean diskriminazio sistemikoari edo egiturazkoari buruz esan duguna konektatzen du.

Zaugarritasunarekiko lotura hori bi norabidekoa da. Talde bateko kide guztiei eragiten badie ere, ez du berdin eragiten, hau da, ez du zertan modu berean edo intentsitate berarekin eragin, sexuaren, adinaren, klase sozialaren eta beste faktore batzuen arabera. Izan ere, diskriminazioak gehiago eragiten die jada abiapuntuko egoera zaugarriagoan dauden pertsonari, eta are zaugarriago bihurtzen ditu. Hala, adibidez, LGBTIfobiaren kasuan, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak, batez ere trans pertsonak eta diru-sarrera txikiak dituztenak, gorrotoaren arrisku handiena duten profilen artean daude<sup>13</sup>. Haatik, komeni da analisia aldagai bakarrera mugatzeko tentazioa saihestea eta beste faktore batzuei lekua egitea, hala nola sexu/generoari, klase sozialari, parte-hartze sozialari eta abarri. Alde horretatik, berriro gogorarazi behar da 1.2.3 atalean aipatu dugun intersektionalitatearen nozioa.




Horrek guztiak azaltzen du gorroto-delituaren eta -gertakarien biktimek eragin psikologiko handiagoa izatea delitu arrunten biktimek baino. Alde batetik, ekintza diskriminatzaileen biktimen erreakzio berezia euren biktimizazio-esperientzia euren identitatearen nukleoaren aurkako erasotzat hartzen dutelako gertatzen da (pertsona beltzak, latinoak, LGBTIak, ijitoak, magrebtarrak...). Ezaugarri jakin bat edukitze hutsagatik edo talde jakin bateko kide izate hutsagatik kalte bati aurre egiteak bidegabekeria sortzen duela ikusteak kalte handia egiten dio autoestimuari, eta, askotan, azterna psikologikoak uzten ditu.

#### Iparrorratza

Adibidez, biktimizazio diskriminatzaileen ondorio psikologiko batzuek honako hauetara garamatzate: antsietate- eta estres-egoerak, depresiorako joera eta gogo-aldartearen beste alderazio batzuk, babesgabetasuna, erruduntasuna, beren burua arbuatzea, ideia suiziden tasak handitzea, autolesio-jokabideak eta suizidio-saiakerak egiteko aukera handiagoa, bakartzeko joera, frustrazioa, autoestimu-, autoirudi- eta segurtasun-arazoak, eskola-absentismoa, substantzien abusurako joera edo errendimendu akademikoa murriztea. Hori da, neurri batean, beste testuinguru akademiko eta sozial batzuetan gutxiengoaren estresa deritzona.

<sup>13</sup> LGBTIfobiaren egoerari buruzko txostena. Argitaratzailea: FELGTBI+ (2025). Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/q06dfxsn>

Ondorio horiek indibidualtasunetik eta plano psikologiko hutsetik haragokoak dira. Hain da horrela, ezen talde horietako pertsonak sentitzen duten lotsak aldatu egiten baitu gizartean, politikan edo kulturen duten parte-hartzea, bakartzea eragin dezake, edo gizarteko talde nagusiek eragindako segregazioa indartu. Horri dagokionez, funtsezkoa da agintariek horrelako egoerak errotik mozteko duten erantzukizuna nabarmentzea, zigorgabetasun-pertzepzioa desagerraraztea eta diskriminatutako taldeek erakundeenganako konfiantza berreskuratzea.



Nolanahi ere, dinamika horiek deskribatzeak ezin du eragin talde eta pertsona horiek betiereko biktimen rolera murriztera. Gertakari bati aurre egiteko eta desbiktimizatze prozesuak ulertzea funtsezkoa da<sup>14</sup> biktimaengan, haren inguruneetan eta, hedaduraz, bizikidetzan izan dezakeen eraginari aurre egiteko. Horretarako, jarraian ikusiko dugun bezala, funtsezko zeregina izango du politika publikoak eta, bereziki, izaera komunitariokoak aktibatzeak.

Gertakari diskriminatzaile baten aurrean, hasieran, zuzenean erasandako pertsonak aurre egiteko estrategiak aktibatzen dira, funtsezkoak direnak gertakariaren eragin emozional eta psikologikoa kudeatzeko. Aurrerago, denborak aurrera egin ahala, aktibatu egin daitezke (ez da beti gertatzen) norbanakoaren eta komunitatearen susperraldira bideratutako biktimizazio-prozesuak. Konplexuak eta iraupen luzeak dira, eta pertsonak eta kolektiboek berriz ekitea

eta autoestimua berreskuratzea da haien asmoa, biktimarioak ezarri dien biktimaren rola gaindituta.

Dena den, berriro ere egiturazko diskriminazioaren nozioarekin lotuta, esan behar da esanahi-berritze horiek ez direla helburu bat, baizik eta kokatze bat, biktimizazioek beste testuinguru batzuetan edo beste modu batean gertatzen jarraituko baitute, eta, berez eta izatez, ez baitiote biktimizatuak izateari utziko.


Prozesu horiei lotutako identitate-berrezarpenak komunitate-testuinguruetan gertatuko dira. Hori nabarmentzea funtsezkoa da erakundeek arauak eskatzen duten erantzun egokia asmatzeko eta benetan baliagarria izateko, kaltea konpontze eta sakoneko desberdinkeria eraldatze aldera.

Hona hemen aurre egiteko estrategia ohikoenetako batzuk:

-  Normalizazioa. Horrelako gertaerei egunerokotasun-izaera ematea da, eskubideen urraketa sistematikoa naturalizatzea, eta, zehazki, diskriminazioak jasatea, saihestea edo pasatzen uztea eragin ohi du. Injustizia norberarentzat eta familia edo kolektiboarentzat normala eta erremediarik gabekoa dela onartzeak “auto-baztertzea” ekar dezake, eta, azkenean, ekintza edo eskubideen gozamina mugatu. Egokitzen negatiboko prozesuekin eta babes-bilaketekin ere erlazionatzen da (erlijiosoarekin, adibidez).
-  Ondorioak minimizatzea eta inpaktu emozionala murriztea. Estrategia honetan eta aurrekoan ohikoa denaren erreferentziak aurkitzen ditugu lehen aipatu ditugun ikerketa batzuetan. % 10,2k uste zuen ez zela hain larria, eta % 8,5i ohikoa iruditzen zitzaion.

<sup>14</sup> Artikulu hau hartu dugu erreferentziatzat: Tania Paniaguaren “Enfrentando al odio. Estrategias de Afrontamiento y Desvictimización en Personas Víctimas de Racismo y Xenofobia”, *Revista Española De Sociología* aldizkarian argitaratua (2024, 33).

37. grafikoa. Lehen pertsonan jasandako diskriminazio-egoeraren aurrean salaketa edo erreklamazio formalik ez egiteko arrazoia (%)



Iturria: EPADE, Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerari buruzko inkesta, 2024. Ikuspegi.

-  Komunitateko pertsonekin edo profesionalekin lasaialdia hartzea lanetik kanpo, noizean behin. Helburua, zerbait egitea baino gehiago, pilatutako tentsioaren zati bat askatzea da, pareko norbaitekin edo une horretan beren zereginetan ez dabiltzan profesionalekin.
-  Alterazioak eguneroko bizitzan eta bizitegi-mugikortasuna. Horrelako gertaerak jasan diren eremu eta testuinguruak ekiditen dira, balizko birbiktimizazioak saihesten saiatzeko. Zenbait kaletatik pasatzeari uztea, aisialdi-gune batzuetara ez joatea edo garraio publikoaren erabilera aldatzea izan daiteke.
-  Salatzea. Elementu bereizgarria da, aurre egitetik biktimizazioa kentzera igarotzeko. Askotan, biktimarentzat urratsa zaila da, eta baliteke, denbora-tarte bat igaro ondoren, hari uko egitea. Justizia-itxaropen txikiarekin eta salatzailearentzat ondorioak izateko beldurrekin lotu ohi da (bereziki, egoera administratibo irregularrean badago).

#### Iparrorratza

Salatzeak berak zein salaketak berekin dakartzan ondorengo prozesuek birbiktimizazioak ekarri ohi dituzte. Gertatukoa zalantzan jartzen duten funtzionarioak izan daitezke horren eragileak; edo behar adinako garrantzirik ematen ez diotenak; halako gertaeren aurrean, ezjakintasunagatik, nola jokatu ez dakitenak; prozesuaren urrats bakoitzean edo instantzia bakoitzaren aurrean gertaerak kontatuz berriro bizi behar izatea, eta abar. Errealitate hori estu lotzen da zifra ezkutuekin.

Adibidez, salatzen duten LGBTIfobiaren biktimen % 33,33k aitortzen du gertakaria bera bezain traumatikoa suertatu zitzailela prozesua<sup>15</sup>.

Bestalde, desbiktimizazio-prozesuen adibide batzuk hauek dira:

-  Beren komunitateen eta historiaren errealitatea ikusaraztea. Horrela, biktimek beren bizitzaren kontrolaren zati bat berreskuratzea errazten da, eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartzen zaie. Terapeutikoa izan daiteke horiei ahotsa ematea edo sozialki aitortuak sentiaraztea.
-  Gizartea eraldatzeko eragile bilakatzea. Erasoen hartzaile pasibo izatetik horrelako gertaerarik berriro izan ez dadin modu aktiboan lan egiten duten agente izatera igarotzeko guneak antolatzea.
-  Dimentsio komunitarioa lantzea. Komunitatearekin (berriz) harremanetan jartzeko eremuak sortzea erraztea. Bai parekoek eratutako komunitatearekin, bai herritar guztiekin partekatutako zabalagoarekin, baina beti ere daukan diferentzia edo identitatea, etniko-kulturala zein sexu-generikoa, positiboki onartuta.

Esan beharra dago ez dela bidezkoa biktima guztiengandik desbiktimizazio-prozesu bat burutu dezaten espero izatea. Izan ere, bakoitzaren kapital sozialaren eta estatusaren egoerak baldintzatuko du egin ahal

<sup>15</sup> Id. 14.



izatea. Zenbat eta zaugarritasun handiagoa, orduan eta zailagoa da hori egitea. Horrek, beste behin ere, biktimei laguntzeko politika publikoak –horiek erraztuko dituzten ikuspegi psikosozialak eta komunitarioak txertatuko dituztenak– antolatzearen garrantzira garamatza.

Diskriminazioak eta gorrotoak duten eragina nolabaiteko xehetasunez azaltzea biktimenganako arreta bideratzeko oinarri bat da. Zehazki, jakinda honako hauek eskatuko dizkigula: enpatia eta entzute aktiboa; haren sentimenduak eta emozioak baliozkotzea; ulertzea ez dela unean uneko zerbait, laguntza-prozesu bat baizik, erabakiak hartzerakoan biktimaren autonomia errespetatuz, bere denbora eta espazioekin; haren eskubideak gauzatzeari buruzko informazio argia eta eskuragarria ematea; eta kasu bakoitzean eta pertsona bakoitzarengan dauden desberdintasunez, zaugarritasunez eta desberdinkeriez kontziente izatea.


Biktimaren eta profesionalaren artean desberdintasun kultural nabarmenik badago, hizkuntzaren mugak eta hizkuntzatik haragoko kulturarteko komunikazioa hartu behar da kontuan, arreta ematean. LGBTI biktimen kasuan, arreta horrek dagokion identitate, adierazpen, orientazio eta sexu-praktikenganako errespetu osoz eman behar da, eta saihestu egin behar dira judizio moralak edo edozein motatako balorazio edo iruzkinak.

#### SAKONTZEKO

Guía de actuación. Asistencia a víctimas de delitos de odio: trauma y factores de estrés. Argitaratzailea: ONDOD, Gorroto eta Diskriminazio Delituen aurkako Bulego Nazionala.

Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/v0tyxdyj>

### 3. etapa. Lege esparrua ezagutzea



Ikusi dugun bezala, nazioartean, European eta Estatuan hainbat arau-esparruk jorratzen dute diskriminazioa eta tratu-berdintasuna giza eskubideen ikuspegitik. Zehatz-zehatzak izateko asmorik gabe, horietako batzuetan argi geratzen da estatuek eta, beraz, estatu horiek osatzen dituzten administrazio publikoek babesteko duten betebeharra (errespetatzekoa, babestekoa, bermatzekoa, asebetetzekoa eta sustatzekoa).

Nazio Batuen nazioarteko esparruan, diskriminazioaren aurreko babes esanguratsua, oinarri orokortzat hartzekoa, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da (1, 2 eta 7. artikulua). Halaber, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (2.1 artikulua) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (2.2 artikulua), biak 1966tik indarrean eta Espainiak 1977an berretsita.

Halaber, diskriminaziorik eza da nazioarteko konbentzio batzuen gai nagusia, hala nola Arraza-diskriminazioaren mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioarena eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Emakumearen aurkako Diskriminazio-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioarena.

Europari dagokionez, 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena nabarmentzen da (14. artikulua), eta hitzarmen bereko 12. protokoloa, diskriminazioaren debeku orokorra ezartzen duena (1. artikulua). Era berean, EBtN ezartzen dira (2. eta 3.3 artikulua), EBFT (18 eta 19. artikulua), Ziberdelinkuentziari buruzko Hitzarmena (2010) eta Sistema Informatikoen bidez egindako Ekintza Arrazista eta Xenofoboak Zigorrezari buruzko Protokolo Gehigarria, Sistema Informatikoen bidez egindako Ekintza Arrazista eta Xenofoboak Zigorrezari buruzko Protokolo Gehigarria duena.

Pertsonak diskriminazioaren aurrean babesten dituzten Europako beste tresna arautzaile batzuen artean, oso adierazgarriak dira: EBko oinarrizko eskubideen Gutuna eta haren 1. protokoloa (21. artikulua), 2000/43/CE Zuzentaraua, 2000/78/CE Zuzentaraua, 2012/29/EB Zuzentaraua (9 eta 56. artikulua) edo 2000/43/CE Zuzentaraua, arraza- edo etnia-jatorriagatiko berdintasunari buruzkoa, eta 2000/78/CE Zuzentaraua, enpleguaren eta okupazioaren arloko tratu-berdintasunari buruzkoa.

Beste babes-tresna batzuetan, berriz, arrazakeriaren eta xenofobiaren forma eta adierazpen jakin batzuen aurka borrokatzeko esparru-erabakia daukagu, zigor-zuzenbidearen bidez, eta Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren gomendio, erregelamendu eta ebazpen multzo bat.

| Nazioartekoa                                                                                                                                                           | Eskualdekoa                                                                                                                             | Nazionala                                                                                                                                                                                 | Autonomikoa                                                                                                                     |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala</li><li>• PIDCP</li><li>• PIDESC</li><li>• Beste itun eta konbentzio batzuk</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• GEEHK</li><li>• EBT</li><li>• EBFT</li><li>• CEDFUE</li><li>• Berariazko zuzentarauak</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Espainiako Konstituzioa</li><li>• Zigor Kodea</li><li>• 15/2022 Legea</li><li>• LOEX</li><li>• 4/2023 Legea</li><li>• Beste lege batzuk</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• 4/2024 Legea</li><li>• Beste lege batzuk</li><li>• TBDEren etorkizuneko legea</li></ul> |

Estatu mailan, Espainiako Konstituzioak ere babesa ematen du diskriminazioaren aurrean (1.1, 9.2, 10.2, 13 eta 14. artikulua). Berriki, 15/2022 Lege integrala onartu da, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa. Lege horrek diskriminazioaren aurkako babesaren oinarriak ezarri ditu administrazio-mailako zenbait eremutan, eta, hala, osatu egin da zuzenbide penaletik babesten dituen jarrerarik larrienetarako ezarritakoa. Baita 4/2023 Legea ere, trans pertsonen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko, zeinak aipatutako kolektiboaren kasuan diskriminazioaren aurkako babes horretan sakontzen baitu. Beste eduki batzuekin bada ere, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa ere aipa daiteke, 23. artikuluan diskriminazio-egintzei buruzko aurreikuspenak jasotzen baititu.

Eta, izaera sektoriala duen arren eta denboran aurrekoa den arren, kirol-arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legea ere hor dago.

Autonomia-erkidegoetan, diskriminazioaren aurkako lege bakarra dugu —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legeaz gain, 2023ko 1/2023 Legegintzako Dekretua—: 4/2024 Legea, genero-identitateagatiko diskriminaziorik ezari eta transen eskubideak aitortzeari buruzkoa. Horrez gain, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Lege posible bat izapidetzen ari dira.

Arau-multzo hori guztia adierazteak agerian uzten du Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza legegintza-gai bat dela maila guztietan, eta denbora-tarte eta ikuspegi desberdinak dituela, orokorretatik espezifikoenera. Hau da, gai honetan administrazio publikoen (baita tokikoen ere) betebeharrak identifikatzen dira, eta funtsezkoak dira historikoki diskriminatutako pertsonen kolektiboetan ondorio larriak izan ditzaketen giza eskubideen uraketetatik babesteko eta berdintasun erreal eta efektiborantz aurrera egiteko. Dokumentu honen hurrengo etapetan, zehatz-mehatz azaltzen dira betebeharr horiek eta horien arau-babesa.


Azkenik, dokumentu honen II. Eranskinean hainbat eremutako lege eta arauak biltzen dira, eta horiek diskriminazioaren aurkako babesa eta tratu-berdintasunaren sustapena jorratzen dituzten erreferentzia-multzo zabala osatzen dute.

## SAKONTZEKO

Aurkezpena. Marco jurídico de la lucha contra la discriminación y los delitos de odio. Argitaratzailea: Fundación Secretariado General Gitano.

Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/mrgcvngk>

## 4. etapa. Norberak eskumena duela jakitea



Aurreko atalean adierazi den bezala, Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza botere publikoei hainbat betebeharrak ezartzen dizkien gaia da. Aipatutako 15/2022 Legearen xedea da (1.1 artikulua) “tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatzea eta sustatzea, eta pertsonen duintasun berdina errespetatzea Konstituzioaren 9.2, 10. eta 14. artikuluen garapeneraren arabera”. Betebeharrak horiek hainbat modutan zehazten ditu, besteak beste (dena zehazteko asmorik gabe):

- Partikularren arteko harremanetan Tratu-berdintasun eta Diskriminazio gabezia erreal eta efektiboa sustatzeko politikak bultzatzea (33.1 artikulua).
- Ekintza positiboko neurriak hartzea (33.1 artikulua), ezarritako kausengatik.
- Irakaskuntza eta prestakuntza sustatzea (33.4 artikulua) ; eta, bereziki, azken hori, administrazioen zerbitzura dauden teknikarientzat (38 artikulua).
- Herritarrek sentsibilizatzea (33.4 eta 54 artikulua).
- Ekintza diskriminatzaileen, indarkeriaren eta gorroto-gertakarien eta -diskurtsoen prebentzioa eta salaketa sustatzeko neurriak sendotzea (33.3 artikulua).
- Ekintza diskriminatzaileak antzemateko eta prebenitzeko bitartekoez hornitzea (25. artikulua), horrelako gertaerak ezagutzen dituen jarduten duela ziurtatuz (31. artikulua) eta biktimei informazioa ematea bermatuz (53.1 artikulua), zerbitzu telematiko eta presentzialen bidez, erasoen, intolerantzia-egintzen edo gorroto-gertakarien eta diskriminazio-jokabideen biktimei arreta integrala eta diziiplina anitzekoa emateko.

Horri dagokionez, adierazten du (2.4 artikulua, b eta c atalak) betebeharrak horiek dituzten botere publikoen artean daudela, besteak beste, autonomia-erkidegoak eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.

Era berean, badira pertsona-talde jakin batzuen egoerari heltzen dioten beste lege batzuk, aurreko paragrafoetan adierazitakoarekiko koherentea eta osagarria den esparru bat ezartzen dutenak.

Adibidez, 4/2000 Lege Organikoak, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak, adierazten du Gobernu zentralaren eskumenei kalterik egin gabe autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei ere badagokiela (2bis.1 artikulua). Aipatuz, besteak beste, (2bis.2.e artikulua) diskriminaziorik ezaren printzipioa eragingarri egitea, eta, ondorioz, eskubide eta betebeharrak

berberak aitortzea Espainian legez bizi edo lan egiten duten guztiei, legean ezarritakoaren arabera. Are gehiago, adierazten du botere publikoek sustatu egingo dutela (2ter.1 artikulua) atzerriarrak erabat gizarteratzea, eta sustatu egingo dutela (2ter.2 artikulua) atzerriarren parte-hartze ekonomikoa, soziala, kulturala eta politikoa, tratu-berdintasuneko baldintzetan.

Bestalde, otsailaren 28ko 4/2023 Legeak, Transen Berdintasun Erreal eta Efektiborakoak eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzekoak (1.1 artikulua), lesbianen, gayen, transen, bisexualen eta intersexualen (aurrerantzean, LGTBI) eta haien familien berdintasun erreal eta eraginkorrerako eskubidea bermatzea eta sustatzea du xede (1.2 artikulua), eta botere publikoen jarduera-printzipioen multzo bat ezartzen du (1.2 artikulua). Bat dator 15/2022 Legearekin, antzeko erantzukizunak esleitzean (4. artikulua): "Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aitortzeko, bermatzeko, babesteko eta sustatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak garatzea". Baita biktimen kasuan ere, horiek bermatzea (67. artikulua) "LGTBI pertsonen diskriminazioarekin lotutako informazio eta aholkularitza juridiko espezializatu guztia jasotzeko duten eskubidea", osotasunari dagokionez, eta gutxienez (68. artikulua) honako hauek ulertuta: "Beren eskubideei buruzko informazio eta orientazio eskuragarria, bai eta eskura dituzten baliabideei, laguntza psikologikoari eta orientazio juridikoari, eta, hala badagokio, biktimak dituen lan- eta gizarte-premiei erantzutea ere".

Eskumenen ikuspegitik, Gernikako Estatutuak —Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa— ezartzen du (10.12 eta 10.39 artikulua) euskal erakundeek eskumen eskusiboa dutela gizarte-laguntzako eta garapen komunitarioko politiketan. Baita (10.2 artikulua) autogobernu-erakundeen antolamenduan, araubidean eta funtzionamenduan ere.

Illo horretan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, printzipio gidarian oinarrituta (4.1. artikulua), zeinaren bidez, "eskumen publikoak, lehentasunez, herritarrengandik hurbilen dauden agintaritzei egokituko zaizkie", haienezko berezko eskumen gisa gordetzen ditu (17.1.2 artikulua) "eremu publikoko bizikidetzak-harremanak antolatzea eta kudeatzea"; (17.1.13 artikulua) "gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea"; (17.1.35 artikulua) "immigrazioaren arloko gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasun-arloko legeriarekin bat etorritu eta erakunde autonomikoekin lankidetzan"; eta (17.1.27 artikulua) "genero-berdintasuneko politikak antolatzea eta kudeatzea, eta ekitatea sustatzea". Azken hori nabarmentzen dugu, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, oro har, bai ekitateari dagokionez, zentzu zabalagoan hartuta eta kolektibo zaurgarri bihurtuetan edo diskriminazio-egoera historikoei aurre egin dieten kolektiboetan oinarrituta.

| Errealitatea                                                                                                                                                           | Udal-eskumena                                                                                                        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Herritarren elkarbizitzari eragiten dion gaia da                                                                                                                       | 4.1.a artikulua: "eskumen publikoak, lehentasunez, herritarrengandik hurbilen dauden agintaritzei egokituko zaizkie" |
| Eremu publikoan izaten dira gorroto-gertakari gehien                                                                                                                   | 17.1.2 artikulua: "eremu publikoko bizikidetzak-harremanak antolatzea eta kudeatzea"                                 |
| Gertaera diskriminatzaileen biktimei arreta emateko, besteak beste, behar sozialei erantzun beharra ezartzen du legeak                                                 | 17.1.13 artikulua: "gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea"                                      |
| Gorrotoaren jomuga den kolektiboetako bat LGTBI da<br>Talde jakin batzuen ekitatea eta berdintasuna sustatzeko beharra dago<br>Esku-hartze intersektionalak behar dira | 17.1.27. artikulua: "genero-berdintasunerako politikak antolatzea eta kudeatzea, eta ekitatea sustatzea"             |
| Gorrotoaren jomuga den kolektibo nagusia atzerriar jatorriko pertsonena da                                                                                             | 17.1.35 artikulua "immigrazioaren arloko gizarteratze-politikak kudeatzea"                                           |

Era berean, nabarmendu nahi dugu gizarte-zerbitzuen arloko eskumena, 15/2022 Legeak adierazten baitu (53.2 artikulua) gorroto- eta diskriminazio-gertakarien biktimeztako arreta integral erreal eta efektiboak barnean hartu behar dituela “aholkularitza, laguntza, bereziki osasun-laguntza, eta haien suspertze integrala errazteko neurri sozialak”.

Politika horiek zehaztu nahi diren alderdietako bati dagokionez, hau da, gertakari diskriminatzaileei aurre egiteko tokiko jarduera-protokoloek dagokienez, botere publikoek —biktimari arreta integrala eskaintzera behartuta egoteaz gain, lehen ikusi dugunez— honako betebeharrak hauek dituzte:

-  Diskriminazio-kasu baten berri dutenean jardutea, dela dagokion administrazio-prozedurari hasiera emanez, dela egitate horien berri berehala emanez beste administrazio eskudun bati (15/2022 legearen 31. artikulua eta 4/2023 Legearen 63. artikulua).
-  Egoera diskriminatzaile horiek hautemateko metodo edo tresna aski aplikatzea, bai prebentzio-izaerarekin, bai eta, behar izanez gero, haiek uztera bideratutako neurriak hartzeko ere (15/2022 Legearen 25. eta 33.3. artikulua eta 4/2023 Legearen 62. artikulua).
-  Herritarrek tratu-berdintasunean eta diskriminazioaren aurka sentsibilizatzea, “horien salaketa sustatuz eta biktimei laguntza bermatuz, salaketarik jarri ez arren” (15/2022 Legearen 54.1 artikulua eta 4/2023 legearen 5 eta 6. artikulua).

Berriz ere, eskumenen ikuspegitik, argi dirudi toki-erakundeak direla egokienak eginkizun horiek betetzeko, esleituta dituzten eskumenetan oinarrituta. Ildo beretik, egokia da aipatzea diskriminazio- eta gorroto-gertakariak lotura zuzena dutela Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak auzokideentzat adierazten dituen eskubide eta betebeharren esparruarekin.

Hala, honako betebeharrak hau ezartzen du (44.1.e artikulua): “Eremu publikoan herritarren arteko bizikidetzara-erakundeak errespetatzea eta gainerako pertsonen eskubideak errespetatzea”. Eta, bestetik, zerbitzu publikoetara eta interes orokorreko zerbitzu pribatuak modu efektiboan eta berdintasunean iristeko eskubidea aitortzen du (43.1.e artikulua), “bereziki gizarte-desabantailako egoeran dauden edo objektiboki hala behar duten pertsonen, kolektiboaren eta taldeen kasuan” eta (43.1.j artikulua) “udal-administrazioak tratu berdina izateko eskubidea [...] sexua eta beste edozein zirkunstantzia alde batera utzita, diskriminazio anizkoitza jasaten duten pertsonen edo taldeen oinarritzeko eskubideak bermatuz”.

Eskubide horiek udalerriko atzeritarrei ere aitortzen zaizkie (43.2 artikulua). Hori garrantzitsua da, hain zuzen ere, arrazakeria/xenofobiaren diskriminazio-sistema historiko bati aurre egiten dion pertsona-talde baten babesari dagokionez, eta, ikusi dugunez, 2/2016 Legeak toki-erakundeei ere ematen die sistema horren gaineko eskumena.

Bestalde, erakundeen arteko lanari dagokionez, botere publikoek eginkizun horiek guztiak beren gain hartzea aurreikusten duten modua izango da (15/2022 Legearen 35. artikulua eta 4/2023 Legearen 8. artikulua) haien arteko lankidetzara beren eskumenak gauzatzean, bai eta elkarriketa eta lankidetzara ere (15/2022 Legearen 39. artikulua), berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzen laguntzeko interes legitimoa duten gobernu kanpoko erakundeekin.

Azken paragrafo horretan eta aurrekoetan adierazitako guztia kontuan hartuta, modu koherentean ondorioztatu daiteke toki-erakundeek ere tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko politikak garatu behar dituztela, autonomia-erakundearekin lankidetzan.

Amaitzeko, esan behar da toki-erakundeek konpromisoa hartu dutela herritarren eskubide eta betebeharrekin, besteak beste, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzearekin. Izan ere,



horietako asko estatuko eta Europako sareetan parte hartzen ari dira, beste hiri eta herri batzuekin batera, giza eskubideen, bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren arloan.


#### SAKONTZEKO

Hiri askok bat egin dute hainbat akordio eta tresna politikorekin, hala nola, 2000. urteko Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunarekin.

Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/banxkdct>



## 5. etapa. Eraldaketa sozialarekin konprometitzea



### 5.1. Oinarrizko betetzea

Araudia betetzeak, beste eremu batzuetan *compliance* deiturikoak, erreferentzia egiten die erakunde batek jardura-eremu jakin batean aplikatu beharreko lege, arau eta estandar etikoek xedatzen dutenarekin bat datorrela ziurtatzeko hartzen dituen politika, prozedura eta ekintzei. Administrazio publikoen kasuan ohikoa da hainbat kontutan: datuen babesa, kontratazio publikoa, emakume eta gizonen arteko berdintasuna... Gure kasuan, eremu hori diskriminazioaren aurkakoa da.

Dena den, erakunde publikoetan araudia betetzeak gairitu egiten du arauak betetzeko betebeharrak hutsa, eta herritarren eskubideak babestera eta ondasun publikoak sustatzera ere bideratzen da; adibidez, tratu-berdintasunera.

Hori dela eta, dokumentu hau ez da tokiko erakundeak behartzen dituen indarreko arau-multzo bat dagoelako egiaztapen hutsa. Aitzitik, betebeharrak horien zehaztapen praktikoa eta egunerokoa identifikatzen saiatzen da, eta horiek sustatzeko helburua betetzeko modurik efikazena proposatzen du.



Nolanahi ere, diskriminazioaren aurkako esparruan araudia betetzeko ariketa hori tokiko erakundeek maila handiagoko beste esparru arauemaile batzuk onartzean funtzionamendua eta jardura egokitzen duten naturaltasun berarekin egin behar da. Oraingo honetan, azaldu dugu arau-esparru horiek nazioarteko arauetatik abiatzen direla, eta arau horien aplikazioa zuzenean hel daitekeela auzitegietara, eta Tratu Berdintasunarekin eta Diskriminaziorik Ezarekin lotutako estatu- eta autonomia-mailako beste araudi batzuen mende daudela.



Esparru horrek berariaz interpelatzeko dituen tokiko erakundeak, eta garatu beharreko zenbait dimentsio, arlo eta ekintza-motari eragiten die, hiru bloke handitan antolatu ditugun zenbait motatako betebeharren bitartez: oinarritzko araudia betetzea (atal honetan bertan eta azpi-ataletan jorratua), hainbat eremu sektorial jorratzea (5.2 atala) eta kolektiboen arabera lanketa (5.3 atala).

Gure ustez, oinarritzko araudia betetzea sei puntutan ebazten da, eta taula honetan jaso ditugu. 15/2022 eta 4/2023 legeetako artikulua aipatzen ditugu, eta artikulua horietan oinarritzen gara haien nahitaezotasunari eusteko.

| Betetzea                                                      | 15/2022 Legea                                                      | 4/2023 Legea                                                     |
|---------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|
| 1. Gertakari diskriminatzaileen aurrean jarduteko protokoloak | 5. artikulua, 25. artikulua, 31. artikulua. 33.3 eta 53. artikulua | 63. artikulua, 67. artikulua, 68. artikulua eta 70.2.d artikulua |
| 2. Herritarren sentsibilizazioa                               | 54. artikulua                                                      | 5.2 artikulua eta 6. artikulua                                   |
| 3. Langile teknikoaren prestakuntza                           | 33.4 artikulua eta 38. artikulua                                   | 12. artikulua eta 33. artikulua                                  |
| 4. Tratu-berdintasunerako planak eta barne-protokoloak        |                                                                    | 11. artikulua, 14. artikulua eta 15. artikulua                   |
| 5. Tokiko araudia egokitzea                                   | 2.4.c artikulua eta 4.3 artikulua                                  | 2. artikulua                                                     |
| 6. Kontratazio publikoak eta dirulaguntzak                    | 37. artikulua                                                      | 82. artikulua eta Azken xedapenetako hamazazpigarrena            |

#### 5.1.1. Gertakari diskriminatzaileen aurrean jarduteko protokoloak

15/2022 Legeak zenbait eskubide aitortzen dizkie (5. artikulua) diskriminazio-egoeren biktimei diren pertsonari. Zehazki, “administrazio publikoek izan ditzaketen zerbitzu, erakunde edo bulegoen bidez, informazio osoa eta ulergarria jasotzeko eskubidea, bai eta haien testuingurura, beharretara eta gaitasunetara egokitutako egoera pertsonalari buruzko aholkularitza jasotzeko eskubidea ere”, “jatorria, erlijioa, adina edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial edozein dela ere, Espainiako Estatuan duten administrazio-egoera edozein dela ere”.

4/2023 Legearen kasuan, eskubide hori (68. artikulua) honela zehazten da: “Arreta integrala eta espezializatua [zeinak], gutxienez, honako hauek jasoko dituen: a) Bere eskubideei buruzko informazioa eta orientazioa, bai eta eskuragarri dituen baliabideei buruzkoa ere; b) Laguntza psikologikoa eta orientazio juridikoa; eta c) Biktimak dituen lan- eta gizarte-beharrei erantzutea”.

Eta zehaztutako hori diskriminazio LGTBIfoboen biktimentzat egiten bada ere, uste dugu beste edozein motibaziori ere aplikatu dakiogekela, eta 15/2022 Legearen 5. eta 53. artikuluetan antzeko moduan aurreikusitako diskriminazioaren biktima orori aplikatu dakiogkeen estandarra dela.

Aldi berean, 15/2022 Legeak berak aurreikusten du administrazio publikoek eremu horretan zer tresna erabili eta zer baldintzekin jardun behar duten. Alde horretatik, honetara behartzen dute:

-  (33.3 artikulua) Ekintza diskriminatzaileen, indarkeriaren eta gorroto-gertakari eta -diskurtsoen prebentzioa eta salaketaren sustapena indartzeko tresna efikazak izatea.

- (25.1 artikulua) Metodo edo tresna aski aplikatzea diskriminazio-egoerak hautemateko, prebentzio-neurriak hartzeko eta haiek eteteko neurri egokiak artikulatzeko.
- (31.1 artikulua) Dagokion administrazio-prozedurari hasiera ematea. Prozedura horretan, kasuaren inguruabarrak ikertzeko beharrezko neurriak adostu ahal izango dira, baita horiek desagerrarazteko neurri egoki eta proportzionatuak hartu ere, edo, hala ez bada, egitate horien berri berehala ematea administrazio eskudunari, administrazio batek aurreikusita dagoen diskriminazio-kasu baten berri duenean.
- (25.3 artikulua) Neurri egokiak hartzea diskriminazio-gertakari bat berriro gerta ez dadin bermatzeko.

Hain zuzen ere, betebeharrak horietako batzuk betetzen ez dituzten administrazioek “administrazio-erantzukizunak eta, hala badagokio, ondorio izan daitezkeen kalte-galeren erantzukizun penal eta zibilak” izan ditzaketela ere adierazten du (25.2 artikulua). Erantzukizun horien artean, leheneratzea eta kalte-ordaina sar daitezke, biktimentzako erreparazio osoa eta eraginkorra lortu arte”.

Eskubide, betebeharrak eta erantzukizun horiei erantzuteko, toki-erakundeek diskriminazio-gertakarien aurrean jarduteko protokoloak hartzea gomendatzen dugu.

Udalari jakinarazitako gertakari arrazista, xenofobo, romafobo eta LGBTIfoboen aurrean jarduera instituzionala bideratu beharko lukeen protokoloa, ekintza horrek biktimarengan eta bizikidetzakomunitarioan eragin dituen ondorioei erantzun egokia eta proportzionatua eskaintzeko betebeharrak betetzeko helburuz. Zehazkiago, hurrengo grafikoan adierazten dugun bezala, protokolo horiek lau foku nagusi izatea gomendatzen da:



Era horretako protokolo bat zehazteak ondorio batzuk ditu tokiko erakundeentzako. Hona hemen ondorio horiek, laburbilduta:

- Gorrito- eta diskriminazio-gertakarien biktimei informazioa emateko gune ezagun eta irisgarri bat bermatzea. Puntu horiek udal- edo eskualde-mailan ezar daitezke, mankomunitate, kuadrilla edo antzekoen bidez.
- Puntu horretatik biktimari lehen harrera egin ahal izatea ziurtatzea, hau da, urgentziaz zein urgentziarik gabe jardun ahal izatea, entzuteko, egonkortzeko, lehenesteko eta deribatzen.
- Diskriminazio-gertakarien aurrean jarduteko eta erantzuteko modu argia antolatzea, bai biktimari laguntzeari dagokionez, bai herritarrek aktibatzeari dagokionez.

-  Tokiko erakunde ertain edo handien kasuan, puntu hori laguntza psikologikorako eta orientazio juridikorako zerbitzu propioekin osatu ahal izatea.
-  Zerbitzu propioak ematen ez bada, titulartasun publikoko baliabideetara, lehentasunez, edo gizarte-baliabideetara, behar bezala deribatuko direla bermatzea, arreta psikologikoari eta orientazio juridikoari dagokienez arreta integrala bermatu ahal izateko.
-  Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak biktimen gizarte- eta lan-beharrei erantzun diezaien erraztea-

Dokumentu honen I. Eranskinean, ezaugarri horiek guztiak biltzen dituen protokoloaren eredu bat dago. Ezaugarri nagusiak hauek dira:

-  Jarduketakoa izatea, hau da, biktimen arretaren alderdia eta herritarren erantzuna bateratzea.
-  Gorroto-motibazio guztietarako estandar partekatu bat irudikatzea, arrazakeria, xenofobia, romafobia eta LGBTIfobia nagusitzat hartuta. Halaber, baliagarria izan daiteke beste motibazio diskriminatzaile batzuetarako, hala nola kapazitismorako, adinkeriarako, aporofobiarako eta abarretarako, nahiz eta horiek ez berariaz jorratu.
-  Beste protokolo batzuekin koordinatzeko modua aurreikustea. Zehazki, batzuetan LGBTIfobia partzialki artatzen dutenekin.
-  Ekintza diskriminatzaileen aurkako ikuspegi integral bat hartzea, eta ez soilik ekintza horien tipologia zehatz bat, hala nola eraso fisikoarena.
-  Agente diskriminatzaile pribatu batek esparru publikoan edo birtualean egindako zuzeneko gertakari diskriminatzaileetan zentratzea.

Biktimei laguntzeari dagokionez, berriz, filosofia hau du: pertsona erdigunean duen arreta ematea, entzute aktibo eta enpatikoaren bidez, eta informazio baliagarria eta beren beharretara egokitua ematea, beren eskubideak balia ditzaten. Une oro akonpainamendu gisa planteatzen da, biktimak erabakiak hartzeko orduan duen autonomia errespetatuz, eta une oso konplexu batean autonomiari eutsiko dion arreta eskainiz.

Beti ere, biktimarekiko elkarriketa-fase guztietan konfidentzialtasuna bermatuko duen tresna arin bat artikulatzea da helburua, hau da, bai komunikazioa jasotzean, bai ikertzean eta, agian, beste baliabide batzuetara bideratzean. Ildo horretan, bigarren mailako biktimizazioak saihestea da arreta antolatzeke funtsezko printzipioetako bat, pertsonak egoera traumatikoa horretarako beharrik gabe berriro bizitzea saihestuz.

#### Iparrorratza

Biktima arretaren erdigunean jartzeak haren berezitasunari kasu egitea ere esan nahi du. Alde horretatik, hainbat alderdi nabarmentzen dira, hala nola haur eta nerabeen interes gorena integratzea, genero-ikuspegia, sexu- eta genero-aniztasuna edo kulturarteko ikuspegia.

Izan ere, arauak berek hala adierazten dute. Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, informazioa formatu irisgarrian eta ulergarrian (hala nola irakurketa erraza, braillea edo zeinu-hizkuntza) bermatuz (15/2022 Legearen 5.3 artikulua). Halaber, bermatzen da (15/2022 Legearen 5.5 artikulua eta 4/2023 Legearen 70.2.d artikulua) haurrek eta nerabeek informazio guztia jasotzeko eskubidea izatea. Era berean, biktimenzako arretan hainbat hizkuntzako itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak izateko betebeharra ezartzen da (4/2023 legearen 68.d artikulua). Azkenik, trans pertsonen hitz egitean administrazioak behartuta daude (4/2024 legearen 4.1 artikulua) pertsona horiek beren sexu edo genero identitate errealean arabera tratatzera.

Erakundeek gertakarien aurrean eman beharreko erantzunari dagokionez, erantzun hori, zehatza bada, biktimarekin adostu beharko da, inolako presiorik gabe. Nolanahi ere, erantzun-mota printzipio demokratikoetara egokitze moduko funtsezko printzipio batzuei atxiki behar zaie, hala nola:

-  Botere-banaketa. Toki-administrazioak ez dira botere judiziala. Horrek esan nahi du ez dela justizia emateaz arduratzen den erakundea, bizikidetza komunitarioa kudeatzeaz eta beste instantzia batzuek delitu edo arau-hauste administratiboa den zehaztuko duten gertakari baten biktima artatzeaz baizik.
-  Errugabetasun-presuntzioa. Tokiko erakundeek egiazkotasuna emango diote biktimaren kontakizunari, biktimizatzailea ez den arreta eskaintzeko gida gisa, baina ustezko alde biktimarioaren errugabetasun-presuntzioa kontraesanik gabe errespetatuz. Errugabetasun-presuntzio hori errespetatzeak arreta handiz jokatzera behartzen du, biktimarioaren identitatea nahita edo nahi gabe ez jakinarazteko.
-  Justizia leheneratzailea sustatzea. Gertakariaren izaera eta biktimarengan eta bizikidetza komunitarioan izan duen eragina kontuan hartuta, ahal den neurrian, erakundeek jarduerak ikuspegi zigortzaileak saihestu beharko ditu.
-  Proportzionaltasuna erantzun instituzionalean. Aktibatzen diren ekintzek proportzionaltasunari eutsi behar diote beti, dagokion gertakariaren inpaktuarekiko, eta ekintza eta erantzun indartsuenak egoerarik larrienetarako gorde behar dira.

Era berean, instituzioen erantzuna, jarrera publikoa hartzea edo herritarrak mobilizatzea eskatzen duen neurrian, saiaturiko da beste eragile politiko, instituzional eta sozial batzuekin sarean lan egiten, ahal dela, erantzuna koordinatua, bateratua eta gertakariari zilegitasuna kentzen diona izan dadin.



Arrazoi horiengatik, garrantzitsua da gertakari diskriminatzaileen aurrean jarduteko protokoloa ezartzeko prozesuak komunitate-mailako prozesu baten emaitza izatea, eta prozesu horretan gizarte-eragileek eta herritarrek parte hartzea. Batez ere gorrotoaren jomuga diren pertsonen kolektiboek.

Azkenik, sarean lan egiteko logika horren barruan, funtsezkoa da erakundeek arteko koordinazioan lan egitea, are gehiago kontuan hartuta oso litekeena dela sistema eta zerbitzu publiko batzuen eta besteen arteko eratorpenak egin behar izatea. Alde horretatik, eratorpen-baliabideen edo egiaztatze-eskaeren mapa posible bat aurreratzen dugu, hainbat helburutarako:

| Xedea                                 | Baliabideak                                 | Ezaugarriak                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|---------------------------------------|---------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Presazko edo larrialdietako egoeretan | Udaltzaingoa (baldin badago) eta Ertzaintza | <ul style="list-style-type: none"> <li>Polizia-indarren (autonomikoen nahiz tokikoen) arteko lankidetzaz-esparru esplizituak eta formalak.</li> <li>Ertzaintzako Idazkaritza Nagusia, alkatetzak informazioa eman diezaion edo gertakariren bat izenez gero aholkua eman diezaion.</li> </ul> |
|                                       | Osakidetza                                  | Zauri fisiko nahiz psikikoen parte medikoak gordetzearen garrantzia.                                                                                                                                                                                                                          |
| Biktimei laguntzea                    | Biktimei Laguntzeko Zerbitzua               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Espezializatu gabea</li> <li>Ez espezifikoa</li> <li>Bai integrala: psikologikoa, juridikoa eta soziala</li> <li>Etengabeko arreta</li> <li>Hiru lurralde historikoetan presente</li> <li>Doakoa</li> </ul>                                            |
|                                       | Eraberean Sarea                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bai espezializatua</li> <li>Bai espezifikoa</li> <li>Ez integrala</li> <li>Auzitan jardute estrategikoa</li> <li>Hiru lurralde historikoetan</li> <li>Doakoa</li> </ul>                                                                                |
|                                       | Berdindu                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Espezializatu gabea</li> <li>Bai espezifikoa, LGTBI</li> <li>Ez integrala</li> <li>Hiru lurralde historikoetan</li> <li>Doakoa</li> </ul>                                                                                                              |
| Tokiko erakundeei laguntzea           | Berean                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Espezializatua eta espezifikoa.</li> <li>Kontrastea kasuen balorazioan. Ez 24/7.</li> <li>Tokiko protokoloak ezartzeko laguntza</li> <li>Tokiko teknikarientzako prestakuntza</li> <li>Doakoa tokiko erakundeentzat</li> </ul>                         |
| Beste mota batzuetako baliabideak     | Gizarte zerbitzuak. SMUS                    | Etzegabetasunari eta aporofobiari lotutako egoerak. Biktimen gizarte- eta lan-arloko premiei erantzutea. Adingabeen babesgabetasun-egoeretan birbideratzeko gune posiblea.                                                                                                                    |
| LGTBI espezifikokoak                  | Udalenak                                    | Batzuek beren baliabide espezifikokoak dituzte.                                                                                                                                                                                                                                               |
| Beste mota batzuetako baliabideak     | Gorrotodelitu-erako fiskaltzak              | Lurralde historiko bakoitzean dago.                                                                                                                                                                                                                                                           |
|                                       | Adingabeen fiskaltzak                       | Biktima adingabea den kasu batzuetan eta adingabeen babesgabetasun-egoeretan.                                                                                                                                                                                                                 |
|                                       | Arartekoa                                   | Agente diskriminatzailea publikoa denean.                                                                                                                                                                                                                                                     |

I. Eranskiean, protokolo-ereduaz gain, fluxugrama bat dago, uneak, mugarriak, erabakiak hartzea, parte hartzen duten eragileak... modu grafikoan sintetizatzen saiatzen dena.


Iparrorratza

Ondorio gisa, protokolo horiek tokiko erakundeek beste erakunde batzuekin batera sustatzen dituzten tresnak dira. Hau da, diskriminazioaren eremu labainean hainbat eragile instituzionalen jarduera antolatzeko xedea duen tresna da.

Protokoloen xedea da engranaje gisa jotatzea gertaera batzuen, lege-esparru baten, erakunde eskudunen, biktimen eta komunitatearen artean. Grafikoan konplexutasun hori laburbiltzen da:

- Diskriminatzailerak izan arren, juridikoki beti zigorgarriak ez diren gertaerak, eta, zigorgarriak direnean, bide desberdinak erabiltzeko aukera ematen dutenak: zigor-bidea gorroto-delituertarako eta administrazio-bidea beste gertakari batzuetarako.
- Eskatzen duten erantzuna baldintzatzen duten kalte desberdinekin iristen diren biktimak, eta ez jardutetik hasita, entzute eta komunikazio bila, zigortzekoak ez diren alternatibak bilatzera edo bide penal edo administratibotik salatzera joan daitezkeenak.
- Erakunde horiek askotariko erantzunak eman behar dituzte: eskubideen arabera informatzea; urgentziaren eta larritasunaren arabera (segurtasun-kidegoak eta Osakidetza) edo espezifikotasunaren arabera (adingabeen fiskaltza, Arartekoa) birbideratzea; biktimen beharrei erantzutea (psikologikoak, sozialak eta juridikoak) edo zerbitzu horiek jaso ahal izateko birbideratzea; erregistro estatistikoan laguntzea; eta, hala badagokio, komunitatearen ondoan herritarren erantzuna aktibatzea.

Erakundeen arteko koordinazioa funtsezko alderdia da biktimei erantzun egokia emateko. Koordinazio horrek bakoitzaren espezializazio-eremuak errespetatu behar ditu. Adibidez, 5.2.1. puntuari ikusiko den bezala, herritarren segurtasunari buruzkoak nabarmentzen dira. Hala, delitu penalak diren gertakarien kasuan, funtsezkoa da Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren eginkizuna.



### 5.1.2. Herritarren sentsibilizazioa

Araudia betetzearen logika kontuan hartuta, ikus dezagun zer adierazten duten indarrean dauden arauak eta nola zehaztu hori tokiko erakundeek jarduketetan.

15/2022 Legeak dio (53. artikulua) “botere publikoek sentsibilizazio- eta dibulgazio-kanpainak egingo dituztela tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren eta intolerantziaren aurka”. Bestalde, 4/2023 Legeak, LGTBI kolektiboari begira, ezartzen du, alde batetik, sustatu egingo direla (5. artikulua) “aniztasunaren balioa aitortzeko behar diren neurriak, sexu-orientazioaren, sexu-identitatearen, genero-adierazpenaren eta sexu-ezaugarrien eta familia-aniztasunaren alorretan”, eta horretarako moduetako bat dela “LGTBI pertsonen berdintasun erreal eta efektiboaren aldeko borrokaren oroitzapen-ekitaldiak” egitea. Eta, bestetik, “sexu-orientazioaren, sexu-identitatearen, genero-adierazpenaren, sexu-ezaugarrien eta familia-aniztasunaren arloan aniztasunarekiko sentsibilizazio-, hedapen- eta sustapen-kanpainak” sustatuko dituztela (6. artikulua). Hau da, batetik, aniztasuna ikusaraztea eta, bestetik, diskriminazioari buruz sentsibilizatzea.

Sentsibilizazio-betebeharra betetzeko, tokiko erakundeek tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egiten dituzten sentsibilizazio-jarduerak hiru ardatzetan egituratzea proposatzen dugu:

-  Gertakari diskriminatzaileen aurrean jarduteko protokoloak, erakundeek erantzunari eta erantzun sozialari dagokienez, halakoak gertatzen direnean. Ikusi genuenez, proposatzen dugun protokoloaren alderdietako bat da erakundeek eta herritarren jarrera. Ikuspegi horretatik begiruta, sentsibilizazio-tresna indartsu eta eraginkorra dela deritzogu.



Horretarako, udal-webgunerako albiste-ereduak, adierazpen instituzionalenak eta salaketa-elkarretaratzerako deialdienak sartu dira. Baita komunikabideei arreta emateko gomendio batzuk ere, hala nola:

- Erantzuna adostea udal-taldeekin, gizarte-erakundeekin, Aniztasunaren, Bizikidetzaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Zuzendaritzarekin (edo haren ordezkarekin).
- Biktimari, gertakariari edo biktimarioari buruzko informazioa ez filtratzea, ez nahita eta ez nahi gabe.
- Biktimari eta aipatutako kolektiboari laguntzeko mezuetan zentratzea, gorrotozko motibazioari zilegitasuna kenduz eta erantzun zibikoa bultzatuz.
- Biktimari errua egozten dioten ezaugarrietan edo jokabideetan ez eragitea. Biktima eta biktimarioa identifikatzeko daturik eta egoerarik ere ez da aipatuko.

- Gertakari LGTBfoboen kasuan, biktimak adierazitako identitate sexu-generikoa erabili beti.

 Hainbat kausa eta kolektiborentzat bereziak diren egunak ospatzea. Jarraian, sei data iradokiko ditugu, gure ustez arrazakeriaren, xenofobiaren, romafobiaren eta LGTBfobiaren aurkako borrokarekin lotura handiena dutenak. Hala ere, tokiko erakundeak, gizarte-sarearekin elkarriketan, beste batzuk ere oroitzea erabaki dezake. Nolanahi, oroitzapen-ekitaldietan talde horietako kideei ahotsa ematea gomendatzen da.

- Martxoak 21: Arraza-diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna
- Apirilak 8: Ijito Herriaren nazioarteko eguna
- Maiatzak 17: LGTBfobiaren aurkako nazioarteko eguna
- Maiatzak 21: Kultura Aniztasunaren nazioarteko eguna
- Ekainak 28: LGTBI Harrotasunaren nazioarteko eguna
- Azaroak 16: Euskadiko Ijito Herriaren eguna

 Sektore jakinetan sentsibilizazio-ekintzak egitea; adibidez, kirolean, garraioan eta kontsumoan (etxebizitzan eta aisialdi-lokaletan). 5.2 atalean, horietako bakoitza lantzeko bideak zehazten dira.

### 5.1.3. Teknikarien prestakuntza

15/2022 legeak ezartzen du, oro har, honako hau sustatzeko betebeharra (33.4 artikulua): “Balio demokratikoen, konstituzionalen eta giza eskubideen irakaskuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa, diskriminazioa edo intolerantzia elikatzen duten aurreiritziak, ezagutza akastunak, doktrinamenduak, fanatismoak edo erradikalizazioak erauztera bideratuak”.

Halaber, berariaz adierazten du (38. artikulua) “botere publikoek, beren eskumenen esparruan, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aztertu eta aplikatuko dituztela hautaketa-prozesuetan eta langileen prestakuntzan”. Are gehiago, kanpoko langileei ere zabaltzen die, emandako zerbitzuek herritarrekin harreman zuzena eskatzen dutenean. Edukiei dagokienez, teorikoak zein praktikoak izan beharko dutela ezartzen du, diskriminazioa prebenitzeko eta, kasuak daudenean, erantzun ahal izateko.

Beste alde batetik, 4/2023 Legeak gauza bera egiten du izaera orokor horrekin (12. artikulua) eta erakundearen zerbitzura dauden langileei dagokienez (33. artikulua), LGTBI pertsonen sexu- eta genero-aniztasunari eta diskriminazioari buruzko prestakuntza espezifikoko betebeharrak ezartzen baititu, arreta berezia jarritzaz gaitzen eta adingabeen kasuan (70.2.c artikulua).

#### Iparrorratza

Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Berean Euskal Zerbitzuaren eginkizunetako bat da erakunde publikoetako eta gizarte-erakundeetako langileei prestakuntza eskaintzea, doan, bai aurrez aurre, bai online, oinarritzeko mailan eta maila aurreratuan, gai hauei buruz: aniztasunaren kudeaketa positiboa, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta gorroto-gertakari eta -delituak.

Gomendatzen da eduki horiek erakundearen urteko prestakuntza-planaren parte izatea edo, gutxienez, eduki horiek modu planifikatuan eskaintzea, horri esker aprobetxatu ahal izateko eta iraunkorrak izatea ahalbidetzeko.



#### 5.1.4. Tratu-berdintasunerako planak eta barne-protokoloak

LGTBI pertsonen zuzendutako lan-arloko politiken esparruko 4/2023 Legeak betebeharrak batzuk aipatzen dizkie hainbat eragilei.

Alde batetik, berrogeita hamar langilek gorako enpresei eskatzen zaie edukitzea “LGTBI pertsonen berdintasun erreal eta efektiboa lortzeko neurri eta baliabideen multzo planifikatua, LGTBI pertsonen aurkako jazarpenari edo indarkeriari aurre egiteko jardura-protokolo bat barne [...], langileen legezko ordezkariekin adostuak” (15. artikulua).

Bestalde, herri-administrazioei adierazten die (11. artikulua) bermatu behar dutela “beren zerbitzura dauden langile guztientzat [...] LGTBI pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko eta defendatzeko neurriak, enplegu publikora sartzeari eta lanbide-karrerari dagokienez, sindikatuarekin negoziatu ondoren”. Era berean, honako hau bultzatu behar du (14.h artikulua): “Kode etikoak eta protokoloak egin behar dira herri-administrazioetan eta enpresetan, lege honetan aurreikusitako arazoiengatik gertatzen den edozein diskriminazioaren aurrean babes-neurriak hartzeko”.

Xedapen horiek betetzeko proposamena hau da: tokiko sektore publiko osoak, administrazioak, haren erakunde autonomoak, sozietate publikoak, partzuergoak eta abarrek barne-mailako berdintasun-planak eta diskriminazioaren aurkako protokoloak izatea. Eta arrazakeriari, xenofobiari eta romafobiari ere aurre egingo dion begirada zabala txertatuz egin dezatela, LGTBIfobiaren aurreko begirada espezifikoak diluitu gabe.

Hori egiteko, erreferentzia gisa har daiteke 1026/2024 Errege Dekretuan ezarritakoa, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako neurrien multzo planifikatua garatzen duena.

Irakurketak egiaztatzen duen moduan, plan eta protokolo horien abiapuntua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta sexu-jazarpenaren eta genero-arazoiengatik jazarpenaren aurkako filosofiaren antzekoa da. Hala ere, funtsezkoa da ez nahastea, eta, gure ustez, ez da komeni bat egitea, errealitate eta lege-esparru desberdinei baitagozkie.

Nolanahi ere, tratu-berdintasunerako planak eta diskriminazioaren aurkako protokoloak negoziazio kolektiboaren esparruan adostu behar dira, alderdiek edukia zehazteko askatasuna izan dezaten.

Gomendagarria da, halaber, hitzarmen kolektiboetan edo enpresa-akordioetan jasotzea. Nolanahi ere, adostasunik ez badago, Errege Dekretuan jasotakoa gutxienezko izango da beti, eta automatikoki aplikatuko da.

Hala, tratu-berdintasunerako planen gutxienezko neurriak honako hauek izango dira:

-  Enpresako hitzarmen edo akordioetan tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko klausulak sartzea.
-  Hautaketa-prozesuetan irizpide argi eta zehatzak erabiltzea, LGTBI pertsonen estereotipoak desagerrarazteko. Arrazializatutako eta atzerriko pertsonen ere zabaltzea gomendatzen dugu.
-  Irizpide objektiboak erabiltzea sailkapenerako, lanbide-sustapenerako eta maila-igoeretarako, LGTBI pertsonentzat (arrazializatuak eta atzerriarrak) zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ekar ez dezaten.
-  LGTBI pertsonen (eta arrazializatuak eta atzerriarrak) lan-eremuan dituzten eskubideei buruzko prestakuntza-modulu espezifikoak ematea langile guztiei.

- Gizarte-onurek eta hitzarmen edo akordio kolektiboetarako baimenek askotariko familien, ezkontideen eta izatezko bikotekideen (LGTBI) errealitateari erantzuten diotela bermatzea (eta kultura arteko ikuspegia txertatzen dutela bermatzea).

Bestalde, diskriminazioaren aurkako protokoloaren gutxieneko neurriak:

- Printzipioen, aplikazio-eremuaren eta printzipio gidarien adierazpen bat sartzea.
- Jarduera-prozedura bat sartzea, honako hauek jasoko dituen: kexak edo salaketak aurkezteko mekanismoa, ebazteko epea eta salatzailarentzako babesa.
- Txosten bat egitea, dauden edo ez dauden zantzuak eta haien sendotasuna oinarri hartuta.
- Ebazpena dagoela eta espediente hori zehapen-espedientea dela ziurtatzea, diskriminazio-zantzurik egonez gero.

#### Iparrorratza

Langileak ordezkatzan dituzten erakundeek hainbat material argitaratu dituzte, LGTBI plan eta protokoloetan sartzea egokitzen jotzen duten edukiei buruz. Horiek irakurtzeak erreferentzia ona eman dezake tokiko errealitate bakoitzera egokitutako proposamena egiteko.

#### 5.1.5. Kontratazio publikoa eta dirulaguntzak

Kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen eremuek berezko arau-esparruak dituzte, hala nola Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua; Batzordearen interpretazio-komunikazioa, kontratu publikoei buruzko Erkidegoko legeriari eta kontratu horietan alderdi sozialak txertatzeko aukerei buruzkoa (2001/C 333/08); Sektore Publikoko Kontratuen Legea (9/2017 Legea); Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta 3/2016 Legea, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzei buruzkoa.

Esparru horien arabera, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko legeria espezifikoak botere publikoen betebeharrak eta ahal batzuk aipatzen ditu, eta horiek berrikusiko ditugu atal honetan.

Lehenik eta behin, kontratazio publikoaren arloan, honako egoera hauek aurreikusten ditu:

- Diskriminazioagatik zehapen administratibo irmoa jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei Administrazio Publikoarekin kontratuak egitea debekatzea (4/2023 Legearen 80. artikulua). Zehapen-mota hau beste zehapen ekonomiko batzuen osagarria da.
- Kontratuetan baldintza bereziak sartu ahal izatea, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko (15/2022 Legearen 37. artikulua eta 4/2023 Legearen azken xedapenetako hamazazpigarrena)

Bigarrenik, dirulaguntza eta laguntza publikoen esparruan egoera hauek aurreikusten dira:

- Zehatutako jokabideak erasotzen, bultzatzen, sustatzen edo toleratzen dituzten jarduerak diruz laguntzea debekatzea (15/2022 Legearen 37.4 artikulua eta 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Administrazio-ebazpen irmoaren bidez zigortutako pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak baztertzeko (15/2022 Legearen 37.2 artikulua).
- Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza modu efektiboan lortzeko jarduketan balorazioa oinarrietan sartzea (15/2022 Legearen 37.1 artikulua).

#### Iparrorratza

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako legeriak ibilbide luzea du neurri horiek hartzei dagokionez. Esparru horretako eskuliburuak eta gidak kontsultatzea oso baliagarria izan daiteke

diskriminazioaren aurkako legedian xedatutakoa tokiko erakundeek eguneroko praktikan txertatzeko modurik efikaz eta egokiena balioesteko.

#### 5.1.6. Tokiko araudia egokitzea

Tokiko erakundeek, botere exekutiboaz gain (adibidez, alkateen edo gobernu-batzarraren bidez), arautzeko ahalmena dute (normalean, udalbatza baten, kuadrillako batzorde baten edo antzekoren baten bidez) beren eskumen-esparruko ordenantzak eta araudiak onartzeko.

Tokiko erakundearen tamainaren eta baliabideen arabera, ordenantza eta araudi horien kopurua, mota eta aldizkako eguneratzea nabarmen aldatzen da. Izan ere, batzuetan indarrean jarraitzen dute, zenbait aldaketa partzialekin, hemen aipatzen ari garen kolektibo batzuen aurkako diskriminazioaren kontzientzia hartu aurretik idatzi eta onartu ziren ordenantzak, eta, ia ziurrenik, 15/2022, 4/2023 eta 4/2024 legeak indarrean jarri aurretik –besteak beste– idatzi eta onartu ziren ordenantzak; dokumentu honetan luze eta zabal hitz egin dugu horiei buruz.

Hori dela eta, ez da harritzekoa ordenantza eta erregelamendu horien edukian gure ardurapeko kolektibo batzuen aurkako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-xedapenak egotea. Alde horretatik, konpromiso demokratiko batengatik eta legezko betebeharrak batengatik, ezin da onartu berdintasun-printzipioaren aurkako xedapenak indarrean jarraitzea, arau zaharkituak direlako besterik ez bada ere.

Indarrean dagoen tokiko araudi osoa berrikustea da toki-erakundeek ekin behar dioten jardueretako bat. Horretan, zeregin berezia du udal idazkariaren figurak. Izan ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak (92 bis artikulua) eta Nazio mailako gaikuntza duten Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuak (3. artikulua) lege-aholkularitza eta legez kontrako ohartarazpenak egiteko ardura esleitzen dizkiote idazkariari.

Jarraian, adibide gisa, ordenantzetan eta araudietan aurkitu daitezkeen zenbait kasuistika diskriminatzaile identifikatuko ditugu:

#### Taxi Lizentziak.

Araudi baten bidez arautu ohi dira, besteak beste, auto-taxi zerbitzua emateko baldintzak. Nahiko ohikoa izaten da baldintza gisa “gaixotasun infekzio-kutsakorrik ez izatea” adieraztea. Erredakzio mota horiek laurogeita hamarrek eta 2000ko hamarkadetako GIBari buruzko desinformazioarekin eta estigmatiarekin erlazionatu ohi dira. Mota horretako edozein bazterketak arriskuarekiko proportzionala izan behar du, eta, kasu honetan, zerbitzua ematen duten profesionalen eskubideei kalte gutxiago egiten dien beste babes-mekanismoak ez egotearen arabera.

#### Burkiniaren erabilera udal-igerilekuetan.

Udal-araudien bidez arautu ohi dira kirol-instalazioak erabiltzeko arauak, eta baliteke horien artean idazkera anbigua duten xedapenak egotea, emakume musulman batzuek erabiltzen duten jantzi hori bainurako egokia ez dela interpretatzeko bidea ematen dutenak, eta, ondorioz, emakume horiek erabileratik kanpo geratzen dira edo beren erlijio-sinesmenekin bat datorren kirol-jantzia janzteko askatasunari uko egiten diote. Garrantzitsua da azpimarratzea osasun- eta segurtasun-arauak betetzen dituzten jantziak izatea dela garrantzitsuenak.

Araudi horiek erabilera kolektiboko igerilekuen osasun araudiari buruzko 32/2003 Dekretura jo ohi dute, zeinak debekatu egiten baitu (34.e artikulua) bainu-gunean arroparekin edo kaleko oinetakoekin sartzea. Burkiniak betetzen du alderdi hori, horretarako egokiak diren materialak egina badago.

Garrantzitsua da azpimarratzea beren material eta jantzigintzagatik bainurako egokiak diren jantziak ez onartzea babes konstituzionala duten eskubideen mugatzat interpreta daitekeela, jantzi horiek jantzeko askatasunez (nortasunaren garapen askeari buruzko 10. artikulua) eta erlijio-askatasunez (16. artikulua) erabiltzea dela ulertuta. Hori guztia 7/1980 Lege Organikoan garatzen da, erlijio-sinesmenak askatasunez adierazteko eskubidea babesten duen horretan.

 Sinesmen erlijiosoen adierazpena eremu publikoan.

“Jumillako kasua” izenez ezagutzen dena oso mediatikoa izan da, eremu publikoetan ospakizunak gauzatzeko beto esplizitu edo inplizitua jarri zaiolako zenbait konfesio erlijiosori (bereziki islamari). Ordenamendu juridikoaren aurkako ekintza da, eta oinarrizko eskubideen urraketa.

Adierazpen publikoei baketsuak ez badira edo hirugarrenen eskubideak urratzen badituzte bakarrik ezartzen zaizkie mugak, inoiz ez ustezko “identitate nazional” batekin duten afinitatearen —edo horren faltaren— arabera edo “gure tradizioetatik lanpokoak” izateagatik.

Jarduera horiek edo beste batzuk egiteko eremu publikoak lagatzeko, irizpide objektiboak eta neutralak erabili behar dira, eta ez dute zuzeneko diskriminaziorik egin behar kultu-zentrorik ez duten edo beren erlijio-jardunerako ezaugarri egokidun zentrorik ez duten erlijio-konfesioekiko.

Gogoan izan behar da halako erabilerak arautzen dituen erregelamendurik ez badago, lagapen-irizpideak ere ez duela onartzen diskrezionalitatearik eskatzailearen edo helburuaren arabera. Hain zuzen ere, lagapena egiteko erabili izan diren irizpideak aldatzen badira, diskriminazioa esplizituki edo inplizituki justifikatzen duen arrazoirik ez dagoela ziurtatu beharko da.

Azaldutako irizpide horiek ondorioztatzen dira (5. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko gurtzarako eta erlijio-aniztasunerako leku edo zentroen 8/2023 Legean titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak erlijio-xedeetarako noizbehinka erabiltzeari buruz adierazitakotik.

Tokiko araudiarekin lotuta dago, halaber, ekintza positiboko neurriak txertatzeko aukera. “Diskriminazio edo desabantaila-mota oro (kolektiboa edo soziala) prebenitzeko, ezabatzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko tratu-desberdintasunak dira. Neurri horiek diskriminazio-egoerak edo horiek justifikatzen dituzten desabantailak irauten duten bitartean aplikatuko dira, eta zentzuzkoak eta proportzionalak izan beharko dute, neurriok garatzeko bitartekoei eta lortu nahi diren helburuei dagokienez” (15/2022 Legearen 6.7 artikulua).

Zenbait gizarte-erreakziok eragiten duten beldurra eta horiek ezartzeko lege-konplexutasuna onartuta ere, aipatu beharra dago gure inguruko beste herrialde batzuetan ere maiz gertatzen direla, eta tresna garrantzitsua direla diskriminazioaren aurkako borroka eta, batez ere, hauspotzen den berdintasunaren sustapena soilik formala izan ez dadin.

Adibide gisa, hizkuntza-normalizazioko ordenantza eta erregelamenduetan, iritsi berri diren atzerritarrentzako ekintza positiboko neurriak sar daitezke, hasierako mailetan euskara ikasteko laguntzak emateko edo matrikulak kobratzeko betekizun eta irizpideei dagokienez.

## 5.2. Sektorekako lanaketa: segurtasuna, kontsumoa, kirola eta garraioa

2.1 atalean ikusi dugunez, badira diskriminazioa eta gorroto-gertakariak bereziki kontuan hartzen dituzten zenbait sektore-eremu. Eremu publikoarekin eta aisiarekin lotutakoak, segurtasuna, garraioa, kirol-jarduera edo kontsumoa nabarmentzen dira gainerako artean. Hori dela eta, egokia dirudi horietako bakoitzera hurbilketa espezifikoak egiteak.

### 5.2.1. Segurtasunaren eremua

Erakunde, gizarte-eragile edo herritar orok, egoera jakin batzuetan, diskriminazio-dinamikak gauzatu ditzake, eta polizia-kidegoak ez daude arrisku horretatik kanpo. Hala ere, gure testuinguru demokratikoan, horien jardunak bilakaera esanguratsua izan du, eta oinarritzko eskubideak babesteko tresnetako bat izatera igaro dira (104 EE artikulua).

Haatik, hori beti horrela izan ez dela kontuan hartzeak dokumentu honetan aztertzen ditugun kolektibo diskriminatuen eta segurtasun-kidegoen arteko harremanaren gako batzuk ulertzen laguntzen du. Esate baterako, LGTBI kolektiboaren oromenean, 16/1970 legea, arriskugarritasunari eta gizarte-birgaikuntzari buruzkoa, edo lehenago alferren eta gaizkileen legea zeritzona daude, eta, Ijito Herriaren kasuan, aurrekoari gehitu behar zaio, adibidez, Guardia Zibilaaren Kidegoaren Zerbitzurako 1943ko Erregelamenduak 4., 5. eta 6. artikuluetan haiek bereziki eta zorrotz zaintzeko agintzen zuela.

Atzerritar jatorriko pertsonen kasuan, polizia-kidegoekiko harremana oso baldintzatuta dago haien herrialdeetan aurretik izandako esperientziengatik (batzuetan, zuzenbide-estatu demokratiko bati ez dagozkion estandarrekin) eta atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren ondorioen beldurragatik.

Jarraian, tratu-berdintasuna bermatzen duten polizia-praktikak indartzeko gako batzuk azalduko dira, bai eta segurtasun publikoko profesionalek diskriminazioaren prebentzioan eta haren aurkako borrokan duten zeregina zehazteko ere.

Polizia-praktika horietako batzuek zerikusia dute arraza-profilen erabilerarekin, hainbat iturri bibliografikok jasotzen dutenez<sup>16</sup>. Horri dagokionez, 15/2022 Legeak berariaz adierazten du (18. artikulua): “Segurtasun Indar eta Kidegoek justifikazio objektiborik gabeko profil diskriminatzaileak erabiltzea saihestuko dute”.

Alde horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea pertsona arrazializatu edo LGTBI bati ibiltzeko askatasuna une batez kentzea ez dela, berez, diskriminatzailea. Esku-hartze bakoitza behar bezala baloratzeko, delituak ikertzeko eta prebenitzeko eginkizunak betetzearekin lotutako justifikazio objektiborik dagoen aztertu behar da, bai eta arau-hauste penal eta administratiboak zehatzeko justifikaziorik dagoen ere (Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa, 16. artikulua).

Esku-hartze horiek legearekin guztiz bat datozela ziurtatzeko, funtsezkoa da polizia-kidegoekin batera sentsibilizazioan, prestakuntzan eta jardunbide egokiak ezartzen lan egitea. ECRik (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea), bere azken txostenean<sup>17</sup>, lortutako aurrerapenak aitortzen ditu eta orokorrean gomendatzen du (111. atala) “segurtasun-indar eta -kidegoetako funtzionarioek egindako identitate-kontrolak erregistratzeko sistema efikaz baten lehentasunezko ezarpena, arraza-profilak egiteko

<sup>16</sup> Batzuk aipatzearen:

- European Union Agency for Fundamental Rights (Oinarritzko Eskubideen Europako Agentzia, FRA). *Being Black in the EU: Second European Union Minorities and Discrimination Survey (EU-MIDIS II)*. Saila: “Police stops and perceived racial profiling”. 2018. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/zligxyjv>
- United Nations Human Rights Council. *Report of the Working Group of Experts on People of African Descent on its mission to Spain*. A/HRC/39/69/Add.2, 2018ko abuztuak 14, 19. paragrafoa. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/hwlvicpq>
- Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea (ECRI). *Informe de la ECRI sobre España (quinto ciclo de supervisión)*. CRI(2018)2, 2017ko abenduaren 5ean bereganatua, 2018ko otsailaren 28an argitaratua, 81. paragrafoa. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/htsvj2i7>
- García Añón, José; Bradford, Ben; García Sáez, José Antonio; Gascón Cuenca, Andrés; Llorente Ferreres, Antoni. *Identificación policial por perfil étnico en España: Informe sobre experiencias y actitudes en relación con las actuaciones policiales*. 2013. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/abvgn9fv>
- Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía (APDHA); Instituto de la Paz y los Conflictos (IPAZ-UGR). *Identificaciones basadas en perfil étnico en Granada: estudio realizado mediante observación y entrevistas directas*. 2016. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/jwkznvw5>

<sup>17</sup> ECRlren txostena Espainiari buruz (gainbegiratzearren seigarren zikloa). 2025eko urriaren 30ean argitaratua. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/dqzgdrxu>

praktika oro atzeman eta borrokatzera zuzendutako politikaren barruan, bereziki afrikar jatorrikoei, migratzaileei eta migrazio-jatorriko pertsoneri, bai eta ijitoei ere, eragiten dietenean”.

Gomendio horiek bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina —euskal poliziaren kode deontologiko izenez ezagutzen dena— onartzen duen 2020ko 1/2020 LGDn ezarritakoarekin, zeinak debekatu egiten baitu (24.1. eta 25.1.c artikulua) poliziaren jardueran edozein motatako diskriminazioa egitea.

Era berean, polizia-kidegoek zeregin erabakigarria dute diskriminazioaren aurkako borrokan. Prozedura Kriminalaren Legeak, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuak, gorroto-delituen aurrean eginbideak egitea egotzen die (bertsio kontsolidatuaren 13. artikulua): biktimen eta haien inguruaren babesa, frogen zaintza, erantzuleen identifikazioa eta, hala badagokio, atxiloketa. Horrez gain, Ertzaintzaren<sup>18</sup> eta zenbait udaltzaingoren barne-protokoloek ezartzen dute gorroto- eta diskriminazio-delituetan espezializatutako fiskaltzari eta organo eskudunari jakinarazi eta igorri behar zaizkiela administrazio-arloko arau-haustek.

Bestalde, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatze 15/2012 Legearen arabera (2. artikulua), sistema horren parte da “eskubide eta askatasunen erabilera librea bermatzeko (...) politika publiko sektorial” oro. Hori dela eta, 5.1.1 atalean aurkeztu diren protokoloek polizia-kidegoak behartzen dituzte, eta haien parte-hartzea eskatzen dute. Eta, hain zuzen, polizia-kidegoen koordinazioa eta parte-hartze aktiboa ere eskatzen ditu, eta, bereziki, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazioa (kasuen arabera). Lankidetzari hori (44. artikulua) EAEko administrazio orokorraren eta udalen arteko lankidetzari hitzarmenen bidez antola daiteke, prozedura komun eta efikazak ezartzeko.

Nolanahi ere, dokumentu honen I. Eranskinean dagoen protokolo-ereduak jarrera orekatua planteatzen du, gai horiei buruzko ebidentzia zientifikoetan oinarrituta. Legediak biktimei arreterik integralki eskaintzera behartzen duenez —laguntza psikologikoa, orientazio juridikoa eta gizarte-arreta barne—, lehentasunez jotzen da haien behar psikosozialak artatzea eta salaketara akonpainamendu egokiarekin iritsi daitezen erraztea. Eta ez da ahaztu behar polizia-kidegoek funtsezko zeregina dutela larrialdi- edo indarkeria-egoeretan, eta beste zerbitzu publiko batzuk baliatu ezin daitezkeen ordutegietan jarduten dutela.

Alde horretatik, garrantzitsua da adieraztea gorrotoa eta diskriminazioa polizia-kidegoetako lehentasun operatiboen artean daudela<sup>19</sup>, hala nola Ertzaintzaren kasuan. Izan ere, nazioarteko lege-xedapenei eta gomendioei jarraikiz, Gorroto-delituen Unitatea sortzeko prozesuan dago, eta horrek erantzun integral eta espezializatu bat lortzeko funtsezko aurrerapena ekarriko du, gertaera horien prebentzioa indartuko duena, ikerketa-gaitasuna hobetuko duena eta biktimei arreterik egokiagoa emango duena.

#### Iparrorratza

Ondorio gisa, eta gertakari diskriminatzaileen aurrean jarduteko toki-protokoloak prestatzeko ikuspegi praktikotik, honako hau behar dela uste dugu:

**1.** Legeak ezartzen duen bezala, gorroto-delituen eremuan polizia-kidegoek duten eginkizuna eta biktimei ikuspegi psikologikotik, juridikotik eta sozialetik ematen zaien laguntza uztartzea. Helburua

<sup>18</sup> Ertzaintzaren kasuan, gorroto-gertakariari aurre egiteko protokoloak eta jarraibideak ditu, hala nola: 77. Instrukzioa (BERRIK. 01) “Gorroto-gertakariaren aurrean Ertzaintzak jarduteko prozedura” (kasu horietan udaltzaingoekin izan beharreko lankidetzari “ahalik eta handiena” izatea aurreikusten du); 94. Instrukzioa (BERRIK. 01), “Gorroto-delituen eta -gertakariaren talde egonkorra (GDITE)”; 5. Agindu Operatiboa (BERRIK. 00), “Udalekiko lankidetzari prozesua”; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Segurtasun Sailaren bitartez, eta Erkidego horretako Udalek, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzarako sinatu beharreko lankidetzari hitzarmena.

<sup>19</sup> Horren erakusgarri dira, besteak beste, honako hauek: Ertzaintzak jasotako datu estatistikoekin gorroto-gertakariari buruzko urteko txostena egitea, Euskadiko ertzain-etxeen sistema “LGBTI+ Points Sarean” sartzeko, sustapen berrietako agente guztien aniztasunaren polizia-kudeaketaren arloko prestakuntza, eta Pare Pare jardunaldiak egitea, romafobiari, kiroleko xenofobiari edo erlijio-aniztasunari buruz.

diskriminazioa bere dimentsio penalera soilik ez murriztea da, ezta dimentsio penala salaketarik jartze soilera ere.

2. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzarako esparru esplizituak eta formalak sustatzea, haien hitzarmenen esparruan, eta koordinazio operatiboa indartzea.

3. Diskriminazioaren aurkako prestakuntza eta polizia-praktiken etengabeko berrikuspena sustatzea, errespetuzko esku-hartzerako eredu efikaza eta eskubideen babesera bideratua sendotuz.

#### 5.2.2. Kontsumoaren eremua

Kontsumitzaile gisa eskubideak egikaritzearen inguruan gertatu ohi diren diskriminazio-kasuak hiru egoeratan multzoka daitezke:

-  Aisialdiko eta ostalaritzako lokaletara sartzeko betoa, pertsona jatorri nazional eta etniko jakin batzuekin lotzen delako.
-  Pertsonen etxebizitzak alokatzeari uko egitea, beren jatorri nazional eta etnikoagatik.
-  Ijitoen (batez ere emakumeen) aurkako jazarpena elikadura- eta moda-saltokietan. Batzuetan, funtsik gabeko ebasketa-salaketekin.

Lehenengo bi egoeretan, herritarrei irekitako establezimenduetan zerbitzuak emateari uko egiten zaio, legerian babestutako arrazoiengatik. Izan ere, ikuspegi honetatik, kasurik larrienetan, bat egingo luke egiten den tipifikazioarekin (511.1 eta 512. artikulua) Zigor Kodeko 10/1995 LOan.

Era berean, 15/2022 Legeak aplikazio-eremutzat onartzen ditu (3.1.k eta 3.1.l artikulua) bai “jendearen eskura dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratu, eskaini eta hornitzea, etxebizitza barne”, bai eta “jendearentzat irekita dauden establezimendu edo guneetan sartzeta eta egotea” ere. Izan ere, zehazkiago, berariaz ezartzen du debekatuta dagoela diskriminatzea (17. artikulua) ondasunen eta zerbitzuen eskaintza publikoa jasotzeko orduan, merkataritza- edo lanbide-jarduera baten esparruan.

Halaber, berariaz adierazten du merkataritza-eragiketetan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea errespetatzeko betebeharra (20.2 artikulua), “salmenta-zerbitzuetan, errentamendu-zerbitzuetan, higiezin bitartekaritzan, iragarki-atarietan edo jendearentzat eskuragarri dagoen eskaintza egiten duen beste edozein pertsona fisiko edo juridikoren kasuan”. Azken horren arabera, debekatuta dago etxebizitza saltzeari edo alokatzeari uko egitea, eta eskaintako baldintzetan diskriminazioa egitea.

Era berean, zenbait muga eta irizpide ezartzen ditu (21. artikulua) jendearentzat irekita dauden establezimendu edo espazioetan onarpen-eskubidea gauzatzeko.

Alde horretatik, onarpen-eskubidea ezin da modu diskriminatzailean erabili, eta agerian egon behar du zer irizpide eta muga aplikatzen diren. Oro har, pertsona guztientzako giro seguru eta atseginak, establezimenduaren gehieneko edukierak eta bertako arauak errespetatzeak izan beharko dute oinarri. Are gehiago, modu bidezkoan eta ez-diskrezionalean aplikatu behar da.

Horrez gain, Euskadin ditugun beste arau batzuek ere eragiten dute gai horien erregulazioan, hala nola Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea, 119/2019 Dekretua, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena, eta 17/2019 Dekretua, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. Interes handikoa da, halaber, Arartekoaren 2013ko ekainaren 27ko 6/2013 Gomendio Orokorra, jendeari irekita dauden establezimendu pribatuetan sartzeko onarpen-eskubidea eta diskriminazio-debekua erabiltzeari buruzkoa, bai eta zehapen-prozedura eta erreklamazioak izapidetzeko berme-sistema arautu eta aplikatzeari buruzkoa ere.



Garrantzitsua da adieraztea aipatutako 15/2022 Legeak administrazio publiko eskudunak behartzen dituela (21.3 artikulua) beharrezko neurriak garatzera, artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko, bereziki zaintza- eta ikuskaritza-neurriak. Izan ere, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 4/2023 Legeak (6. artikulua) eskumena ematen die tokiko erakundeei gai horretan.

Praktikan, zeregin horiek polizia-taldeek egiten dituzte, diskriminatutako pertsonak hala eskatuta, eta ez dute beti jakintza egokia izaten indarrean dagoen esparruari buruz.

#### Iparrorratza

Tokiko erakundeek garatutako jardueren esperientziatik abiatuta, beharrezkotzat jotzen dugu:

1. Kontsumitzaileak sentsibilizatzeko ekintzak egitea kontsumitzaile gisa dituzten eskubideei buruz, onarpen-eskubideari edo zerbitzuak emateari dagokionez.
2. Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak egitea aisialdi-, ostalaritza-, merkataritza- edo higiezin-establezimenduei dagokienez, besteak beste.
3. Udalak gai horiek zaintzeko eta ikuskatzeko duen eskumena erabiltzea, diskriminazioaren aurkako begiradarekin.
4. Udaltzainak onarpen-eskubidearen inguruan prestatzea.

#### 5.2.3. Kirolaren eremua

Eraberean Sareak hamar urteko ibilbidean metatutako ezagutzatik abiatuta, badakigu esparru horretan gertaera diskriminatzaileak ugari direla. Gehienak harremanei buruzkoak dira, bai erabiltzaileen eta langileen artean, bai erabiltzaileen artean. Azken horiek askotan izan dira burkiniaren ingurukoak (5.1.6 atalean garatu dugu). Eskola-kirolean eta kirol federatuan ere izaten dira gertakariak. Kasu horretan, izaera arrazista, xenofobo eta LGBTIfoboko ahozko erasoei lotuago.

Ditugun arau-erreferentzia nagusiak hauek dira: uztailaren 11ko 19/2007 Legea, kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoa (2. artikulua), eta 203/2010 Errege Dekretua, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko araudia onartzen duena (4. artikulua). 15/2022 Legeak, hain zuzen, arau horiek aipatzen ditu (3.1.ñ artikulua).

Horrez gain, Euskadin badugu jarduera fisikoen eta kirolaren 2/2023 Legea, zeinak ezartzen baitu (2.3.c artikulua) botere publikoek arlo horretan duten printzipio gidarietako bat dela pertsona guztiak jarduera fisikora eta kirolera berdintasunez eta ekitatez sartzeara eragozten duten oztopo guztiak ezabatzea. Haren filosofiaren arabera, kiroleko eta jarduera fisikoko edozein arrazoiengatiko indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzea ez da soilik zigor-arauen zeregina. Aitzitik, beharrezkoa da jokabide horiek kirol-sistemaren oinarritik erauztea, eta, horretarako, errespetuzko, tolerantziatzeko eta joko garbiko ohiturak transmititzea hastapen-adin horietako jarduera fisikokoan eta kirolean.

#### Iparrorratza

Araudia betetzearen ikuspegitik, egokitzen jotzen dugu bi jarduera-ildo nagusi aipatzea:

1. Sentsibilizazio-ekintzak egitea (batez ere, klubak eta beste kirol-eragile batzuen inplikazioarekin).
2. Erregelamenduak eta erabilerari eta elkarbizitzari buruzko araudiak berrikustea, edozein xedapen diskriminatzaile ezabatzeko eta bizikidetzaren kudeaketa positiborako balioak sartzeko.
3. Ekintza diskriminatzaileak zigortzeko mekanismo zehatz eta neurritzeko ezartzea.

#### 5.2.4. Garraioaren eremua

Berriz ere, Eraberean Sareak metatutako ezagutzatik abiatuta, bidaiarien garraioa gertaera diskriminatzaile ugari izaten diren esparru bat da, eta, maiz, agente diskriminatzailea beste erabiltzaile bat izaten da. Era



berean, oso egoera zailak dira kudeatzeko, garraibide baten berezko ezaugarriak direla eta: ibiltaritza, bertan denbora-tarte mugatu batean egotea, laguntza edo babesa eskatzeko zailtasuna... baina baita lege-esparru zehatzik ez dagoelako ere.

Horri dagokionez, elkarbizitzari eta beste erabiltzaile batzueganako errespetuari buruzko erreferentzia oso zehatzugabeak aurkitzen ditugu, adibidez, Euskadiko mugikortasun iraunkorrari buruzko 11/2023 Legea (7. artikulua), Bidaariak Herri Barruan eta Herri Artean Autoz Garraiatzeko 2/2000 Legea (4. artikulua) eta Bidaariak Errepidez Garraiatzeko buruzko 4/2004 Legea (IV. Kap.)

Bestalde, 15/2022 Legeak dio (3.1.f artikulua), besterik gabe, garraioa aplikazio-eremua dela, eta debekatuta dagoela, berau erabiltzeko dagokionez, publikoari ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dizkieten herri-administrazioek, erakundeek, enpresek edo partikularrek diskriminaziorik egitea (17.1 artikulua), merkataritza-edo lanbide-jarduera baten esparruan, hala nola garraioan.

#### Iparrorratza

Esparru horretako diskriminazio-kasu batzuen akonpainamendutik abiatuta, hauek dira araudia betetzeko gure gomendioak:

1. Garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeek arlo honetako egoera berezira egokitutako protokolo espezifikoak izatea. Komenigarria litzateke Euskadiko zerbitzuek elkarrekin egitea.
2. Zerbitzu horiek ematen dituzten langileei prestakuntza ematea, protokoloen esparruan.
3. Bazterkeriaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea, Euskadiko garraio publikoko zerbitzu batzuetan dagoeneko egin den bezala.

### 5.3. Kategorien edo kolektiboen arabera lanketa

Kategorien edo kolektiboen arabera lanketa bat egitea baliagarria da, guztien artean komunak eta partekatuak diren gaiez gain, haietako bakoitzaren espezifikoak direnak identifikatzeko. Aniztasunaren tokiko politika, nahitaez, partikularra dena kontuan hartzen duen eta horren aurrean egokitzapenak egiten dituen politika da, berdintasun erreal eta efektiboa bermatzeko.

Alde horretatik, kategoria eta talde horien errealitatea, askotan, haiei buruzko ezjakintasunak, ekiteko modurik onenari eta egokienari buruzko zalantzek, eztabaidek edo kontraesanek baldintzatzen dute. Izan ere, aitortu behar da errealitate horiek, egunerokotasunean presente egon arren, ez direla beti aintzat hartu, ez behintzat eskubideen ikuspegitik, eta badirela paradigma desberdinak errealitate horietara hurbiltzeko, ez beti eztabaida sozialetik salbuetsita.

#### 5.3.1. *Pertsona arrazializatuak (ijitoak ez direnak) eta jatorri edo etorki atzeritarrekoak*<sup>20</sup>

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurreko babes formala etengabea da, bai nazioarteko zuzenbidean (Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Arraza- diskriminazio mota guztiak ezabatzei buruzko Nazioarteko Konbentzioa, Langile migratzaile guztien eta haien senideen eskubideak babesteari buruzko nazioarteko Konbentzioa...), bai Europako zuzenbidean (Arraza-berdintasunari buruzko Zuzentaraua eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena) eta Espainiako zuzenbidean (Espainiako Konstituzioa, Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko 15/2022 Lege integrala).

Hala ere, ezin da ahaztu kontrakoa ere badela, hau da, eskubideak eta babesa mugatzen dituzten beste lege batzuk daudela, hala nola 4/2000 Lege Organikoa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzei buruzkoa.

<sup>20</sup> Id. 1.

Nolanahi ere, araudi horren efikazia mugatua da, 2.1 atalean aipatu dugun gorroto-delituen eta -gertakarien kopuru handiak erakusten duenez. Baina gorroto-gertakari horiek egon badirela baiestear harago, egiturazko desberdintasun-egoerak aipatu behar dira, hala nola, esaterako, lan-merkatuaren etnoestratifikazioa eta eskola-segregazioa, eta gizarteratzeko orduan duten eragin larria.

Diskriminazioaren aurkako legediak, behin eta berriz ikusi dugun bezala, zenbait ezaugarri babestutan oinarritzen du babesa, eta, horretarako, zerrenda gutxi-asko zehatzak formulatzen dira. Zerrenda horien artean elkarri lotutako hainbat elementu daude, baina baliteke desberdinak izatea lege-testuaren arabera: jatorri nazionala edo nazioa, arraza-jatorria, arraza edo azalaren kolorea, jatorri etnikoa edo etnia, hizkuntza, erlijioa...

Aipatzen diren formen ugaritasun horrek legebileak zigorgabetasunerako tarterik ez uzteko duen borondatearen berri emateaz gain<sup>21</sup>, beste zerbait ere ematen du aditzera, borrokatu nahi denaren konplexutasuna. Ikuspegi soziopolitiko batetik, normalean arlo etnikoari lotzen zaizkion kultura, hizkuntza edo nazioaren definizioak ez dira ahobatezkoak, baina begien bistakoak balira bezala erabiltzen ditugu.

Alde horretatik, ikuspegi esentzialistak eta kulturalistak saihestea komeni da, eta haien arteko harremanak nabarmentzea. Adibidez, etnizitatearen eta arrazakeriaren artean. Ohitura eta azturak ezaugarri fenotipikoei egotzea edo ezaugarri horiek sinesmen erlijioso jakin batzuekin identifikatzen direnean, hori ez da soilik estereotipazio-ariketa bat, ezaugarri batzuen eta besteen arteko jarraitutasun horiek eratzea funtzionala ere bada menderatze arrazistako sistemarentzat, desberdintasuna betikotzeko.

Prozesu horiek desberdintasuna sozialki antolatze moduak direla ulertu behar da. Zehazkiago, jatorria (sozialki eraikia, hau da, ez geografikoa, baizik eta horri dagokion guztia) beste testuinguru-faktore edo faktore pertsonal batzuen aurrean lehen mailako erreferentzia gisa erabiltzea jendea sailkatzeko. Sailkapen etnozentrikoa da, talde bat pribilegio- eta nagusitasun-posizioan jartzen duena, eta bestea, berriz, subalternitate- eta diskriminazio-posizioan.

Arrazaren kasua paradigmatikoa da. Nahiz eta duela mende erdi baino gehiago adostuden giza espeziean arrazarik ez dagoela, indarrean jarraitzen dute desberdinkeria betikotzeko desberdintzeak. Desberdintze horiek lehen aipatu dugun ezaugarrien *continuum* hori hartzen dute oinarritzat, eta fenotipikotik hasi eta jarduera kulturaletara, sinesmen erlijiosoetara eta abarretara doa.

Azken horiei dagokienez, erlijio-sinesmenak —etnizitatearen eraikuntzari estu lotuak— dira, ziur asko, gehien agertu den bereizketa historikoaren ezaugarrietako bat. Aurreko guztia oinarri hartuta, arrazakeriari aurre egiten dioten pertsona askok arrazializazioa terminoa erabiltzen dute beren buruei erreferentzia egiteko eta deskribatu ditugun prozesuak politikoki ikusarazteko.

#### Iparrorratza

Azaldutakoaren adibide on bat da islamofobiaren kasua. ECRIren arabera, “arrazakeria- eta xenofobia-mota bat da, musulmanen aurkako etsaitasun, bazterketa, arbuio eta gorrotoaren bidez adierazten dena, batez ere populazio musulmana gutxiengoa denean, eta horrek Mendebaldeko herrialdeetan du eragin gehien”. Autore batzuek diote bertan mendebaldeko kulturaren nagusitasun-posizioak jarduten duela hegemoniko gisa eta islamari egozten zaizkiola komunitateko kide guztiak homogeneizatzen dituzten irudi eta termino

<sup>21</sup> Hala, ECRIk, politika orokorreko 15. gomendioan, argitzen du, adibidez, «baztertu egiten dituela arraza desberdinen existentzia defendatzen duten teoriak. Hala ere, [...] ‘arraza’ terminoa erabiltzen du, beste arraza batekoak direla oro har eta modu okerrean ikusten diren pertsonen babesa behar dutela bermatzeko».


negatiboak (zibilizatu gabea, barbaroa, fede txarra, matxismoa eta ankerkeria), logika historiko eta kolonialekin lotzen direnak. Hala ere, erlijio-sinesmen batzuen kontrako manifestazioa dela pentsatzea huts egitea litzateke. Islamofobia ez da berdin zuzentzen pertsona musulman guztien aurka. Aitzitik, asko areagotzen da zenbait jatorri geografikoren arabera, hala nola Magrebeko eta Ekialde Ertaineko jatorriaren arabera, edo itxuraz jatorri hori egozten zaien pertsonen arabera. Era berean, beste patroiz diskriminatzaile batekin ere aritzen da, biek elkarri eragiten diotela, aporofobiarekin. Alde horretatik, islamofobia intersektionalitatearen adibide ona da.

Hori horrela ikustea lagungarria da arrazakeriak duen egiturazko izaera edo izaera sistemikoa, 1.2.3 atalean aipatu duguna, nabarmentzeko. Europar Batasunak bere egin duen planteamendua da, eta “gure gizartearen historian sakon errotuta dagoen, sustraiekin eta arau kulturelekin lotuta dagoen” zerbait dela esanez esplizitatzen da, “gizartearen funtzionatzeko moduan, boterea banatzen den moduan eta herritarrek Estatuarekin eta zerbitzu publikoekin elkarrekaragiten duten moduan isla daitekeen” zerbait.

Proposamenei dagokionez, kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu gisa erabiltzen da kulturartekotasuna. Eredu hori, pluralisten artean, anbiziotsuena da, eta euskal erakundeek horren aldeko hautua egin dute dagoeneko, bai 2003ko Immigrazioaren I. Euskal Planean<sup>22</sup>, bai eta, berrikiago, Migrazioaren aldeko Euskal Itun Sozialan<sup>23</sup> (2022).

Esparru horretan jarduteko, zenbait kontzepturen definiziotik abiatuko gara, hala nola kulturarenetik. Ez dago adostasunik nola definitu, baina zenbait hurbilketa baliagarri egin ditzakegu. Hala, adibidez, onuragarria da giza talde batzuek eta besteek errealitatea ulertzeko sortutako tresna-multzotzat hartzea. Tresna horiek herentzia sozialaren bidez ikasten dira, eta dinamikoak dira, hau da, etengabe eraldatzen dira denboran zehar, ingurunea eta beren testuingurua aldatzen den neurrian eta hainbat talderen arteko elkarrekaraginen ondorioz.

Kulturek adierazpen desberdinak sortzen dituzte, eta horiek zuhaitz batekin duten paralelismoarekin azaldu ohi dira: sustraiak (ikusezinak) balioak dira, sinesmenak edo, adibidez, denboraren nozioa (lineala, ziklikoa, sinkronikoa, polikronikoa...); enborrak legeei buruzko gizarte-antolaketa erantzuten dio, hezkuntzaren ikuskerari, familia-ereduei...; eta adarrak kultura-jarduerak dira, hala nola janzteko modua, jateko modua, hizkuntzak, ospakizunak... Praktika horiek izan ohi dira kulturen alderdirik dinamikoak, eta, agerikoenak izan arren, ez dute zertan gaitasun esplikatzaile handiena eduki.



<sup>22</sup> Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/p8y6i10z>

<sup>23</sup> Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/q9cetl0w>

Izan ere, kulturek banakako eta taldeko jokabidea bideratzeko balio duten arren, hutsegitea da — etnizitateaz hitz egitean adierazi dugun bezala— pertsonen portaera azaltzen saiatzea soilik kulturari begiratuta edo kulturari gehiegizko garrantzia emanez, testuinguru-faktoreak kontuan hartu gabe, hala nola klase soziala, lanbidea, ikasketa-maila, eta pertsonalak, hala nola sexua eta adina. Izan ere, kulturak ez dira osotasun homogeneoa, barne-mailan heterogeneoak eta askotarikoak baitira beti.



Kultura-aniztasuna, hau da, eremu geografiko berean batera dauden kultura-jarduera desberdinen aniztasuna, eta horiek elkarri aitortzeko eta besteengandik bereizteko gai diren pertsonen partekatzen dutena, gizateriaren ondare komuna da, UNESCOren Kultura Aniztasunari buruzko 2001eko Deklarazio Unibertsalak ezartzen duen bezala. Gainera, oso modu interesgarrietan egiten du (4. artikulua), adierazten baitu kultura-aniztasunaren defentsa giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aginduen zati banaezina dela, eta, aldi berean, ezin dela kultura-aniztasuna baliatu nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak urratzeko, ez eta eskubide horien irismena mugatzeko ere.

Planteamendu hori funtsezkoa da kulturartekotasuna kultura-aniztasunaren kudeaketa-eredutzat hartzeko. Izan ere, pluralismoaren eremuan kokatzen gaitu, hau da, aniztasun horren eta eskubideen defentsan, eta, aldi berean, sumatzen da bizikidetza hori, guztiak bezala, ez dela gatazkarik gabea.

Alde horretatik, bi kontu nagusi aipatu behar dira: bagajea edo faktore kulturalak “*besteek*” zein “*guk*” daramatzagula, eta ez dela komeni desberdintasunak gutxiestea, ezta gastronomiaren edo jantzien kontu soil bat direla pentsatzea ere. Ia beti askoz ere sakonagoak dira, eta horiek banalizatzeak aitorpen estetiko hutsa dakar. Hala, horrek berekin dakartzan desberdinkeriez gabetzen ditu. Kulturarteko konpetentzien garapenak zerikusi handia du gai horien inguruko lanarekin.

Kultura-aniztasunari hainbat paradigmatakin egin dakioke aurre. Arrazismotik eta xenofobiatik abiatuta, desberdintasun kulturalaren bazterketa maila ezberdinak sustatzen dituzten ereduak eratortzen dira, horien ezabatze fisikotik (genozidioa eta garbiketa etnikoa) edo kulturaletik (etnozidioa eta fundamentalismoa) diskriminaziora, segregaziotik (apartheid) igaroz.

Giza eskubideetatik kultura-aniztasuna sustatzen da, eta bi eredu handi artikulatzen dira: kultura-aniztasuna eta, hortik abiatuta, kulturartekotasuna, eredu aurreratuago eta errespetuzkoago gisa. Kulturartekotasuna hiru printzipioren baieztatuz egituratzen da: desberdintasunerako eskubidea, berdintasunerako eskubidea eta elkarrekintza positiboa.

Desberdintasunerako eskubideak kultura-praktika desberdinak garatzeko aukera ematen du, bi alderditatik: alde juridikoan, desberdintasun hori adierazteko aukera ematen du, eta, politikoan, gure gizartea askotariko kultura-praktikak dituzten kolektiboek eta pertsona-taldeek osatzen dutela aitortzeko eskatzen du. Berdintasun-eskubidea Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren printzipio demokratikoarekin egituratzen da, eta horretatik edaten du dokumentu honek. Esaten dena da pertsona guztiak, desberdinak izan arren, berdintzat hartu behar direla, berriro ere bi alderditatik: juridikoa, eskubide eta betebeharrak berberak dituen, eta soziala, aukera berdina dituen. Atzeritarren kasuan, herritartasunaren nozioarekin eta izaerarekin estu lotuta dago.

Elkarrekintza positiboa da harremanak, interakzioa, komunikazioa, ezagutza eta elkarren onarpena, hurbilketa, konbergentzia, hibridazioa eta sintesia modu aktiboan sustatzeko konpromisoa. Zehazki, benetako ezagutza zabaltzea, enpatia eta tolerantzia sustatzea eta topaketa sozialerako eremuak eraikitzea da helburua. Bizikidetzat ziurtatzea, eta ez elkarren ondoan existitze hutsa.

|                                          |                     |                             |                    |                                                                                        |
|------------------------------------------|---------------------|-----------------------------|--------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|
| Arrazismoa<br>Xenofobia<br>Kolonialismoa | BAZTERKERIA         | Desagerraztea               | Fisikoa            | Genozidioa<br>Garbiketa etnikoa                                                        |
|                                          |                     |                             | Kulturala          | Etnozidioa<br>Fundamentalismoa                                                         |
|                                          |                     | Segregazioa<br>“apartheida” | Espaziala          | Bizitegi-ghettoak                                                                      |
|                                          |                     |                             | Instituzionala     | Eskola-ghettoak                                                                        |
|                                          |                     | Diskriminazioa              | Legala             | Lege diskriminatzaileak                                                                |
|                                          |                     |                             | Soziala            | Gorroto-gertakariak<br>Ekintza diskriminatzaileak                                      |
|                                          | INKLUSIO<br>FALTSUA | Homogeneizazioa             | Asimilazionismoa   | Anglinizazioa<br>Arabizazioa<br>Frantsestea                                            |
| Giza<br>eskubideak                       | INKLUSIOA           | Pluralismo<br>kulturala     | Multikulturalismoa | Berdintasunerako eskubidea<br>Desberdintasunerako eskubidea                            |
|                                          |                     |                             | Kulturartekotasuna | Berdintasunerako eskubidea<br>Desberdintasunerako eskubidea<br>Elkarrekintza positiboa |

Bada kultura-aniztasuna kudeatzeko beste eredu aipagarri bat. Asimilazionismoaz ari gara, arrazakeriaren eta xenofobiaren paradigmatik edanez homogeneizazioaren bidezko inklusio faltsua planteatzen duena, hau da, gutxiengoak edo menpekoak talde nagusiaren praktika kulturalak nahitaez hartzearen bidez. Eredu hori aipatzearen garrantzia da muturrekoenak baino askoz ere ohikoagoa izaten dela, eta premisa sinple baina sozialki efektiboez jantzi ohi dela, hala nola nor den gehiengoak, nor dagoen zuzen, nor zegoen “lehen” lurralde jakin batean edo zer den ona.

Arrazializatutako eta atzeritar jatorriko pertsona-taldeentzat kultura-aniztasuna kudeatzeak duen arriskueta bat da erakundeek “esku-hartzerik gabeko” rol pasiboa hartzea, eta hori guztia gizabanakoek, taldeek eta komunitateek sortzen dituzten dinamiken esku uztea. Arrazakeria estruktural eta sistemikoko testuinguru sozialetan kudeaketarik ez egiteak esan nahi du botere publikoek alde batera uzten dituztela nazioarteko, Europako eta estatuko giza eskubideei eta indarrean dauden araudiei dagokienez dituzten betebeharrak.

Azken horren ikuspegitik, urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak (2 ter artikulua), “atzeritarrek Espainiako gizartearen erabat integratzea, askotariko identitate eta kulturen bizikidetzat-esparru batean, Konstituzioa eta legedia errespetatzea beste mugarik gabe” sustatzera behartzen du, eta migratzaileen eta gizarte hartzaileen arteko integrazioaren helburua politika eta zerbitzu publiko guztietan zeharkako izaerarekin txertatzera, migratzaileen eta kultura-politikaren parte-hartzea sustatuz [...], kultura-berdintasunean eta gizarte-baldintzetan parte hartuz”.

Antzeko zentzuan, 15/2022 Legeak (33.4 artikulua) behartzen du balio demokratikoen, konstituzionalen eta giza eskubideen irakaskuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzera [...] pertsonen berezko duintasunaren [...] pluralismoaren eta kulturartekotasunaren onarpenean oinarritutako jokabideak indartuz

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak (17.1.35 artikulua) udalerrien berezko eskumen gisa aitortzen du “immigrazioaren arloko gizarteratze-politiken kudeaketa, atzerriartasunaren arloko legediaren arabera eta erakunde autonomikoekin lankidetzan”.

#### Iparrorratza

EAEko tokiko erakundeek ibilbide luzea dute immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko politikak diseinatzeko eta ezartzeko. Hona hemen diskriminazioaren inguruan kontuan hartu beharreko gakoetako batzuk:

1. Gertakari diskriminatzaileak ikusaraztea, planteatu dugun tokiko jarduera-protokoloaren moduko tresnen bidez, eta hura diseinatzeko eta aktibatzen arrazializatutako pertsonen eta atzerriarren gizarte-kolektiboetara aktiboki parte hartzea erraztuz.
2. Ahaldundutza sustatzea, arrazializatutako eta atzerriar jatorriko pertsonen eskubideak modu erreal eta efektiboan gauzatu daitezkeen. Prestakuntzak eta sentsibilizazioak funtsezko zeregina izan dezakete beren eskubideak eta eskubide horiek erabiltzeko modua ezagutzeko.
3. Sentsibilizazio-ekintzak egitea eta kultura-aniztasuna positiboa dela onartzea.
4. Zentzuzko egokitzapenak eta moldaketak egitea zerbitzu publikoen esparruan, pertsona guztiek, beren kultura-praktikekin, zerbitzu horietara aukera-berdintasunean iritsi daitezkeen.
5. Topaketa eta interakzio sozialerako eremu komunitarioak sustatzea.

#### 5.3.2. *Ijito Herria*<sup>24</sup>

Ijito Herria gutxiengo etniko zaharra eta ugaria da Europan. Iberiar penintsulan XV. menderako (1425eko urtarilaren 12an) zegoela dokumentatuta dago eta, orduetik, etengabeko estigmatizazio, kontrol instituzional, gizarte-bazterketa eta aurreiritzi kulturalen sistemarekin bizi izan da. Modu sistematikoan jazarri dira haren identitatea, kultura, mundu-ikuskera eta, bereziki modu hondatzailean, haren hizkuntza, Espainian suntsitua.

Jazarpen hori dozenaka lege romafoboren bidez gauzatu zen, eta 1749an iritsi zen mailarik gorenera, genozidio-saiakera batekin, *La Gran Redada* (Sarekada Handia) izenez ezagutzen denarekin. Gaur egungo berdintasunik eza ezin da ulertu 1499ko pragmatika romafoboak berrikusi gabe. Pragmatika horien eskutik berrehun dekretu baino gehiago etorri ziren, kanporatzea, kontrola eta nahitaezko asimilazioa helburu zituztenak. Jazarpen hori ez da soilik jarrera negatiboaren multzo sakabanatu bat, baizik eta literatura akademikoak eta Europako erakundeek romafobia gisa kontzeptualizatu duten egitura estruktural bat.

Azken hamarkadetan, nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako arau-esparruek diskriminazioaren aurkako babesa indartu dute, eta ijitoen aurkako arrazakeriari aurre egiteko beharra aitortu dute esplizituki. Hala ere, politika publikoek, batez ere tokiko ekintzak, aurre egin behar diote oraindik ere estereotipo sustraituak, praktika instituzional diskriminatzaileak, egiturazko pobrezia indizeak eta aldaketari aurre egiten dioten gizarte-jarrerak dauden eremu sozial batean esku hartzeko erronkari.


<sup>24</sup> Artikulu hauetatik abiatuta egindako testua:

- Imanol Sancosmed Cámara, Hermenegildo Jiménez Pereira eta Javier Pérez Pérez-en Pueblo Gitano y desigualdad en datos, Ikuspegik argitaratua, Dimensiones de la desigualdad-en (2023). Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/yhvha23b>
- Ismael Cortés-en Antigitanismo e interseccionalidad: un análisis multinivel (Europa, España y Euskadi), hemen argitaratua: Zerbitzuan, 81 (2023). Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/beyentbd>

Jarraian, gutxieneko esparru teoriko bat aurkeztuko dugu, baita aplikatzekoa den esparru juridikoaren azterketa bat eta gomendio operatibo batzuk ere, toki-esparruan lantzeko. Testuan zehar, erreferentzia akademikoak eta Europako funtsezko dokumentuak daude, romafohia garaikidea ulertzeko.

Europako Kontseiluak honela definitu du romafohia<sup>25</sup>: “ijitoen aurka historikoki errotutako arrazismo, ideologia eta praktika sozialaren berariazko forma”. Ez da aurreiritzi bakana, ezta estereotipo kultural soil bat ere, baizik eta sistema egituratu bat, bostehun urte baino gehiagoz Europaren historia soziala itxuratu duena, kanporatzeen bidez (XV.-XVII. mendeak), erromani hizkuntza desagerraraziz, behartutako asimilazioaren bidez, polizia-erregistro sistematikoen bidez, hezkuntza- eta bizitegi-segregazioaren bidez edo ijitoen identitatearen kriminalizazio kolektiboaren bidez.

Sare horrek imajinario sozial bat sortu zuen, non Ijito Herria kriminalitatearekin, integrazioarekin ezarekin, marjinaltasunarekin edo pobreziaarekin lotuta agertzen den, gaur arte errepikatutako estigma-matrize bat osatuta. Horrela, romafohiak erregimen arrazializatu gisa dihardu, non ijitoak “mugako talde” gisa hautematen diren, beti susmagarri eta defizitario. Badu dimentsio instituzional bat ere, ez baitira soilik banakako aurreiritziak: desberdintasun metakorrak sortzen baitira eta berdintasunezko herritartasunaren nozioa hausten da, zedarrituz nor den erabat komunitate politikoko kide eta nor, aitzitik, arrotz.



Eguneroko diskriminazio-egoera baten aurrean gaude, eta ez da halabeharrezkoa, egiturazkoa baizik. Are gehiago, ijitoen eta ijito ez direnen arteko berdintasunik eza ordena sozialaren parte bihurtu da. Eta gizarte-ordena den aldetik, normalizazioa gertatzen da, hau da, gizartearen gehiengoak eta, batzuetan, ijitoek berek ere desberdinkeria barnerraten dute. Normalizazio horrek hainbat fenomeno azaltzen ditu, hala nola salaketa gutxiegi jartzea edo tratu bidegabeak etsipenez onartzea.

Hori horrela izanik, arrazakeria romafohoak hainbat esparrutan dago, eta hainbat eratara agertzen da:

-  Hezkuntza. Ikasle ijitoak eskari urriko ikastetxeetan banantzea eta kontzentratzea edo eskakizun txikiagoko ibilbideetara goiz bideratzea egiturazko diskriminazio-mota bat da, eta luze eta zabal dokumentatuta dago.

<sup>25</sup> ECRIren 13. politika orokorreko gomendioa, romafohiaren eta ijito erromanien diskriminazioen aurkako borrokari buruzkoa. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/qavfqj52>



-  Osasuna. Ijito Herriaren bizi-itxaropena populazio osoarena baino 10-15 urte murriztagoa da, determinatzaile sozialekin lotutako gaixotasun oso zabalduen ondorioz. Pandemiak larriagotu egin zuen hori.
-  Etxebizitza. Hirigintzaren informaltasunak, auzotarren arbuioak eta ghettoak dira ezaugarri nagusia etxebizitza eskuratzeari dagokionez. Era berean, alokairuaren arloko diskriminazioak, zeina zigortzen hasita dagoen, eremu egokietara iristea zailtzen die.
-  Enplegua. Ohikoak dira kontratazioan diskriminazioa, estigma profesionala eta merkatuan sartzeko oztopoak.
-  Komunikabideak. Ohikoa da irudikapen sentsazionalista edo kriminalizatzailea.
-  Administrazio publikoak. Dokumentatuta daude erakundeek joerak eta arreta espezifiko baterako egokitzapenik eza.
-  Segurtasun-indarrekiko harremana. Hainbat txostenek profil etnikoaren arabera polizia-identifikazioak aipatzen dituzte, baita jardunbide okerrean aurrean eskura daitezkeen kexa-mekanismoen falta ere.
-  Politikan parte hartzea. Aurrerapausoak egon arren, ijitoen ordezkartza urria da oraindik ere erakundeetan, eta ordezkartza hori ezinbesteko baldintzetako bat da romafovia instituzionala gainditzeko.

Elementu horiek guztiak osatzen dute Oinarritzko Eskubideen Europako Agentziak (FRA) “oinarritzko eskubideen erabateko egikartza mugatzen duen arrazismo iraunkor eta orokortua” deritzona.

#### Iparrorratza

1.2.3. atalean aurkeztu dugun intersektionalitatearen nozioaren ildotik, arrazismo orokorrak ere elkarreragina duenez ezberdintasuneko eta diskriminazioko beste dimentsio batzuekin, hala nola sexuarenarekin, ikuspegi horretatik begiratuta, generoko romafoviaz hitz egiten da. Horrek, Patricia Caro Mayaren hitzetan, emakume eta neskato ijitoek genero-, klase- eta etnia-arrazoiengatik nozitzen duten arrazismo mota espezifikoak identifikatzeko balio du.

Euskal testuinguruan gertatzen den diskriminazioa ulertzeko, funtsezkoa da gizarte-pertzepzioen neurketa zorrotzak egitea. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak azterlanak, Ikuspegi landua<sup>26</sup>, datu baliotsuak ematen ditu euskal gizartearen jarrera ulertzeko.

EAEko herritarren % 83,9k adierazi du nahiago duela gizarte anizkoitza, baina balorazio positibo hori anibalentea da talde etniko jakin batzuekiko elkarbizitzaz galdetzean. Aniztasuna era abstraktuan onartzen da, baina ez beti eguneroko praktikan eta are gutxiago Ijito Herriarekin. Horrela, % 38,6k soilik onartuko lukete ijito asko dagoen auzo batean bizitzea, edo % 26,9k onartu dute nahiago luketela ijito bat ez kontratatu, nahiz eta beste hautagai baten prestakuntza berdina izan.

Halako txostenak tresna estrategikoak dira ebidentzian oinarritutako politika publikoak diseinatzeko. Izan ere, tokiko erakundeei diagnostikoak ematen dizkiete, gizartearen onarpenaren ezagutza ematen dute, bizikidetzat indartzeko edo diskriminazioaren aurkako kanpainak egiteko esparruak identifikatzen dituzte.

Garrantzitsua da ohartzea aipatutako jarrerak ez direla huts-hutsean eta soilik subjektiboak, baizik eta romafovia euskal iruditerian duen errotzearen adierazleak. Ikerketa horren arabera, ijitoak dira oraindik ere erreparo sozial handiena eragiten duen taldeetako bat.

<sup>26</sup> Id. 13.



Errealitate hori, historikoa ez ezik, gaur egungoa ere bada. Ijito Herriak nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko arau eta tresnak ditu bere diskriminazioari aurre egiteko. Arrazoi etnikoengatiko diskriminazioa debekatzen duen Giza Eskubideen Europako Konbentziotik abiatzen dira (14. artikulua eta 12. protokoloa); ECRIren 13. Gomendioa (2011), estatuei politika integralak hartzea eskatzen diena; EBren Ijitoentzako Esparru Estrategikoa 2020-2030, berdintasunaren, inklusioaren, parte-hartzearen eta diskriminazioaren prebentzioaren aldeko ekintzak planifikatzen dituena; edo Oinarritzko Eskubideen Europako Agentzia (FRA), arrazakeria romafoboa eta horrek oinarritzko eskubideetan duen eragina sistematikoki dokumentatzen duena.

Estatu mailan, 2022. urtean aurrerapauso nabarmenak eman ziren legeetan: Zigor Kodeko 10/1995 LOan romafoobia gorroto-delituen artean sartu zenetik (510 eta 22.4 artikulua); Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko 15/2022 Legea onartzea, romafobiagatiko diskriminaziotik babesten duena; Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Legea, frankismoko errepresio espezifikoa aitortzen duena (3.5 artikulua eta hamabigarren xedapen gehigarria).

Euskadin, euskal erakundeek badute elkarrizketa-organo iraunkor bat, Ijito Herriaren Euskal Kontseilua<sup>27</sup>, eta, Ijito Herriarekiko IV. Euskal Estrategiarekin (2022-2026)<sup>28</sup>, aitortzan, inklusioan eta berdintasunean aurrera egiteko ekintzak gauzatzeko konpromisoa hartu dute. Halaber, Romafobiaren aurkako Euskal Itun Soziala onartu dute<sup>29</sup>. Bestalde, udal-erakundeek, herritarrengandik hurbil daudenez gero, funtsezko lekua dute.

Romafoobia, haren sustrai historikoak, instituzioetan leku izatea eta haren egungo adierazpenak aztertzeak agerian uzten du Ijito Herriari hainbat dimentsiotan eragiten dion desberdinkeria sakoneko sistema horren konplexutasuna. Araugintzan aurrerapenak egin diren arren eta eztabaida publikoan arrazakeria romafoboa gero eta ikusgarriagoa izan arren, mendez mendez normalizatu diren diskriminazio-forma esplizitu eta inplizituek iraun egiten dute oraindik ere. Errotze sakon horrek azaltzen du zergatik, lege-esparru sendoak egonda ere, kultur eta egitura aldaketek motelago egiten duten aurrera.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da aitortzea romafoobia ezin dela hartu banakako jarreraren arazotzat soilik, eta eraldaketa instituzional eta sozial zabala eskatzen duela. Ikerketa akademikoak erakutsi du arrazakeria hori Ijito Herriaren erabateko herritartasuna mugatzen duen egiturazko dispositibo gisa egituratzen dela. Beraz, horren aurka egiteko, administrazio-jardunbideak, esku hartzeko irizpideak eta ekintza-esparruak berrikusi behar dira, zeren horiek, nahita ez bada ere, desberdintasunak sortzen dituzte. Estereotipoek eta gertuko bizikidetzaren aurreko erresistentziek agerian uzten dute politika publikoek alderdi pedagogikoak, komunikatiboak eta komunitarioak izan behar dituztela.

Testuinguru horretan, udalerrriak, eguneroko bizitzatik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, funtsezko eragileak dira. Haiek dira gertaera diskriminatzaileak goiz hauteman, komunitate-programak diseinatu, bizikidetzeta-gatazketan esku hartu eta auzoetan ingurune inklusiboak susta ditzaketenak. Baina, era berean, beren barne-prozedurak berrikusteaz, langileen prestakuntza bermatzeaz eta biktimei arreta emateko protokoloak ezartzeaz arduratzen dira. Tokiko eskalak esku-hartze malgua ahalbidetzen du, testuinguru espezifikoetara egokitua eta ijitoen komunitateen benetako beharretatik hurbil.

Horregatik guztiagatik, Ijito Herriaren berdintasunerantz aurrera egiteko ikuspegi duala behar da: eskubideen bermea eta eraldaketa kulturala. Ez da nahikoa diskriminazioa debekatzea: aktiboki sustatu behar da partaidetza osoa, ordezkari-tza politikoa, aitortza kulturala eta mendeetako bazterketa konpontzea ahalbidetuko duen egoera bat. Ijito Herriaren inklusioa ez da kontzesiotzat hartu behar, gizarte osoa indartzen duen behar

<sup>27</sup> Informazio gehiago: <https://labur.eus/kpi6khle>

<sup>28</sup> Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/ljjd6zv>

<sup>29</sup> Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/zmdevely>

demokratikotzat baizik. Talde bakoitzak, bereziki historikoki baztertuek, bere herritartasuna oztoporik gabe gauzatu dezakeenean baino ez da posible elkarbizitza erabatekoa eta erreala.

Azkenik, esku-hartze oro ijito herriaren aniztasuna eta heterogeneotasuna onartuz egin behar da. Ez dago ijito-identitate bakar eta homogeneorik: elkarrekin bizi dira ibilbide, errealitate sozioekonomiko, kultura-identitate, erlijio-adierazpen eta bizi proiektu anitz. Errespetuzko ikuspegi efikaz batek saihestu egin behar ditu irakurketa esentzialistak, eta elkarriketa bidezko politiken aldeko apustua egin behar du, erantzukidetasunetik eta ijitoen protagonismotik abiatuta.

Laburbilduz, romafovia desagerrarazteko bideak esparru juridiko sendoak, politika publiko eraldatzaileak, ebidentzian oinarritutako diagnostikoak eta giza duintasunarekiko konpromiso etikoa konbinatzea eskatzen du. Tokiko erakundeek erantzukizuna funtsezkoa da prozesu horretan: haiek ireki dezakete bidea, haiek sor dezakete konfiantza, aliantzak ehundu eta Ijito Herriaren berdintasuna, legeko printzipio bat ez ezik, udalerri bakoitzean bizitzen den errealitate bat ere izatea bermatuko duten praktikak finkatu.

#### Iparrorratza

Gomendatzen da, tokiko erakunde bakoitzaren baliabideetan eta errealitatean oinarrituta, ekintza bakanak ez antolatzea, baizik eta romafobian arreta jartzen duen estrategia zabalago baten barruan, eta, besteak beste, honako hauek barne hartuta:

1. Romafovia esplizituki eta arrazismotik bereizita aipatzea, eta hori prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko neurri espezifikoak hartzea.
2. Langileentzako prestakuntza gehitzea, bereziki udaltzainei, herritarren arretan dihardutenei, gizarte-zerbitzuei eta hezkuntza- eta haur-taldee zuzendua.
3. Ijitoen elkarrekin koordinazioa bermatzea, diskriminazio-gertakarien aurrean maila lokalean jarduteko protokoloen esparruan.
4. Ekintza komunitarioa eta elkarbizitza sustatzea, kulturarteko bitartekaritzaren bidez eta ijitoak bizi diren auzoetan jarduerak antolatuz.
5. Modu arduratsuan komunikatzea, estigmatizazioa indartzea saihestuz eta zurrumurruen eta aurreiritzien aurka borrokatuz.
6. Ikasle ijitoen kontzentrazio handia duten ikastetxeetan eskola-laguntzako programak indartzea eta Ijito Herriaren historiari eta kulturari buruzko edukiak txertatzea.
7. Ijitoen erakundeekin elkarriketarako guneak antolatzea, bai foro, mahai eta kontseilu orokorretan, bai berariazko beste batzuetan.

#### 5.3.3. LGTBI kolektiboa

Sexu- eta genero-aniztasuna (SGA) terminoak hainbat interpretazio ditu. Gizakiaren sexuen, sexu-ezaugarrien, sexu-orientazioen, genero-identitateen eta sexu-praktiken aukera zabal gisa defini daiteke, bai eta arauditik kanpo dauden errealitateen aniztasun gisa ere. Hori interpretatzeko modu desberdin horiek 1.1. atalean azaltzen genuenera garamatzate, alegia, nola aniztasuna batzuetan desberdintasuna izan daitekeen, bai eta disidentzia ere. Dena den, SGA terminoetan hitz egitea historikoki diskriminatutako lesbianen, gayen, bisexualen, trans pertsonen, bisexualen, intersexen eta abarren kolektiboa baino gehiago aipatzea da.

Nolanahi ere, bai Zigor Kodean (22.4 artikulua), bai 15/2022 Legean (2. artikulua), baten bat jasotzeko modua desberdina den arren, kategoria babestu gisa identifikatzen dira, besteak beste, sexua, sexu-orientazioa edo -identitatea, genero-adierazpena eta genero-arrazoiak. 4/2023 Legearen kasuan (1.1

artikulua), lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eta haien familien benetako berdintasun efektiborako eskubidea bermatzen da.

Aitzitik, eta dokumentu honetan aipatzen diren gainerako diskriminazioetan ez bezala, LGBTIfobiak ez du inolako itun, hitzarmen edo konbentzio espezifikorik giza eskubideen nazioarteko sisteman. Europar Batasunak berak ere ez du berezko zuzentzaririk, eta beste diskriminazio mota batzuek, aldiz, bai. Izan ere, sexu- eta genero-aniztasunaren aldaera batzuek (genero-identitateak, adibidez) babes mugatua dute, “beste edozein egoera” kategoria generikoaren bidez soilik, sexu-orientazioaren kasuan ez bezala, hori berariaz onartzen baita.

Eskura dagoen nazioarteko tresna (ez-lotesle) baten antzekoena Yogyakarta-ko Printzipioak izenekoak dira (bai 2006koak, bai 2017ko gehigarriak), hogeita bost nazionalitateko nazioarteko espezialistek idatziak, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren ekimenez. Oro har, modu sistematiko eta espezifikoan azaltzen dute nola zehazten diren giza eskubideak sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, eta berariaz adierazten dute estatuek LGBTI pertsonen babes efektiboan dituzten betebeharren multzo bat.

Bestalde, funtsezkoa da azpimarratzea sexu- eta genero-aniztasuna naturala dela gizakiarengan, eta kultura- eta historia-testuinguru orotan dagoela, nahiz eta testuinguru horietako bakoitzean modu partikularrean adierazi. Hala, LGBTI pertsonen kolektiboa ez da homogeneoa. Ez bere osaerari dagokionez, ezta batez ere klase soziala, adina, arrazakeria, ezintasunak eta beste errealitate batzuekiko bidegurutzeari dagokionez.

Jarraian, aipatu ditugun lege-testuetako definizioak adieraziko ditugu:

|                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Orientazio sexuala</b> | Pertsona batenganako erakarpen fisikoa, sexuala edo afektiboa.<br>Sexu-joera heterosexuala izan daiteke, sexu desberdineko pertsonenganako erakarpen fisiko, sexual edo afektiboa soilik sentitzen denean; homosexuala, sexu bereko pertsonenganako erakarpen fisiko, sexual edo afektiboa soilik sentitzen denean; edo bisexuala, sexu desberdineko pertsonenganako erakarpen fisiko, sexual edo afektiboa sentitzen denean, ez nahitaez aldi berean, modu berean, maila berean edo intentsitate berarekin.<br>Homosexualak gay dira, gizonak badira, edo lesbiana, emakumeak badira. |
| <b>Sexu-identitatea</b>   | Sexuaren barneko eta banakako bizipena, pertsona bakoitzak sentitzen eta autodefinitzen duen bezala, jaiotzean esleitutako sexuarekin bat etor daitekeena edo ez.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <b>Genero-adierazpena</b> | Pertsona bakoitzak bere identitate sexualari buruz egiten duen adierazpena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>Trans pertsona</b>     | Jaiotzean emandako sexuarekin bat ez datorren sexu-identitatea duen pertsona.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>Intersexualitatea</b>  | Gorputz maskulinoen edo femeninoen nozio sozialekin bat ez datozen ezaugarri biologiko, anatomiko edo fisiologiko batzuk, sexu-anatomia bat, ugaltze-organo batzuk edo patroik kromosomiko bat dituztela jaiotako pertsonen egoera.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |

5.3.1 atalean ikusitako kultura-aniztasuna ez bezala, sexu- eta genero-aniztasunerako ez dago “kudeaketa-eredurik”. Hala ere, giza eskubideetan, gizarteratzean, emakume eta gizonen arteko berdintasunean edo kulturen arteko ikuspegian oinarritutako ikuspegiek erreferentzia partzial baliagarriak eman ditzakete LGBTI kolektiboarekiko politika publiko bat zehazterakoan.

Mendebaldean, errepresioan oinarrituta ekin zaio, historikoki. Horrela, edo bekatu gisa kondenatzen zen, edo gaixotasun gisa patologizatzen zen, edo delitu gisa zigortzen zen. Hori dela eta, mugarri garrantzitsuak dira sexu- eta genero-aniztasuna despenalizatzea eta despatologizatzea lortu izana. Espainian, despenalizazioa 1978an egindako aldatetarekin eta 1995ean Arriskutsutasunari eta Birgaitze Sozialari buruzko 16/1970 Legea indargabetzearekin batera gertatu zen, bai eta 1988an frankismotik oinordetzan

jasotako Zigor Kodean jasotako eskandalu publikoko delituak ezabatzearekin ere. Bestalde, 1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) batzar orokorrak homosexualitatea Gaixotasunen Nazioarteko Katalogotik (CIE-10) kendu zuen, eta 2018ko ekainaren 18an gauza bera egin zuen transexualitatearekin, CIE-11tik kenduz, partzialki baino ez bada ere.



S

Elementu errepresibo horiek gainditzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa diskriminaziorik ez izateko. Berdintasunera bideratuago dauden beste aurrerapen batzuk ere funtsezkoak dira, hala nola berdintasunezko ezkontza, adopzioa eta, bereziki, LGTBI pertsonen eskubideak aitortzeko Estatuko eta autonomia-erkidegoetako berariazko beste legedi batzuk.

Askapena da gaur egun xede izan beharreko lanketa desiragarria, eta, ildo horretan, zentzua dute beste paradigma eta balio batzuek ere, hala nola aniztasuna positiboki onartzeak, eskubideak babesteak eta emantzipazioak. Mendebaldeko testuinguruan, filosofia horren arrastoak XIX. mendearen amaieran ere aurki daitezke, orduan sortu baitziren eskubideak aitortzeko lehenengo proposamen politikoak (Hirschfeld). Ondoren, eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimenduaren testuinguruan (XX. mende 60ko hamarkadan) beste bultzada bat hartu zuten eta, bereziki, 2000. urtetik aurrera, berdintasunezko ezkontzarekin.

Gaur egun lortu nahi den lanketa horrek, esan bezala, elkarren osagarriak diren eta elkarri estu lotuta dauden hainbat iturritatik edaten du. Jarraian, bakoitzaren definizioa ez ezik, LGTBI auziari dagokionez garrantzitsutzat jotzen ditugun gako batzuk aipatuko ditugu:

| Ikuspegiak edo perspektibak | Ekarpen orokorra                                                                                                                                                 | Ekarpen espezifikoak                                                                                                                                                                                              |
|-----------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Sexu- eta genero-aniztasuna | Hegemonikoki aintzat hartu direnekin bat egiten ez duten sexualitatea, afektibitatea, sexua eta generoa duten pertsonen irudikapenari aukera ematea bilatzen du. | Oso erabilgarria da xede ditugun pertsonak, taldeak eta errealitateak identifikatzeko. Ezberdintasunari behar bezala erantzuteko tresnak ere ematen ditu.                                                         |
| Giza Eskubideak             | Araudiaren ikuspegitik, nazioarteko estandarretan oinarritzen da, eta operazionaletik giza eskubideak sustatzen eta babesten saiatzen da (Yogyakarta).           | Marko instituzional sendoak eraikitzen ditu eta gaia agenda publikoan kokatzen du. Filosofia efikaza eskaintzen du herritarrek sentsibilizatzeko: aske eta berdinak eta nortasunaren garapen librerako eskubidea. |

|             |                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                          |
|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Feminismoak | (Hetero)patriarkatuaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden egiturazko desberdintasunak eta desberdintasun historikoak aztertzen eta aurrez aurre jartzen ditu. | Indarkeriei aurre egiteko eta horiek desberdintasunaren egiturazko testuinguru batean kokatzeko erreferentzia sendoa eskaintzen du.<br><br>Ezinbesteko epe luzeko begirada sakona dakar. |
|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Egin nahi den lanketa hori zehazteko, LGTBI denari buruzko berariazko erreferentziak dituzten araudiak ditugu, botere publikoei zenbait betebeharrak eta gomendioak adierazten dizkietenak. Estatuko eremutik abiatuko gara, euskal eremu lokalera iritsi arte. Hona hemen horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak:

 4/2023 legea, trans pertsonen berdintasun erreal eta efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko:

- 4. artikulua: tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza aitortzeko, bermatzeko, babesteko eta sustatzeko behar diren neurri guztiak garatzea.
- 5.1 artikulua: sexu-orientazioaren, sexu-identitatearen, genero-adierazpenaren, sexu-ezaugarrien eta familia-aniztasunaren arloan aniztasuna balioesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- 7.1 artikulua: LGTBI pertsonen egoerari buruzko azterlanak eta inkestak egitea bultzatzea, diskriminazio-egoera nagusien izaera eta irismenean sakontzeko.
- 67. eta 68. artikulua: LGTBI pertsonen diskriminazioarekin eta, bereziki, informazioarekin eta orientazioarekin lotutako informazio eta aholkularitza juridiko espezializatua jasotzeko duten eskubidea bermatzea, bai eta eskuragarri dauden baliabideei, laguntza psikologikoari eta orientazio juridikoari, eta biktimak aurkezten dituen lan- eta gizarte-premien arretari buruzkoa ere.

 1/2023 LD Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina:

- 3. artikulua. Sexu- edo genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea aipatzen ditu bere printzipioen artean.

 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Genero-identitateagatik ez baztertzekoa eta trans pertsonen eskubideak aitortzekoa:

- 4.1 artikulua. Euskal administrazio publikoek, parte hartzen duten kasu guztietan, kontuan hartuko dute pertsonak beren sexu- edo genero-identitatearen arabera tratatu behar direla, hots, beren sexua edo genero sentituarekin bat datorren identitatearen arabera.
- 5. artikulua. Euskal herri-administrazioek sexu- eta genero-identitateari buruzko sentsibilizazio egokia eta jardun zuzena bermatzeko prestakuntza emango diete lege honetan aipatzen diren eremu guztietan lan egiten duten administrazio horietako langileei.
- 7. artikulua. Euskal administrazio publikoek, lehentasunez trans pertsonen eskubideen arloan lan egiten duten elkarteekin eta adingabe transexualen familia-elkarteekin lankidetzan: a) Euskadin trans pertsonak ikusarazten lagunduko dute, d) Publiko orokorrari zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak abiaraziko dituzte, aurreiritziei aurre egiteko, n) Babes berezia

emango diete tradizioagatik edo kulturagatik sexu-identitateagatik edo genero-identitateagatik diskriminazio-maila handiena izan dezaketen kolektiboetako pertsonen.

- 8.3. artikulua. Arreta berezia jarriko zaio langileak udal-laguntzako eremuetan prestatzeari, hala nola diskriminazio-, indarkeria- edo marjinazio-kasuak hautemateko lehen auzialdiko zerbitzuetan.
- 9.1 artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte administrazio-dokumentazioa, lege honetan jasotako arlo guztietan, trans pertsonen sexu- eta genero-identitaterako egokia izan dadin.

#### Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren 2/2015 FA:

- 51. artikulua. Indarkeria sexistak eta matxistak definitzen ditu: indarkeria matxista dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormatibitatea betetzen ez duten askotariko gorputzen aurka zuzentzen diren kontrol, eraso, arbuio, inposizio zuzen, estruktural eta sinbolikoko modu eta ekintza guztiak, bai eta, sistema hori urratu gabe, bertan inplizituki, botere-harremanak jasaten dituzten gorputzen aurka, hau da, emakumeen aurka, zuzentzen direnak ere. Bi kasuetan, indarkeria matxista haurtzarotik agertzen da, eta bizitza osoan irauten du. Indarkeria matxistak barne hartzen ditu indarkeria sexista eta beste indarkeria matxista mota batzuk, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia.
- 57. artikulua. 1. Gipuzkoako Foru Aldundiak bermatuko du indarkeria matxistari aurre egiten diotenei zuzendutako arreta-zerbitzuak garatuko direla. 3. Gutxieneko zerbitzuak hauek izango dira: a) Arreta sozio-juridikoko zerbitzua. b) Arreta psikosozialeko zerbitzua. c) Harrera eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua.
- 18. artikulua. Arlo horretako foru-berdintasunerako organoei esleitzen dizkie, eta, hasieran, lege honetatik eratorritako biktimei arreta emateko zerbitzuak ez dira emakumeei soilik zuzenduta egongo.

#### Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Eudelen esparru-ordenantza:

- XVII. Kap. Sexu- eta genero-aniztasuna (SGA) lantzen du, eta, zehazkiago, (47. artikulua) LGTBIfobiaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egiteko eta diskriminazio mota horren aurka borrokatuko duten ekimenak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du. Proposatutako prozesuaren edukiarekin bat datorren zerbait.

#### Iparorratza

Dokumentu honek eman nahi duen jauzi kualitatiboa da tokiko erakundeek, TBDEko (Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza) esparru orokor batean, LGTBI kolektiboarekiko foku berezi bat izatea, gorroto-gertakarien datuen errealitatetik eta araudia betetzetik abiatuta, gutxienez hau egiteko:

1. Indarkeria LGTBIfoboen arreta bermatu.
2. SGARI behar bezalako arreta eman, alderdi instituzionaletik: ikusgaitasuna, zerbitzuen egokitzapena, etab.
3. Herritarren eskubideen eta sentsibilizazioaren esparrua sustatu.
4. Aurreko guztia egiturazko desberdintasun-egoera batekin konektatu.

Aurrekoa bermatzea bateragarria da tokiko erakundeek aurkeztutako fokuratze eta ikuspegi batzuk edo guztiak askatasunez aukeratu ahal izatearekin. Eta, Gipuzkoaren kasuan, Foru Arauaren mailako elementu bereizgarri bat du, udalerri batzuentzat iradokitzailea izan daitekeena.

#### 5.3.4. Beste kategoría eta talde batzuk

Behin eta berriz ikusi dugunez, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan kategoría babestuen zerrenda kapitulu honetan orain arte jorratu duguna baino luzeagoa da. Arrazakeriak, xenofobiak eta LGBTIfobiak gorroto-gertakari gehienak biltzen badituzte ere, ez dira bakarrak. Ildo horretan, 15/2022 Legeak beste kategoría babestu batzuk ere jasotzen ditu, hala nola adina, desgaitasuna, gaixotasuna edo osasun-egoera, egoera serologikoa eta/edo patologia eta trastornoak izateko joera genetikoa, egoera sozioekonomikoa edo beste edozein egoera.

Kasu batzuetan, kategoría horietako bakoitzak arau-esparru espezifikoak ditu, nazioartekoa, Europakoa, estatukoa eta autonomikoa, baita tokikoa ere. Ikus dezagun desgaitasunaren kasua, esaterako. 2006. urteaz geroztik, Nazioarteko Zuzenbidearen eremuan, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa dago; EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aipatzen da; Irisgarritasunari buruzko Europako Lege bat dago (2019/882 Zuzentaraua); Konstituzioa erreformatu egin zen, hari buruzko modua egokitzeko; eta gai horri buruzko hainbat lege onartu dira estatu-mailan, hala nola desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua) edo 11/2023, 8/2021, 26/2011 edo 27/2007 legeak.

Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea ez dela hain argia errealitate sozial horiek “aniztasun” gisa identifikatzeko modua. Hala, gure testuinguruan, desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten eta haiek osatzen dituzten kolektibo gehienek giza eskubideen esparrua beren gain hartzen dute, eta, aldi berean, desadostasuna edo erresistentzia adierazten dute aniztasun funtzional terminoaren erabileraren aurrean. Adinekoen kasuan, adin-aniztasunak ibilbide laburra egin du oraingoz, eta gutxiengo batek landutakoa.

Egoera serologikoagatiko beste diskriminazio-kasu batzuetan, 15/2022 legeaz gain, badira babesa ematen duten beste arau-esparru batzuk, hala nola Osasun Publikoaren 33/2011 Lege Orokorra, gaixotasun-arrazoiengatiko diskriminaziorik eza bermatzen duena, eta Pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 Legea, pertsonen osasun-datuen konfidentzialtasuna babesten duena.

##### Iparorratza

Beste errealitate horien konplexutasuna hain da handia (eta une honetan ez daukagu horiei buruzko ezagutza teknikorik), ezen zaila baita dokumentu honetan beste diskriminazio-errealitate batzuen xehetasun-maila bereko azterketa egitea. Hala ere, badira diskriminazio-egoera guztietan gertatzen diren alderdiak, edo arrazismo, xenofobia, romafofia eta LGBTIfobia kasuetan aurreikusitakoari dagokionez doikuntza egingarriak behar dituztenak.

Ildo horretan, gomendatzen da, beste diskriminazio-egoera horietarako tresna espezifikorik ez dagoen guztietan, tokiko erakundeek dokumentu honetan jasotakoak erabiltzea, horiei erantzuteko behar diren egokitzapenak eginda.

## I. Eranskina. Diskriminazio-gertakarietarako tokiko protokolo-eredua

Orri zuri batetik abiatuta idazten hasteko tentazioaren eta beste udalerrri batzuetan egindako dokumentuak azkar kopia-tuz espediente bat betetzeko tentazioaren artean, adibide gisa proposatzen dugun honetatik abiatzeko aukera birtuoso dago, gure testuinguruan eskuragarri dauden baliabideetara egokitzeko eta gure tokiko errealitate bereziaren beharrei modu dimentsionatua erantzuteko behar diren egokitzapenak eginez. Hain zuzen ere, asmo horrekin gehitu da eranskin hau, adibide praktiko, egiaztatu eta estandar komenigarri bat erakusten duena.

Protokolo honen amaieran fluxugrama bat dago, Protokolo-ereduan jasotako uneak, mugarriak, erabaki-hartzeak, eragile parte-hartzaileak... laburbiltzen dituenak.

### Jarduera-protokolo honen xedea

XXXXX(e)ko Udalak udalerrian, eremu publikoan nahiz digitalean, eragile pribatu edo partikularren artean jazotako gertakari diskriminatzaile arrazista, xenofobo, roma-fobo eta LGTBIfoben aurrean izan behar duen jokabidea ordenatzea. Horren guztiaren helburua da erantzun egokia eta proportzionala ematea egintza horrek biktima-engan eta bizikidetzak komunitarioan eragin dituen ondorioei.

### Aurkibidea

1. Sarrera
2. Funtsezko kontzeptuak
3. Jarduera-printzipioak
  - 3.1. Biktima erdigunean beti
  - 3.2. Sareko lana
  - 3.3. Printzipio demokratikoetara egokitzea
  - 3.4. Erantzun instituzionalaren proportzionaltasuna
4. Proposatutako prozedurak
  - 4.1. Biktimari laguntza ematea
  - 4.2. Birbideratzeak
  - 4.3. Erantzun instituzionala
  - 4.4. Erregistro estatistikoa
  - 4.5. Beste motibazio eta delitu batzuk
  - 4.6. Diskriminazioaren aurkako entzute-sarea
  - 4.7. Protokoloaren jarraipena
5. Deribazio-, kontraste- eta koordinazio-baliabideen zerrenda
6. Eranskinak
  1. Eranskina. Web-orrirako eta udal-aldizkarirako albistea
  2. Eranskina. Adierazpen instituzionala
  3. Eranskina. Adierazpen instituzionala eta elkarretaratzerako deia



## 4. Prozedurak

Udalak gertakari diskriminatzaileen baten berri duenean, proposatutako jarduketa aktibatuko du. Ebaluazioa desberdina izango da kasu bakoitzean, biktimaren borondatearen, presaren, egoera espezifikoaren (haurren eta nerabeen interes gorena, adibidez) eta gertaeren eraginaren arabera. Jarraian, jarduketak azalduko dira, sekuentziaren arabera eta artikulatutako testu baten inguruan ordenatuta, biktimaren arreta eta erantzun instituzionala errazteko.

### 4.1. Biktimari laguntza ematea

#### *Sarbideak*

4.1.1. Udalak hainbat kontaktu-modu eskaintzen dizkie herritarrei gertakari diskriminatzaileen berri emateko, ezaugarri eta ordutegi bat baino gehiagorekin, baina horien artean koordinazio egokia bermatuta.

4.1.2. Diskriminazio-gertaerak oso izaera desberdinekoak izan daitezke, balorazio juridiko desberdinekoak, eta biktimak, edo biktimek, askotariko behar eta jarduteko borondate adieraz ditzakete. Hori dela eta, herritar guztientzako sarbide-puntu orokor, konfidentzial eta irisgarri bat eskaintzen da:

Telefonoa · Posta elektronikoa · Helbidea · Ordutegia

Udal edo toki-erakunde bakoitzean, kasuen jakinarazpena jasotzeko eremurik egokiena zein den identifikatu beharko dute. Efikaza izan ohi da beste indarkeria batzuen puntu bera izatea, hala nola indarkeria matxistena, gizarte-zerbitzuena edo giza eskubideei eta bizikidetzari lotutako arloena.

4.1.3. Harremanetarako bide hori ohiko polizia-salaketarako bideen osagarria da, horiek bereziki egokiak baitira larrialdi- eta indarkeria-egoeretan. Ez ditu ordezkatzen. Alde horretatik, sarbide-puntu hauek identifikatu dira:

Udaltzaingoa edo, bestela, gertuen dagoen Ertzaintzaren komisaria

Telefonoa · Posta elektronikoa · Helbidea · Ordutegia

4.1.4. Udaltzaingoak biktimari jakinaraziko dio eskura dituela protokolo honetako baliabideak eta, bereziki, 4.1.2 puntuan jasotako puntuarekin harremanetan jartzeko aukera duela. Hori guztia, polizia-jarduera egokiak eragotzi gabe.

4.1.5. Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiak (gorroto- eta diskriminazio-delituen unitatea edo hark eskuordetzen duena) Udaleko Alkatetzari emango dio udalerrian bere aurrean salatu diren gorroto-gertakarien berri (lehen 48 orduetan), sentsibilizazio eta salaketa sozialaren inguruko jarduerak aktibatzea balora dadin. Informazio horrek biktimaren konfidentziasunerako, intimitaterako eta datu pertsonalen babeserako eskubidea errespetatuko du.

#### *Biktimak, salatzaileak eta lurralde-eremua*

4.1.6. Gertakariaren berri biktima ez den pertsona batek ematen badu, biktimaren identitatea ezagutzeko, harekin harremanetan jartzeko eta haren esanetara jartzeko saiakera egingo da.

4.1.7. Gertakariaren biktima nor den ez badakigu ere, gertakaria modu frogagarrian jasota badago eta gertakariaren kalifikazioak eragin pertsonal eta sozial oso handia badu, 4.3. Sentsibilizazio eta salaketa soziala atalean aurreikusitako jarduerak aktibatu ahal izango dira.



4.1.8. Gertakaria udalerriko herritar bati gertatu bazaio, baina udalerritik kanpo gertatu bada, nola jokatu baloratuko da, gertakariaren, inpaktuaren, gertaeren dataren, inguruabarren eta abarren arabera.

4.1.9. Biktima adingabea izanez gero, haurraren edo nerabearen interes gorena bermatuko da, eta, ildo horretatik, indarkeriazko gertakariak direnean, berehala emango zaio horren berri Ertzaintzari, eta haurraren edo nerabearen egoerarako egokiak diren babes-neurri guztiak hartuko dira.

4.1.10. Gertakarian genero-indarkeriatzat edo indarkeria matxistatzat har daitezkeen zantzuak edo gertaerak badaude, eremu horretako tresna eta mekanismo espezifikoak ere aktibatuko dira.

#### *Harrera eta lehen arreta*

4.1.11. Biktima izan daitekeenari arreta, informazioa eta orientazioa udal-teknikariek emango diote, 4.1.1. puntuan zehaztutako arloak egingo duen banaketaren arabera:

4.1.11.1. Motibazio arrazista, xenofobia edo romafoboa duten gertakarien kasuan, XXXXX(e)ko teknikariak.

4.1.11.2. LGTBIfobia den gertakariaren bat gertatuz gero, XXXXX(e)ko teknikariak. Puntu honetan baloratuko da protokolo hauek lehentasunez edo aldi berean aktibatzea:

4.1.10.2.1. XXXXXko Tokiko Protokoloa.

4.1.11.3. Gertakariaren arrazoa askotarikoa bada edo interseksionalitatea hautematen bada, XXXXX eta XXXXX(e)ko langileek batera baloratuko dituzte.

Euskal toki-erakundeek dituzten baliabideen artean aldeak daude, eta, beraz, ezin dira identifikatu guztientzat balio duten figurak. Alde horretatik, immigrazioko, aniztasuneko edo antzeko teknikariak dauden kasuetan, motibazio arrazista, xenofobia edo romafoboa duten kasuetarako egokia izan daiteke. Kasu LGTBIfoboetarako, baliteke egokiagoak izatea aniztasunari edo emakume eta gizonen arteko berdintasunari lotutako teknikariak.

Bestalde, tokiko erakunde batzuek protokolo espezifikoak dituzte, LGTBIfobia kasuak osorik edo partzialki artatzen dituztenak. Garrantzitsua da protokoloen arteko koherentzia egokia bermatzea, gainjartzeak saihestuz.

4.1.12. Gertakari arrazista, xenofobo, romafobo edo LGTBifobo baten berri emateko Udalarekin harremanetan jartzen den pertsona oro behar bezala artatu behar da. Horrek esan nahi du arreta pertsonalizatua eman behar zaiola, bere beharretara egokitua eta, ahal den neurrian, arretaren jarraitutasuna eta osotasuna bermatzen saiatuz, nahiz eta administrazio, eragile edo sistema bat baino gehiago inplikatu. Gertakariari buruzko informazio guztia bildu behar da (data, lekua, ordua, lekukoak, halakorik balego...), haien bizipena eta kontakizuna zalantzan jarri gabe, eta emandako informazio guztiaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatuz. Biktimari bere burua identifikatzeko erabiltzen dituen izen eta sexu/generoagatik emango zaio tratua, bere dokumentazioan agertzen direnak edozein direla ere.

4.1.13. Balizko biktimaren une pertsonalari egokitutako informazio erabilgarria eskainiko da. Oinarrizko euskarri emozionala, hala behar izanez gero; informazioa emango zaie beren

eskubideei buruz, eskubide horiek egikaritzeko baldintzei buruz..., haien erabakitze gaitasuna kontuan hartuta eta haien erabakia errespetatuta, edozein dela ere.

## 4.2. Birbideratzeak

4.2.1. Aztertuko den lehenengo erabakia izango da biktimari eman beharreko arretaren barruan urgentzia sortzen duten alderdi batzuk dauden ala ez baloratzea. Alde horretatik, arreta, informazioa eta orientazioa eman duten udal-teknikariek bi aukera dituzte lehen birbideratzea egiteko:

4.2.1.1. Kalte fisiko edo emozionalak izanez gero, hurbilen dagoen Osakidetzako osasun-zentrora. Garrantzitsua da lesioak adierazteko txosten mediko bat izatea.

4.2.1.2. Udaltzaingoaren edo Ertzaintzaren komisariara, Udalari jakinarazten zaion gertakariak balizko delitu larriak edo indarkeriazko ekintzak dakartzanean. Birbideratze hori arreta medikoa jaso ondoren egiten bada, garrantzitsua da lesioei buruzko txostena eranstea. Nolanahi ere, poliziaren aurrean egindako salaketan argi eta garbi jaso beharko da izaera arrazista, xenofobia, romafoboa edo LGTBIfobia, dauden edo ondoriozta daitezkeen hitzen, esamoldeen eta beste polaritate-adierazle batzuen arabera bilduta.

Irregularitasun administratiboko egoeran dagoen atzerritar bat birbideratuz gero, azaldu Udaltzaingoak eta Ertzaintzak ez dutela eskumenik Atzerritartasun arloan eta ez dela kanporatze-espedienterik martxan jarriko.

4.2.2. Tokiko teknikariek dituzten aukeren eta biktimak adierazten dituen beharren eta interesen arabera, lehenengo birbideratze horietan akonpainatu egingo da beti.

4.2.3. Arretako bigarren erabakia agente diskriminatzailearen izaera identifikatzea da. Txostena publikoa denean, Arartekora bideratuko da. Pribatua bada, arreta ematen jarraituko da

4.2.4. Hirugarren erabakiak zerikusia du zerbitzu espezifikoak eta/edo espezializatuak ematearekin

4.2.4.1. Gertakariak zuzenean edo zeharka eragindako zaugarritasun sozialeko egoerak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan landuko direnak.

4.2.4.2. Laguntza psikologikoa.

4.2.4.3. Orientazio juridikoa.

4.2.5. Udalak ez badu baliabide propiorik aipatutako zerbitzuak ematen direla ziurtatzeko, biktimarekin adostuta baloratuko du dauden beste zerbitzu eta baliabide publiko, sozial eta pribatu batzuetara bidaltzea, bere eskubideak egikaritzen laguntzeko. Horien artean:

4.2.5.1. Biktimei Laguntzeko Zerbitzua.

4.2.5.2. Eraberean, Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sarea.

4.2.6. Atal honetan aurreikusitako birbideratze guztiek Udala baliabide eta zerbitzu bakoitzarekin zuzenean harremanetan jartzea ekarriko dute, kasua ahalik eta hobekien eta arinen jasotzen dela bermatzeko. Behar denean, zuzenean lagunduko zaio, birbiktimizazioak saihestuz eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Birbideratzeak baliabideekin harreman zuzena izanez egin behar dira, kasuaren harrera arina bermatzeko, birbiktimizazioak saihestuz eta konfidentzialtasuna bermatuz, baina helbururako beharrezkoa den informazio minimoa emanez, nori eta zertarako ematen zaion baloratuta.

### 4.3. Erantzun instituzionala

#### *Gertakariaren kontrastea eta balorazioa*

4.3.1. Herritarrak sentsibilizatzeko jarduera instituzionalak aktibatu aurretik, gertakaria aldeztatik aurretik egiaztatzea behar da, ondoren zehazten den moduan.

4.3.2. Kontrastea Alkatetzak egingo du (edo hark eskuordetutako zinegotziek, gai hauetako batzuetan eskumena dutenek: Giza Eskubideak, Bizikidetzak edo Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasuna), aurreko faseetan parte hartu duten udal-teknikariek egindako txosten batean oinarrituta. Txosten horretan, honako hauei buruzko irizpideak eta informazioa ematen saiatuko dira:

4.3.2.1. Gertakariaren egiazkotasun-zantzuak. Salaketa egonez gero, polizia-aren informazioa hartuko da oinarritzat.

4.3.2.2. Gertakariaren arrazoiari buruzko zantzuak arrazismoa, xenofobia, roma-fobia, LGTBIfobia eta diskriminazio anizkoitza. Horretarako, polarizazio-adierazlearen analisi bat erabiliko da<sup>30</sup>.

4.3.2.3. Gertakariak biktima-arengan duen eragina eta bizikidetzak, 4.3.5. paragrafoan jasotako sailkapenari dagokionez.

4.3.3. Udalak baliabide desberdinen bidez eta eragile desberdinekin egin dezake kontraste hori:

4.3.3.1. Berean. Batez ere gorrotozko diskurtsoarekin lotuta daudenetan, diskriminazio-izaerari buruzko zalantzak sortzen dituztenetan edo udal-erriko bizikidetzak komunitarioari eragiten diotenetan.

4.3.3.2. Udaltzaingoa eta Ertzaintza. Berezi, delitu astunen gertakarietan edo indarkeriarekin izandakoetan. Alkatetzak zuzenean komunikatuko dio Ertzaintzaren Idazkaritzari Nagusiari (gorroto- eta diskriminazio-delituen unitatea) edo hark eskuordetzen duenari.

4.3.4. Udalak biktima-aren onespenez espezializatu eskatuko du erantzun instituzionalik aktibatu aurretik. Baimen hori ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke, baina, nolahi ere, argia, kontzientea eta irmoa izan behar du. Argi adieraziz onespenez ematen duela. Behin betiko onespenez dela irmo adierazi behar du, eta horrek ez dio biktima-aren iritzia edozein unetan aldatzeko aukerari kalterik egin behar. Jabetua da, halaber, zehatz-mehatz dakiela zer jardura aktibatuko diren, eta hori jendaurreko erakusketa potentziala dela, nahi ez bada ere.

4.3.5. Erakundearen erantzuna bideratze aldera, eta zigor-balorazioa alde batera utzita, Udalak gertakariaren eragina ebaluatuko du, bai biktima-aren ikuspegitik, bai komunitateko bizikidetzan duen eraginaren ikuspegitik. Indarkeria-mota horiek eta horien ondorioak testuinguruaren eta gertatzen diren moduaren arabera dira; horregatik, fokua ez da jarri behar indarkeria horiek adierazteko moduan bakarrik, biktima-aren eta bizikidetzan eragiten

<sup>30</sup> Id. 6.



duten inpaktua ere aintzat hartu behar da. Protokolo honen helburua ez da indarkeriak mailakatzea, eragin horien ebaluazioan orientatzea baizik, eta, horretarako, irizpide hauek proposatzen ditu:

#### 4.3.5.1. Eragin moderatua

- a) Pintada puntualak, partikular jakin baten kontrakoak ez direnak eta anonimoak.
- b) Partikularren arteko ahozko erasoak, komunitatean eraginik ez dutenak.
- c) Establezimenduetan sartzea ukatzea.
- d) Partikularren arteko kontaktu fisikoa, motibazio diskriminatzailea duten gatazken testuinguruan.
- e) Inpaktu handikoak edo oso handikoak ez diren eta Zigor Kodean oinarrituta balizko delitutzat har ez daitezkeen bestelako gertakariak.

#### 4.3.5.2. Eragin handia

- a) Kolektiboak publikoki zirikatzeak eta umiliatzeko kanpaina publikoak (hauteskunde testuingurutik kanpo).
- b) Partikularren arteko ahozko erasoak, komunitatean eragina dutenak.
- c) Norbanakoen arteko eraso fisikoak.
- d) Pertsona-taldeak arteko eraso fisikoak, eragiten diren lesioak edozein direla ere.
- e) Ondasunak suntsitzea edo haiei eraso egitea, pertsona edo talde jakin batzuen aurkako pintada iraingarriak, estigmatizatzaileak edo umiliagarriak barne.
- f) Eragin moderatuko gertakariak, diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak biltzen dituztenak.
- g) Zigor Kodean balizko delitutzat jotzen diren baina eragin oso handikotzat jotzen ez diren beste gertakari batzuk.

#### 4.3.5.3. Eragin oso handia

- a) Kolektiboak publikoki zirikatzeak eta umiliatzeko eta haien aurkako indarkeria bultzatzeko kanpaina publikoak (hauteskunde-testuingurutik kanpo).
- b) Denboran zeharreko jazarpen jarraitua.
- c) Eraso fisikoak, bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesioekin.
- d) Diskriminazio anizkoitzeko inguruabarrak biltzen dituzten gertakari larriak. Bestelako gertakariak, halakotzat hartzen badira.

4.3.6. Eragin oso handiko kalifikazioa jaitsi ahal izango da, eta handia edo moderatua izan daiteke, hainbat inguruabar objektibotan oinarrituta eta kontsultatutako agenteen irizpidearen arabera hala egitea gomendatzen denean. Gertakariaren biktimari horren berri emango zaio.

#### *Ekiteko konpromisoa*

4.3.7. Gertakarien eta inguruabarren motibazioa, egiazkotasuna eta larritasuna behar bezala egiaztatu ondoren, Alkateak (edo hark eskuordetutako zinegotziak) jarduera instituzional

hauek modu adostuan eta koordinatuan aktibatzea proposatuko die udal-taldeei eta arlo sektorialean eskumena duten udal-organoei, hala nola kontseiluei, mahaiei edo lantaldeei eta tokiko gizarte-eragileei:

- 4.3.7.1. 4.3.5.1.a atalean jasotako gertakarien kasuan, ezabatu egingo dira pintadak, titulartasun pribatukoak badira, pintadak agertu diren jabetzaren baimenarekin. Zuhurtziaz egingo da, mezu diskriminatzailearen edukia gehiago ez sustatzeko eta ez zabaltzeko.
- 4.3.7.2. 4.3.5.1 atalean jasotako gainerako gertakarien kasuan, hitzezko ohartarazpen pribatu bat egingo zaio ustezko biktimari, eta lan komunitarioko jarduerak aktibatuko dira partikularren artean, horiek horretan ados badaude. Horretarako, lehentasunez, Eraberean Sarea bezalako baliabideetarako birbideratzea egingo da.
- 4.3.7.3. 4.3.5.2.a, b, c eta f atalean jasotako gertakarien kasuan, berri bat argitaratuko da web-orrian eta udal-aldizkarian, 1. Eranskinaren arabera, gertakariaren berri izan eta hurrengo 72 orduetan. Udalerriko atzeritarren jatorri-gune nagusietako hizkuntzetara itzuliko da albisteak.
- 4.3.7.4. 4.3.5.2.d, e eta g atalean jasotako gertakarien kasuan, tokiko bozeramaileen batzordean onartuko da, gertakariaren berri izan eta 72 orduko epean, 2. Eranskinaren arabera adierazpen instituzional bat, zeina herritarrei zabalduko baitzaie Udalaren web-orriaren bidez. Udalerriko atzeritarren jatorri-gune nagusietako hizkuntzetara itzuliko da albisteak.
- 4.3.7.5. 4.3.5.3.b eta d atalean jasotako gertakarien kasuan, 4.3.7.4 atalean adierazitako prozedura bera baliatuko da.
- 4.3.7.6. 4.3.5.3 atalean jasotako gainerako gertakarien kasuan, adierazpen instituzional bat onartuko da tokiko bozeramaileen batzordean, gertakariaren berri izan eta hurrengo 72 orduen barruan, 3. Eranskinaren arabera adierazpen instituzional bat, eta herritarrei zabalduko zaie Udalaren web-orriaren bidez. Halaber, hurrengo egunean, 19:00etan, elkarretaratzea egingo da udaletxearen aurrean, goiburu honekin: "XXXtarrok ez dugu onartzen arrazakeriarik / romafobiarik / LGTBifobiarik. Aniztasunean bizikidetzaren alde!". Leloa udalerriko atzeritarren jatorri-gune nagusietako hizkuntzetara itzuliko da.
- 4.3.7.7. Gertakaria udalerriko edo udalerriko auzoetako bateko jai herrikoi edo patronalen ospakizunaren testuinguruan gertatzen bada, jai-batzordearekin (edo antzeko erakunde batekin) batera baloratuko da 4.3.7.3, 4.3.7.4, 4.3.7.5 eta 4.3.7.6 ekintzei ospakizunen etenaldi partziala edo erabatekoa gehitzeko aukera, edo ospakizunetan programatutako ekitaldiren bat bertan behera uzteko aukera, edo jai-eremu edo -esparruaren barruan elkarretaratzea egiteko aukera.

#### *Komunikazio publikoa*

- 4.3.8. Hainbat arrazoi direla medio (larritasuna, gizartean edo hartzaileengan duen eragina...) komunikabideek gertakariari buruzko informazioa ematen dutenean, ezinbestekoa da Udalak komunikatuetatik, berrietatik, adierazpen instituzionaletatik edo 4.3.7.3 puntuan eta hurrengoetan jasotako prentsa-oharretatik haragoko komunikazio-erantzuna ematea.
- 4.3.9. Adierazitako komunikazio-erantzuna, ahal den neurrian, udal-taldeekin eta arlo horretan eskumena duten udal-organoekin (adibidez, kontseiluak, mahaiaik edo lan-taldeak) eta tokiko

gizarte-eragileekin informatzea eta adostea komeni da. Biktimaren konfidentzialtasun- eta intimitate-eskubidea errespetatuz emango da informazio hori.

4.3.10. Nolanahi ere, komunikazio-erantzuna gertakariaren kudeaketan eskumena duten beste erakunde batzuekin koordinatu beharko da, hala nola Ertzaintzarekin (Idazkaritza Nagusiaren bidez) eta Eusko Jaurlaritzako Belaunaldien arteko Aniztasun, Bizikidetza eta Elkartasunerako Zuzendaritzarekin (edo hura ordezkatzeko duen erakundearekin edo hark eskuordetzen duenarekin), ahalik eta erantzun indartsu eta efikazena emateko.

4.3.10.1. Aniztasunaren, Bizikidetzaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Zuzendaritzak (edo hura ordezkatzeko duenak edo hark eskuordetzen duenak) laguntza teknikoa emango dio Udalari, ahal duen neurrian, baldin eta Udalak aurreikusten badu bere baliabideekin ezin izango diela erantzun komunikabideen eskaerei.

4.3.11. Komunikazio-erantzunak ezin izango du inola ere biktimari edo gertakariari buruzko daturik eman edo filtratu, nahita edo nahi gabe, ikerketa arriskuan jartzen badute, eta biktimaren konfidentzialtasunerako eta intimitaterako eskubidea errespetatzen dela bermatu beharko du. Ez da eduki edo ikuspegi sentsazionalistarik erabili behar.

4.3.12. Udalak eskaintzen duen komunikazio-erantzunak hiru dimentsio izan behar ditu beti:

4.3.12.1. Erakundeek eta herritarrek biktima akonpainatzen dutela adieraztea, bai eta gertaerak biktimaren kolektiboari eragiten dizkion frustrazio-, min- eta beldur-sentimenduei ere. Balioan jarriko da erakundearen arteko koordinazioa, protokolo horiek eta bestelako laguntza-zerbitzu eta -baliabideak egotea, eta gertakari guztiak salatzeko deia egingo da.

4.3.12.2. Gertakaria eragin duen gorroto espezifikoa (arrazakeria, xenofobia, romafobia edo LGTBIfobia) deslegitimazio soziala, argi eta garbi adieraziz bere sustraia, biktimarioaren erantzukizun eskusiboa, eta ez direla gertaera bakanak, baizik eta aurre egin behar zaion arazo sozial bat.

4.3.12.3. Herritarrek orientatzea, giza eskubideen testuinguruan errespetuzko bizikidetza eta bizikidetza inklusiboa eraiki dezaten. Adieraziko da horrelako gertaerek herritar guztiak interpelatzen dituztela eta, dimentsio soziala eta egiturazkoa dutenez, horiei aurre egiteko konpromiso kolektiboa eta indibiduala eskatzen digutela.

4.3.13. Komunikazio-erantzunak une oro saihestuko du biktimaren ezaugarri, ekintza edo jokabideak azpimarratzea, hala nola janzkera, identitatea, lanbidea, osasun-egoera eta abar, horiek biktimaren estereotipatzea edo erruduntasun-nozioak indartzen badituzte.

4.3.14. Biktima eta biktimarioa identifikatzeko aukera ematen duen daturik eta inguruabarrik ere ez da aipatuko.

4.3.15. Egin behar izanez gero, biktimaren izena eta bere burua identifikatzeko erabiltzen den sexu-generoa erabiliko dira, salbuespenik gabe, haren dokumentazioan ageri dena gorabehera.

4.3.16. Gertakaria ikertzen ari denean edo diskriminatzaile edo gorroto kalifikazioari dagokionez ondorioak ziurrak ez direnean, atal honetan aipatutako gainerako komunikazio-esparruez gain, Udalak adieraziko du gertakaria argitzen laguntzen ari dela beste erakunde publiko batzuekin koordinatuta, langile espezializatuak daudela lan hori egiten, ahalik eta zuhurren jokatu behar dela erabiltzen den informazioaren aurrean, harik eta hura berresteko

erabateko segurtasuna izan arte, eta egoera horren atzean espekulazioak jasaten dituzten pertsonak eta familiak daudela.

#### 4.4. Erregistro estatistikoa

4.4.1. Udalak izan dituen gorabeheren berri emango zaie dagozkien instantziei, erregistro estatistikoa egin dezaten. Biktimaren konfidentziasun- eta intimitate-eskubidea errespetatuz emango da informazio hori.

4.4.1.1. Gertakariak Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren edo Epaitegiaren aurrean salaketa jartzea badakar, horiek ofizioz sartuko dute beren estatistiketan.

4.4.1.2. Gertakariak Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren edo Epaitegiaren aurrean salaketarik ez badakar, horren oinarritzko informazioa Eraberean Sarera bidaliko da, urteko txostenean txerta dezan.

Gertakari horiek bereziki babestutako datuak eragin ditzaketenez, arreta handiz tratatu beharko dira. Alde horretatik, biktimaren adostasuna ezinbesteko baldintza da, eta hari jakinaraziko zaio zer datu jasoko diren, zer helbururekin, zer eperekin eta nola zuzendu eta ezabatuko diren.

Bi maila bereiztea gomendatzen da:

A) Arretaren barne-espedientea: biktimarekin harremanetan jartzeko gutxieneko datuak, komunikatzeko lehentasunak eta funtsezko egitateak (data, tokia, deskribapen laburra, itxurazko motibazioa, kalteak, beharrak, birbideratzeak, kasuaren egoera).

B) Erregistro estatistikoa (ezin da identifikatu): aldagai agregatuak edo pseudonimizatuak (tipologia, motibazioa, eremua, data, eremua, erantzun-mota aktibatua, birbideratzeak, etab.), biktima edo hirugarrenak zuzenean edo zeharka identifikatzeko aukera ematen duen edozein datu saihestuz.

Nolanahi ere, xede zehatzerako behar-beharrezkoak diren datuak baino ez dira jasoko, eta ustezko erantzuleari buruzko gehiegizko informazioa sartzeari saihestuko da, batez ere salaketarik edo jardun formalik ez badago.

Kanpoko erregistro estatistikorako, lehenespenez, datu anonimizatuak edo pseudonimizatuak bidaltzea gomendatzen da; salbuespen gisa identifikazio-datuak sartu behar badira, oinarri juridiko egokia eta berme indartuak justifikatu eta artikulatu behar dira.

Azkenik, kontserbazio-egutegi berezia ezarriko da arreta-espedienteetarako (arretarako eta erantzukizun administratibo/legal aplikagarrietarako behar den denborarako soilik) eta erregistro estatistikoetarako, zeinak modu erantsi anonimo batean geratuko baitira.

#### 4.5. Beste motibazio eta delitu batzuk

Diskriminatutako kolektiboen zuzeneko indarkeria ez da soilik delitu eta gertakari diskriminatzaile edo gorroto-gertakari gisa agertzen. Zaurgarritasun handiagoa dago delitu-mota jakin batzuen biktima izateko, horien motibazioa nahitaez edo gehienbat fobikoa edo diskriminatzailea ez den kasu batzuetan ere. Horrelako delituek, batzuetan, eragin psikosoziala sor dezakete, gorroto-delituek sortutako antzekoa, biktimarengan eta komunitateetan.

Gorroto-delituen salbuespenezko esparrua diskriminaziozko motibazio hori ez duten delituetara zabaltu gabe, gomendagarria da protokolo honetan jasotako esparru batzuk aprobetxatzea eragiten dituzten ondorioei erantzuteko.



Horrelako delituen kasuan, balioetsiko da ea egokia den protokolo honetan aurreikusitako jarduketa batzuk aktibatzea akonpainamendu sozialaren, sentsibilizazioaren eta komunikazio publikoaren arloetan, beste mota batzuetako errealitate kriminal horien berariazko errealitatera egokituz.

Era berean, protokolo honetan jasotako motibazioek Euskadin salatzen diren gorroto-gertakarien ehuneko handi bat jasotzen duten arren, ezin da ahaztu beste pertsona-talde batzuk ere diskriminatuak direla erlijio-sinesmenengatik, adinagatik, gaitasun fisikoagatik, intelektualagatik, egoera sozioekonomikoagatik, osasun-egoeragatik, egoera serologikoagatik eta abarregatik.

Ahal den neurrian, Udalak gorrotozko beste arrazoi horiei erantzuteko konpromisoa hartzen duela adierazten du eta, horretarako, protokolo honen edukian beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditu.

#### 4.6. Diskriminazioaren aurkako entzute-sarea

Udalak diskriminazioaren aurka konprometitutako eragile publiko, sozial eta pribatuen tokiko sarea sustatuko du. Sare horren helburu nagusia sare komunitarioa kapilarizatzea da, diskriminazio- edo gorroto-gertakari orok eta biktima orok entzute-gunek izan ditzaten, protokolo honetan ezartzen diren baliabideetara bideratu ahal izateko.

Erantzukizun- eta konpromiso-maila desberdina izango da agentearen titulartasunaren, berdintasun-esparrutik hurbil egotearen edo profesionalizazio-mailaren arabera.

Eragile horiek berariazko bereizgarriekin identifikatu ahal izango dira, eta bereizgarriok protokolo honen bidez sustatuko dira, bai balizko biktimek ikusi ahal izan ditzaten, bai bizikidetzaren eta giza eskubideen aurkako horrelako jokabideen aurkako borrorak eragiten duen gizarte-akordio zabala erakusteko.

Bereizgarri hori eskuratu ahal izateko, agente bakoitzak bere konpromisoa egiaztatu beharko du, urtero sarearen bilera batera joanez eta Udalak gaiari buruz ematen duen prestakuntza espezifikoren batera joanez.

#### 4.7. Protokoloaren jarraipena

Udalak gorroto eta diskriminazio gertakarien jarraipen-mahai bat eratuko du, gutxienez urtean behin bilduko dena, jarduera memoria bat egiteko eta protokoloan hobekuntza-ekintzak egiteko aukera ebaluatzeko.

Mahai hori honako hauek osatuko dute: politikariek (Alkatetzak edo hark eskuordetutako zinegotziak), kultura-aniztasuneko, berdintasuneko eta gizarte-zerbitzuetako tokiko teknikariek, Udaltzaingoaren ordezkari batek eta diskriminazioaren aurkako tokiko entzute-sarearen bi ordezkari, eta gai horretan adituak diren eta udalerritik kanpo dauden beste agente batzuk gonbidatu ahal izango dituzte bertara, behatzaile gisa.

### 5. Birbideratze, kontraste eta koordinazioko baliabideen zerrenda

Hona hemen protokolo honetan aipatutako eragile nagusiekin harremanetan jartzeko moduak eta ordutegiak:

#### Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusia

Telefona, EZ larrialdiak: 900 103 584

WhatsApp: 677 999 555

SMS: 677 999 555

Larrauri Mendotxe Bidea 18

48950 Erandio, Bizkaia

#### Eusko Jaurlaritzako Aniztasunaren, Bizikidetzaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Zuzendaritza

Donostia/San Sebastián kalea 1

01010 Vitoria/Gasteiz

Telefona: 945 016 62



## ▪ Biktimei Laguntzeko Zerbitzua

### Barakaldo

Bide Onera plaza z.g., solairuartera  
48901 Barakaldo, Bizkaia  
Telefona: 944001031  
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara  
E-maila: [SAV48BK1@justizia.eus](mailto:SAV48BK1@justizia.eus)

### Vitoria/Gasteiz

Justizia Jauregia  
Gasteiz Etorbidea 18  
01008 Vitoria/Gasteiz  
Telefona: 945 004 895 - 900 180 414  
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara

## ▪ Eraberean Sarean

### Bizkaian:

- » CITE-CCOO Bizkaia (944 243 424) [citebizkaia@ccoo.eus](mailto:citebizkaia@ccoo.eus)
- » Errespetuz (675 459 317) [errespetuz@gmail.com](mailto:errespetuz@gmail.com)
- » Kale Dor Kayiko (691 674 414) [eraberean@kaledorkayiko.org](mailto:eraberean@kaledorkayiko.org)
- » Nevipen (946 526 989) [nevipen@nevipen.org](mailto:nevipen@nevipen.org)
- » Anitzak: (613 021 193) [anitzakbilbao@gmail.com](mailto:anitzakbilbao@gmail.com)
- » AMUGE: (946 038 557) [eraberean.amuge@gmail.com](mailto:eraberean.amuge@gmail.com)
- » Bizigay: (605 724 839) [bizigay@gmail.com](mailto:bizigay@gmail.com)

## ▪ Berean

Manuel Allende 10  
48010 Bilbo  
Telefona: 946 546 674  
Ordutegia: 09:00etatik 15:00etara  
[berean@euskadi.eus](mailto:berean@euskadi.eus)

## ▪ Berdindu

Bilbo  
Ramón y Cajal 2, behe. PK.: 48014  
Tlf: 617 813 087 eta 900 840 128  
E-maila: [berdindu.bizkaia@euskadi.eus](mailto:berdindu.bizkaia@euskadi.eus)

Vitoria/Gasteiz

### Bilbo

Ibáñez de Bilbao 3, beheko solairua  
48001 Bilbo, Bizkaia  
Telefona: 900400028 - 944016487  
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara  
E-maila: [sav481@justizia.eus](mailto:sav481@justizia.eus)

### Donostia/San Sebastián

Justizia Jauregia  
Teresa de Calcuta Plaza 1  
20012 Donostia/San Sebastián  
Telefona: 943 000 768 - 900 100 928  
Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara

### Gipuzkoan:

- » AGIFUGI (943 248 086) [asociacion@agifugi.org](mailto:asociacion@agifugi.org)  
[eraberean@agifugi.org](mailto:eraberean@agifugi.org)
- » Gehitu (943 451 722) [infasis@gehitu.org](mailto:infasis@gehitu.org)  
[info@gehitu.org](mailto:info@gehitu.org)
- » SOS Arazismoa (943 321 811) [eraberean@mugak.org](mailto:eraberean@mugak.org)

### Araban:

- » Aldarte (945 257 077) [aldarte@aldarte.org](mailto:aldarte@aldarte.org)
- » ZEHAR Errefuxiatuekin (945 266 805) [eraberean@zehir.eus](mailto:eraberean@zehir.eus)
- » Gurutze Gorria (945 222 222) [eraberean@cruzroja.es](mailto:eraberean@cruzroja.es)

### Donostia/San Sebastián

Mikeletes 20  
Telefona: 688 769 865 eta 900 840 128  
E-maila: [berdindu.gipuzkoa@euskadi.eus](mailto:berdindu.gipuzkoa@euskadi.eus)

Ramiro de Maeztu 3, behea  
Tlf: 617 810 471 eta 900 840 128  
E-maila: [berdindu.araba@euskadi.eus](mailto:berdindu.araba@euskadi.eus)

## 6. Eranskinak

### 1. Eranskina. Udal web-orrirako albistea

Gure udalerrian izan diren azken gertakarien aurrean, XXXXX(e)ko Udalak hau nahi du:

- Talde politikoek aho batez eta irmotasun osoz adierazi jarrera, jokabide eta ekintza diskriminatzaileak, kasu honetan arrazista eta xenofobo/romafobo/LGTBifoboak, guztiz onartezinak direla eta gure gaitzespen osoa dutela.
- Gure herriko kultur aniztasunean, jatorrien, sinesmen erlijiosoen, identitate sexu-generikoen, orientazio eta praktika sexualen bizikidetzaren aldarrikatzea. Gure gizartea askotarikoa zen, da eta izaten jarraitu nahi du. Gero eta gehiago. Eta horrek harro sentiarazten gaitu, eta guztiontzat oparotasun handiagorako aukera da.
- XXXXXko bizilagunen arteko loturak eta harreman onak estutzeko deia egitea. Gehiago partekatzea, elkarri gehiago entzutera, geure burua gehiago errespetatzera eta hori guztia estereotipo, aurreiritzi eta diskriminaziorik gabe egitera.

XXXXX askotariko baten alde! Berdinen arteko elkarbizitzaren alde!!

### 2. Eranskina. Adierazpen instituzionala

XXXXX(e)ko Udaletik, gure herrian azken egunotan izan diren gertakarien berri ematen dugu eta ezin gara geratu herritarrei mezu argi bat bidali gabe.

Udal honetan gure konpromisoa berretsi nahi dugu diskriminazio-mota guztiak eta, bereziki, arrazakeria eta xenofobia/romafobia/LGTBifobia desagerrarazteko. Ildo horretan, sexu- eta genero-aniztasunean kulturen arteko bizikidetzaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Zehazki, beste pertsona batzuen aurka erabilitako indarkeria oro gaitzesten dugu, beste larri-kolore bat, beste jatorri geografiko bat, beste kultura bat edo beste sinesmen erlijioso batzuk, edo bestelako identitate, adierazpen, orientazio edo praktika sexualak izateagatik eragindakoa.

Era berean, XXXXXko auzokideen arteko loturak eta harreman onak estutzeko deia egiten dugu. Gehiago partekatzea, elkarri gehiago entzutera, geure burua gehiago errespetatzera eta hori guztia estereotipo, aurreiritzi eta diskriminaziorik gabe egitera.

### 3. Eranskina. Adierazpen instituzionala eta elkarretaratzerako deialdia

XXXXX(e) ko Udaletik, gure gaitzespen osoa adierazi nahi dugu, joan den 20XX(e)ko X(a)ren X(e)(a)n [azalpen txiki bat, xehetasun zehatzetan sartu gabe] izandako gertakarien aurrean.


Udal honetan gure konpromisoa berretsi nahi dugu diskriminazio-mota guztiak eta, bereziki, arrazakeria eta xenofobia/romafobia/LGTBifobia desagerrarazteko. Ildo horretan, sexu- eta genero-aniztasunean kulturen arteko bizikidetzaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Zehazki, beste pertsona batzuen aurka erabilitako indarkeria oro gaitzesten dugu, beste larru-kolore bat, beste jatorri geografiko bat, beste kultura bat edo beste sinesmen erlijioso batzuk, edo bestelako identitate, adierazpen, orientazio edo praktika sexualak izateagatik eragindakoa.


Era berean, dei egiten dugu XXXXXko bizilagunen arteko loturak eta harreman onak estutzeko. Gehiago partekatzeraz, gehiago entzuteraz, gehiago errespetatzera eta hori guztia estereotipo, aurreiritzi eta diskriminaziorik gabe egitera.

Azkenik, Udalak bat egin du eta hala egiteko eskatzen die herritar guztiei, (gertatu dena) gaitzesteko elkarretaratze-deialdiarekin: Xko X egunean, 19:00etan, Udaletxeko plazan.

Fluxugrama honek modu grafikoan laburbiltzen ditu protokolo-ereduan jasotako uneak, mugarriak, erabaki-hartzeak, eragile parte-hartzaileak...:







## II. Eranskina. Nazioarteko, Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudien zerrenda

### A. Mundu-mailako esparru unibertsala

#### A.1. *Tratatuak*

- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (2.2, 3, 14 eta 26. artikulua)
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (2.2 eta 3 artikulua)
- Arraza-diskriminazioa mota guztiak ezabatzeko nazioarteko konbentzioa (2. artikulua)
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (2. artikulua)
- Langile Migratzaile Guztien eta horien Senideen Eskubideak Babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1, 7, 18.1, 25, 27, 28, 43, 45.1, 48, 55 eta 70. artikulua)
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzei buruzko Konbentzioa (2, 3, 5 eta 16 artikulua)

#### A.2. *Adierazpenak*

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (2. eta 7. artikulua)
- Haurren Eskubideen Adierazpena (1. printzipioa)
- Teherango aldarrikapena, Teherango Giza Eskubideen Nazioarteko Konferentzia, 1968ko maiatzaren 13a (esp. 1, 2, 5, 8 eta 11)
- Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa, Giza Eskubideen Munduko Konferentzia, 1993ko ekainaren 14tik 25era (I.15; I.19; I.27; I.30; II.B.1, 19-24 artikulua; II.B.2, 25-27 artikulua)
- Gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso edo linguistikoetako pertsonen eskubideei buruzko adierazpena (2., 3., 4.1. eta 5. artikulua)
- Arrazismoa, Arraza-diskriminazioa, Xenofobia eta horiekin lotuta dauden Intolerantzia moduen aurkako Munduko Konferentzia, Egintza Programa, (Adierazpenaren paragrafoak: 1, 2, 7, 9, 10, 16, 25, 38, 47, 48, 51, 66 eta 104)
- Irakaskuntza Esparruko Diskriminazioen aurkako Borrokari buruzko Konbentzioa (3. artikulua)
- Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruzko adierazpena (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. artikulua)
- Bizi diren herrialdeko nazionalak ez diren pertsonen giza eskubideei buruzko adierazpena (5.1.b eta 5.1.c artikulua)
- Erlijioan edo Sinesmenetan Oinarritutako Intolerantzia eta Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzei buruzko Adierazpena (2. eta 4. artikulua)
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen araudi espezifikoak
- Laneko Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei eta haien Jarraipenari buruzko Adierazpena (2.d)
- 97. Hitzarmena Langile Migratzaileei buruz (berrikusia) (6. artikulua)
- 111. Hitzarmena Enpleguaren eta Okupazioaren arloko Diskriminazioari buruzkoa (1. artikulutik 3.era)
- 143. Hitzarmena Langile Migratzaileei buruz (xedapen osagarriak) (8. eta 10. artikulua)



- 168. Hitzarmena. Enplegua Sustatzeari eta Langabeziaren aurkako Babesari buruz (6. artikulua)

## B. Eskualde-esparrua

### B.1. Europako Kontseilua

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (1 eta 14. artikulua)
- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 12. Protokoloa (1. artikulua)
- Europako Gutun Soziala (19.4, 19.5 eta 19.7 artikulua)

### B.2. Europar Batasuna

- Europar Batasunaren Tratatua (9. artikulua)
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (21. artikulua)
- 2000/78/CE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzei buruzkoa
- 2000/43/CE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2000ko ekainaren 29koa, arraza- edo etnia-jatorria gorabehera pertsonen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa

## C. Estatuko esparrua

### C.1. Espainiako Konstituzioa (1.1, 9.2 eta 14. artikulua)

### C.2. Legeak

- Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa (22.4, 314, 510 eta 515.5 artikulua)
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa
- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzkoa (3, 10.2, 11.2, 20.2, 21, 30.1, 50 d) eta 60.3 artikulua)
- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21koa, Unibertsitatei buruzkoa (45 eta 46. artikulua)
- 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa (5. artikulua). 1.b eta 5.2.a eta 27.3.c)
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena (1, 15 eta 20. artikulua)
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (1.b eta l, 2.b, 17.d, 18.3, 23.c, 24.3, 33.c, 40.c, 66.3.g, 80, 82, 110, 112, 122, 126.2, 150.1.d eta 151.e artikulua)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (81. artikulua)
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerakoa
- Erligio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa.
- 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa (2.b, 3.3, 4, 5.1.d, 5.2.a eta 12 artikulua)
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30koa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa
- 1/2017 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzekoa, desgaitasuna duten pertsonen bazterketarik gabe parte har dezaten bermatzeko.

- 2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio-eskubidea bermatzeko.
- 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoa
- 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzkoa
- 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duena
- 14/2006 Legea, maiatzaren 26koa, laguntza bidezko giza ugalketako teknikei buruzkoa
- 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko.
- 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko
- Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa
- 1/2015 Lege Organikoa, Zigor Kodea erreformatzen duena (10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa)
- Uztailaren 12ko 6/2022 Lege Organikoa, Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren osagarria, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzekoa (22. artikulua, 4. salbuespena, eta 510. artikuluen 1. eta 2. puntuak)
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralarena
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena
- 6/2022 Legea, martxoaren 31koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina aldatzekoa.

### C.3. Errege Dekretuak

- 1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ez egiteko neurrien plangintza-multzoa garatzen duena
- 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko araudia onartzen duena
- 903/2021 Errege Dekretua, urriaren 19koa, eta 629/2022 Errege Dekretua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsia, 2/2009 Lege Organikoaren bidez erreformatu ondoren.
- 1262/2007 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Arraza- edo etnia-arrazoiengatiko tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu-araubidea arautzen dituen.
- 371/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Erljio Askatasunaren Aholku Batzordea arautzen duen azaroaren 29ko 932/2013 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 7/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Osasun Sistema Nazionalerako Sarbide Unibertsalari buruzkoa.

- 1109/2015 Errege Dekretua, abenduaren 11koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea garatu eta Delituaren Biktimen Laguntzarako Bulegoak —batez ere biktimentzako arreta integral eta zentrala— arautzen dituen.

#### C.4. Estatuaren beste tresna batzuk

- 7/2019 Zirkularra, maiatzaren 14koa, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, Zigor Kodearen 510. artikuluan tipifikatutako gorroto-delituak interpretatzeko jarraibideei buruzkoa
- Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren 16/2014 Instrukzioa, «Segurtasun-indar eta -kidegoentzako jarduera-protokoloa» onartzen duena «gorroto-delituertarako» eta diskriminazioari buruzko lege-arauak urratzen dituzten jokabideertarako». 16/2015 Instrukzioak eta 4/2020 Instrukzioak aldatu zuten.
- Ebazpena, 2022ko uztailaren 6koa, Telekomunikazioetako eta Azpiegitura Digitaletako Estatu Idazkaritzarena, zeinaz 021 zenbakia esleitzen baitaio arraza- edo etnia-diskriminazioko egoerak edo gorroto-delitu arrazistak jasaten edo ezagutzen dituzten pertsonentzako laguntza-lerroari.
- Arrazakeriaren, xenofobiaren, LGBTIfobiaren eta beste intolerantzia modu batzuen aurkako borrokan erakundeen aldetik lankidetzan aritzeko akordioa, Legez Kanpoko Gorroto Diskurtsoari Linean aurre egiteko protokoloa.
- Erljio-aniztasuna elkarriketaren, bizikidetzaren sustapenaren eta intolerantziaren eta gorroto-diskurtsoaren aurkako borrokaren esparruan ezagutu eta egokitzeko laguntzak
- Arrazismoa, arraza-diskriminazioa, xenofobia eta horiekin lotuta dauden intolerantzia moduen aurkako Estrategia Integrala
- Gorroto-delituen aurka borrokatzeko II. Ekintza Plana, 2022-2024; 2022ko apirilaren 12ko 5/2022 Instrukzioaren bidez onartua.
- Ijito Herriaren Berdintasunerako, Inklusiorako eta Partaidetzarako Estrategia Nazionala (2021-2030)
- Etxerik gabeko pertsonentzako 2015etik 2020rako estrategia nazional integrala
- Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren esparru-akordioa, Espainian etxegabetasunaren aurkako borrokarako estrategia nazionalak (2023-2030) bultzatutako etxegabetasunari irtenbidea emateko
- Desgaitasunari buruzko Espainiako estrategia (2022-2030)
- Antisemitismoaren aurkako Europako Estrategia Inplementatzeko Plan Nazionala (2023-2030).

#### D. Euskal Autonomia Erkidegoko esparrua

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzkoa
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa (3. artikulua)
- 10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerai buruzkoa
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 4/2023 Legea, apirilaren 27koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena (33. eta 34. artikulua)
- 8/2023 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gurtzarako eta erljio-aniztasunerako toki edo zentroei buruzkoa
- 4/2024 Legea, otsailaren 15koa, Genero-identitateagatik ez baztertzeari eta transen eskubideak aitortzeari buruzkoa
- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena (22., 24.1 eta 15.1.c artikulua)



- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena
- 17/2019 Dekretua, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena
- 119/2019 Dekretua, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena

